


XALBADOR
ODOLAREN HINTZOA

B0-2185

10251

ODOLAREN MINTZOA



AUSPOA LIBURUTEGIA

Plaza Santa María, 2

T O L O S A

XALBADOR

FERRANDO AIRE

ODOLAREN MINTZOA

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALZAINDIA BILBO
1193
5 ABR. 1979
1009235

AUSPOA LIBURUTEGIA
1976

AUSPOA LIBURUTEGIA • Dep. legal: S. S. 580/76 • I.S.B.N. 84 - 7158 - 009 - 8 • Noviembre 1976

E. Itxaropena, S. A. - Víctor Pradera, 2 - Zarauz

AURKIBIDEA

Aintzin solasa	11
Eskaintza	21

NOIZTIK ETA NONDIK

Haur euskalzalea	25
Pertsuzalea	29
Pertsutan hastea	35
Ene lagunak	47
Pertsularitzaz bi hitz	57
Izpirituaz erne eta bere buruaz segur	61
Pertsu idaztea	65
Gosta gabe deusik ez	67
Ohar bat	69

PERTSUAK

Ene aita zenari	73
Ene ama zenari	77

Sortetxeari	81
Urepele'ko elizari	87
Artzaintza	95
Gure artzain etxolari	101
Urepele	105
Esperantzarik gabeko amodioa	113
Dohaina eta lana	117
Aldude'ri	121
Jean Monlong zenari	125
Urepele'ko jaun ertor zenari	129
Ene errekontrua	135
Lukas adixkideari	137
Errexil zenari	141
Hiritarra eta baserritarra	145
Baigorri	151
Baigorri'ko jaun ertorari	155
Hazparne'ri	159
Mattin nigarrez ikusi dut	163
Mendian galdu direneri	171
Kennedy presidenta zenari	175
Herria eta hizkuntza	177
Agertu orduko gorde iguzkia	181
Aitona gaztea	185
Mixel Monako «Ilarragorri» ene lagun zenari	187
Frantses presidentaren hiltzea	191
Primaderari	195
Semeari	199
Ama Euskal Herria	205
Espos berrier kantatzeko	209
Jainkoa eta ni	213
Otoitzez	217
Haur galtzearen aldeko legea dela ta	219
Nigarra begian	223

Ameriketako itzulia	227
Artzain besta	233
Fededun erdaldun	239
Platinazko eztegiak	243
Bakea	247
Gure herriko ihiztarieri	253
Naparroari	259
Ortzirale saindu batetako gogoetak eta otoitza	263
O, Gipuzkoa; maitatu zaitut	267
Emaztea	271
Kanbo'n Misionetako zeremonian kantatuak	275
Pilota, euskal jokoa	279
Fededunen otoitza alabaren ezkon meza denboran	285
Afal ondoan	287
Euskal-herritik urrun	291
Haur batek bere amari	297
Hogoi urtetan bezala	301
Semea Ameriketarik itzultzean	305
Uztapideri	309
Gipuzko maitea	313
Amentsetan	319
Entzun, Jaun Zerukoa	323
Ez nuen uste	327
Donibane Lohitzune'ko omenaldia	331
Bakarka saioetan	339



Xalbador.

AINTZIN SOLASA

«Auspo» onak dauzkala Euskal-herriak bere bertsolariak, aspaldi daki hori A. Zabala-k. Euskarari haize garbi eta indartsua ekarri diola, Urepele Xalbadorrenean, duela berrogei eta hamasei urte jaio zen Ferrando Aire-k, hori ere noski ezagutu duelakotz A. Zabala-k, horregatik deritzat liburu gotor hau eskaintzen digula urepeldarraren bertso sailak hemen bilduta.

Lehenagotik ere, hala nola 1969-an *Ezin bertzean* liburuan eta beste zenbaitetan, nola *Xenpelar Sariaz*, bertsolarien xapelketez eta holako, asko eman dizkigu *Auspoa*-k Xalbadorren bertsoak. Berdin atsegin izango du hemen irakurleak, lehengoetarik zenbait aurkitzea. Hola egingen ahalko du hark ere nik egun egin dutana: hitzaurre hau neri eman didatelarik egiteko, auzoko adiskide bezala noski, egun oso batez iretsi baidut liburu hau, batean irakurriz eta bestean kantatuz, Xalbadorrezko ase on eta aberasgarri bat eginez. Gorenaz ere neri gertatu zaidana zaio gertatuko hari ere: ase baino gehiago, gosea haunditu irakurtze laster horrekin.

Barkatu beraz, irakurlea, nik nere asearen —edo gosearen —berri ematen badizut hemen, gehiagorik gabe, eskatu didaten bezala.

I/ BIHOTZ BAT... KEZKAZ BETEA

Xalbadorren bihotza! Zuk, gizon hau ezagutu ez duzuna, begira zazu azalaren latza edo begiaren iluna baino barrenago, edo berari ezin begiratuan, irakur edo abestu, gora gora, liburu honetako kantuak. Bihotz bat, Xalbadorren bihotza, duzu hemen aurkituko bero beroa, hitz eta gogoeta guzietan jo eta jo ari. Jo, bai, egiten du, eta pankaka, edo pilpiraz. Horra nun dagoen hor bihotz hori dardaratua eta inarrosia, eta bihotzarekin, bihotza bezain bizi eta minbera, gizona bere osoan.

Dugun ikus nolakoa zaikun bihotz hori azaltzen: etxean, lanean, adixkideetan, eta adixkide haundienarekin, Jainkoaren aitzinean.

ETXEA ETA FAMILIA

Etxea du bihotzak bere lehen jo lekua, etxean du maitasuna ezagutu, hazi, segidatu. Hori lehen lehen agertzen zaio liburu hau jastatzen duenari. Bego berak erran noren seme dugun Xalbador:

Aita nuen gizon bat tatxarrik gabea,
haren seme hau baino ainitzez hobea.

«Kantua ta fedea ditut aitarenak» erran ondoan goretsi dezala ere bere ama, huni buruz diolarik:

Amodioz nahi zinuela nitarik gizon bat egin.

Eta huna, lehengoan alderat dituen zorrak eta ezagutzatza erran ondoan, nola mintzo den oraingo etxeaz eta bere familiaz, bere maitasuna hain baitu gogotik kantatzen. Bere lagun maitea «hогоi urtetan bezala» maite duela badakigu berak erranik, zeren:

Amodioa zintzoa bada, ez dira konda urteak.

Hala ere, diren bezain bihotz hunkigarri izana gatik aita, ama edo emaztearen alderako hitzak, aita bati bere ume ta haurretan zaio bihotza osoki guritzen, arrailtzen edo eritzen. Alabaren ezkontza, semearen edo etxearen geroa, bai Xalbador, zuk holako gaietan Mattini berari begietan nigarra begiztatu zenionak, ez ahal zenuen zuk ere begia bustia hitz hauk zure semeari Ameriketarat idaztean?

Laster ezkontzeko zaik haurride gaztena,
bertze bien ondotik deramagutena;
amari errex jauzten zaiok hasperena,
gure etxean sendi duk uda azkena,
hi haiz uda berria ekar hezokena.

Baina badaki gure gogoetalarriak, ez dutela gauzek eta jendek balio bera, izana gatik ere gauza batzuek, hala nola etxeak, arima bat. Azkenaren beltzean, utz lezake aita bihozdu horrek semea libro, bereaz egin dezala:

Bainan ez nitek nahi, o seme maitea,
desafia dezakan kontrako haizea:
sort-etxearen karga bortxaka hartzea;
hobe baituk hi baino etxea galtzea,
nahiz trixtea izan gure zahartzea.

LANA ETA NEKATZEA

Lana du bihotz minbera horrek beste kezka bide bat. Lur gizona, mendi gizona, Ahadi-ko mendiari begira, Ferrando bere mendiko bordaldean ikusi duenak daki zer garrantzia daukan lanak, bere buruari ederki bortxa eginenez, gizon horren bizian:

Haur nintzaneko, aitak erranik...
plantatu nintzan artzaintzan.

Artzaintzak denak badauzka: zorionak, bakea —kanta-tzen ditu ederki hauk ere—, baina lehenik bizi nekea, negu latz eta urte gogorrekin; horiek denek, eta beste pairamen askok diote Xalbadorri erakutsi, ez dela beti loretsu bizia.

Dorpea dela bizia, zaila gauza bakoitzaren ongi bururatzea, hori da Xalbadorrek ekartzen digun erakaspén haundia: bertsoetan eta denetan. Huna beraz gizon bat, asko jasana, beti, bere egun guzietan, ari zaikuna hobeki egin beharrez, eta beti, egin guzietan, gose batekin bezala gelditzen dena: «Ez! Lan hori, bertso hau, ez nian hola hasi edo hola bururatu beharko!»... Berak bertsoetako dohai-naz dion bezala:

Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoberenak ere baitu bere lana.

Eta beti urrats edo biharamun hobe baten peskizan lan eta lan bere bertso lanetan ari zaikun gizon hori, huna, denen zorionerako, beti hobetuz doala ardo zaharra bezala. Hortakotz daukagu goresetako eta eskertzeko Xalbadorren begi ta bihotz kezkatua.

ADISKIDEAK

Adiskideak hemen behar ote ditut aipatu? Gisa guziz toki haundia daukate hauk gure bertsolariaren bizitzan. Lukas, Mixel Iñaragorri, Jean Monlong, Urepele-ko jaun ertora, Errexil, Uztapide, Mattin, azken hauk bertsolaritza-ko adiskideak, besteak beste...

Daukat Xalbadorrek berak erran liezagukeela badau-kala beste adiskiderik ere, eta hori berak erran gabe bada-kigu. Ez da euskalduna bere bihotz barreneko aberastasun guzien salatari berez, baina eginak diren abestiek berek nahikoa erakusten digute, bigarren senide bezala dauzkala hein hortako kantari batek bere bertsoetako lagunak eta euskalzale asko heiekin.

Eta nork ez du ikusten gainera gogoetolari horrentzat gizona bera dela adiskide, gizona bere kezka, min eta amestekin, gizona bere zortean, onean ala txarrean, benetan bere egiten baiditu, hezurreraino berak ere sendituz, aipatzen dituen guzien atsegin eta bihozminak. Hots, ez ahal da bertsolari sakona, gizon bakoitzaren adiskidea?

EUSKARA ETA HERRIA

Euskaraz abestu nahi duen batek, nahi ta nahi-ez kantatzen du bere herria. Erran genezake Xalbador hemen ere nigarra begian ari zaikula, bere etxeko gora behera batzuetan bezala. Errealismo latz batek ekartzen dion nigar mina.

Nigarra begian bertsoak ez ziran behin batean denen gostukoak izan. Zerua dena izar ikusten zuten gazte batzuek zeukaten badaukala argi pindar ederrik egungo Euskal Herriak eta gauzak belzten dituela Xalbadorrek. Gure eritziz ikusle bat da poeta eta bakoitzak bere begiz ikusten ditu gauzak. Eta gauzek badauzkate bi alderdi behintzat: Euskal-Herriak ere halaxe.

Hemen hauxe erran nahi du bakarrik Urepele-ko ikusleak: argi bezainbat ilun ikusi duela berak bere inguruan, euskara galtzen, ukatzen eta leizeratzen dutenetan, eta horrek nolakatzen dion bihotza. Zafalako bat bezala hartzekoak dira hunelako lerroak, loak hartzen ari dituen euskaldunetan:

Ama Eskual-herriaz naiz naigabetua,
uztera doalakotz betikotz mundua...

Herritarrak herrian berexi direla eta hortakotz, lehen ere, atzerritarrak hemen nagusi tokian exeri. Baina kontuz dagotzila hauk ere holako semeekin. Ama Euskal-Herriari zaio oraino mintzo:

Zure lekua hartu duen andereak
gurekin behar ditu pairatu bereak;
amaizunarendako ez daizke hobeak
ama ukatu duten haur dohakabeak.

Egun hortan zerua ilun ikusten zuen ikusleak. Bakar
bakarrik garbi hegal bat azaldu zaio lanoen artetik:

Baditaike seme hok noizbait orroitzea,
Ama, zu ganik ukan dugula sortzea...

Baina ez zaio beste argirik azaldu egun hortan. Nork
daki beste aldi batez!... Edo beste norbaitek!... Dena den,
bereziki Gipuzko alderat begiratu, zerbait ikusten du
noski. Herri anaiari erraten dio:

Gure herriaz trixte nagon bakoitzean,
zertxo bat alaitzen naiz zutaz orroitzean.

Bestalde badaki Xalbadorrek, hala nola Zarautz-en
botatu bertsoan, Euskal-Herriarentzat uda berri bat bere
bihotz guziaz deitzen. Maiz azaltzen ditu amets eder eta
beroak herriaren geroaz. Irakur hortako zer duen kanta-
tzen Baigorri, Aldude, Urepele, Hazparne herrieri, bai-eta
Nafarroa eta Gipuzkoari. Baina ezkila bakoitzak bere dan-
ga mota izaki, eta Xalbadorrena, egia errateko, berezia da,
berak dion bezala:

Gogo iluntasuna dut nik nerezkoa,
Jaungoikoak egina nau horrelakoa.

Gisa guziz horra hor bihotz maitekor bat, barren ba-
rrenetik oihuz ari.

JAINKOA ETA FEDEA

Liburu hau irakurriko duenak laster ezagutuko du
jainkomina dela hemen, familiako maitasun minarekin eta
herriminarekin, hirugarren maitasun mina. Eta ezagutuko
du egiazko min bat dela hau bihotzaren barrenean.

Bazen gure lehengoan jainkomina: oitura zaharrez, zuzentasun gosez, moralismoz, errespetuz eta sakrifizioz, otoitz ikasiz eta zero itxaropenez betea. Hortarik zerbait aurkituko du hemen irakurleak, Xalbadorrek bere bizi laburraz eta laster joan beharraz abesten duelarik. Erranen dugu hor kausitzen dugula zaharren fedea, bere latz eta gogor airearekin:

Fede haundiko burrasoan ganik sortu bainintzan mundura
Jainko legean hazi ninduten, jitean adimendura;
hain zen beroa denbor'hartako eliz gizonen kar hura,
ziotelarik gaizki eginak zeramala ifernura,
muinetaraino sartu zitzautan Jaungoikoaren beldurra.

Bizkitartean erranen dut holako fedearekin hasi ondoan zerbaitetan aintzinatu dela bertsolari krixtaua. Luzaz eta maiz kantatzekoak dira *Jainkoa eta ni* horren beste bertsoak, bai-eta *Ortzirale Saindu bateko gogoetak*, ikas-teko nola igan ditaikkeen beldurrezko erlisione hartarik, maitasunez betea den krixtautasunera:

Orai ez dakit, Jauna, zu edo ni aldatu ote naizen,
ez zira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen;
gertatzen denaz, O Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,
gure arteko hostasun hortaz hasia nintzan aspertzen,
Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak izan gintez.

Azken urte hauetako Elizaren bide berritzeak nola hartu dituen berak, eta zenbat on egin dion Xalbadorri, hori ikusiz, ez da harritzeko gero ta gehiago deitzen baidute elizetarat, bertsolari bezala, ez bakarrik otoitz bat han kantatzeko, baina ere bere barreneko sua han azaltzeko.

Sail honi denari azken hitz bat eman behar-eta, erran behar dugu irri gutiko gizona azaltzen zaigula hemen gure idazlea eta huna zergatik: ez da gizon horrentzat bizia josteta bat eta ez du ezer axalez eta arinki hartzen gogoetari sakon hunek.

II/ ARRANTZA PETIK LOREAK

Beldur batek hartua nago ni ere, orain artean idatzi ditudanak ikusita: ez ahal dutala Xalbador erakutsi gaztaina kormutsa edo karloa bezala, dena xixtiz eta latzez betea. Ez neukan bada horrelako gogorik. Gehiago dena, egia ez da holakoa. Ez dago dena hortan Xalbador, hurbiltzekorik ere.

Huna laburzki zein diren arrantza horien artean, arras agerian eta iguzkiari dauden hiru lore mota. Xalbadarren loreak dira: bertso eder batekin gogoeta indartsu errateko molde nasai eta betea, poesia, eta beharrea hirugarrenik irriparra sortzen duen alaitasuna.

GOGOETALARI INDARTSUA

Xalbadorrek, begia kolpatu aurretikan ere, ez zeukan nigar meleka, ez haur nigarra edo gaixo nigarra. Gizon nigarra bai ordea! Gizon gogoetak, sakonak eta indarrez beteak ditu agertzen beti. Gogoetalari da gizona, eta gogoe-tak lanera derama. Lanerat eta askotan bere baitan, edo gu baitan, zerbait aldatzera. Huna nola mintzo den gure mendian, muga hortan pasatzale diru gose batzuek gosez eta hotzez hiltzerat utzi dituzten gizon beltz batzuez:

Kolorez beltzak izana gatik heiek ere ama banak,
bertzek bezala sofriturikan, mundu huntarat emanak.

Sendimendua eder, horra lorea! Baina sendimendua egun guzitakoa delarik ere, lore eder egiten du egun guzitako hitza bera, bertso eder eta ongi orraztatuan errana delarik:

Ene denboran jauzika nabil ixtriputik ixtripura,
zombait oinaze jasaitekoa etorri nintzan mundura.

POETA, OLERKARI

Askotan ere begiarentzat lili pollitak lore ederra bali. Ikus nola kantatzen duen Xalbadorrek bere artzain etxola. Nola mintzo zaion maite norbaiti bezala:

Noizbait etxean norbaitek egin baderaut beltzuri,
nintzaneko haur nigarrak zu baitan ditut ixuri;
gazteko kezka ments guziak kondatzen nauzkitzun zuri,
zuk konprenitzen ninduzula baitzitzerautan iduri.

Eta begira nola ikusten duen bere etxola neguan, elurrez betea. Norbait egiazki:

Gure etxola elur hotzak azpian dauka ordea,
gizon bat zuen hila iduri, mihise xuriz gordea.

Etxolak bezala, xakurrak, xoriek zer izpiritua eta zer bihotza dauzkaten! Hala nola primaderan edo udaberrian:

Xori pareak ikusten ziren bel'izpi bana mokoan,
erasiaka han zabiltzala sar ateraka sasuan,
Jainkoak berak erakatsirik dakiten soinu gozoan,
ohantze berri baten egiten elgarren amodioan,
maitasun hortan sortu beharrak diren umeak gogoan.

Egiazko poeta batek hola ditu gauzak eta jendeak bere baitako edo amentsetako sendimendu goxoenez jaunzten, eta hori egiten duelakotz liburu honek, gure amentsa ere litake beti esku-menean egon dadin hau euskal sukalde ta irakur tokietan.

IRRIPAR ERAGILE

Azkenik, irripar egiten eta egin arazten ez ahal daki Xalbadorrek? Bai, hori ere badauka, berak aitortzen duen baino gehiago. Irakur: *Ene errekontrua*, Lukas adixkidearen ohoretan egin bazkari afariak, *Hiritarra eta baserritarra...* Eta *Gure Herriko ihiztarieri*:

Aurten ere usoak gaizki heldu omen,
gaizki heldu omen,
gauza bera entzuten dugu han ta hemen;
nik otoitz horri erran behar diot amen,
horiek entzun eta baitut segurtamen,
uso saltsa haundirik ez dugula janen.

Baina zer gaude hemen Xalbadorren idatzietan irri gehiegi aurkitu beharrez? Berak errango luke noski, bere buruarekin irriz dagoena xoroa dela. Alkartu behar du gizonak lagunekin, irri egiteko. Guk opatzen diogu Xalbadorri maiz eta luzaz alkartzea Mattin eta beste guziekin, ixtripu ta besteak garaiturik.

Zuk aldiz, irakurle, utzi nere solasak eta hasi hemengo bertsoetan: irakurriz baino hobe kantatuz, balin bada-kizu doinua. Nolanahi ez kantatu doiñu txarrean edo ego-kia ez denean, egileak berak erraten digun bezala. Hemen daukazu iturria. Edan!

Emil Larre

ESKAINITZA

- 1/ *Nik liburu xume hau idazterakoan,
emazte eta haurrak zaituztet gogoan;
eskaintzen derautzuet maitasun osoan,
bainan bizi naizeno ta ni hil ondoan,
hunen lekua bedi supazter xokoan.*
- 2/ *Harmairu zokoetan ez gorde nehola,
zikint beldurrez edo nik dakita nola;
etzaio zikinduko dakarren eskola,
kez beltzaturik ere ez izan axola,
sukaldeko solasen guardian dagola.*
- 3/ *Seme edo alaba, jartzen zarenean
neguko arratsetan suaren aldean,
zure haurra harturik belaunen gainean,
liburu hau bekizu beti hel menean,
zabalik ezartzeko haren aintzinean.*
- 4/ *Haurra badagokio beha lorietan
eta agertzen dena lerro horietan
ez baldin bada arrotz haren begietan,
enetzat ditaikela, diot egietan,
saririk ederrena sari guzietan.*

NOIZTIK ETA NONDIK

Liburu hau eskuratuko duenak usteko du dena pertsuz beterik aurkitzea. Badira ordea gauza batzu pertsutan garbiki esplika ez ditaizkenak.

Ene pertsuak aunitzek entzun edo irakurri badituzte ere, nehor gutik dakike noiztik eta nondik datorren ene pertsutako tirria eta gostua. Horiek eta gehixago ere entseatuko naiz hitz laxoan adiarazterat.

Hortako, ene haur denboratik hasi beharko dut, nehor guti baita, nitaz kanpo, horren berri dakienik.

HAUR EUSKALZALEA

Euskalzale guziak ez badira ere pertsulari, hala izaiterat entseatzen garen guziak euskalzale suhar izan garela lehen-lehenik, garbi ikusten den gauza da. Ni ere ba segurki. Gainerat, nihaurek batere ez nakiela.

Eskolan eta katiximan bateantsu abiatu nintzan. Denbora hartan, eskolan errients euskaldun bat zen. Izenaz ez naiz orroitzen. Harekin oraino bazoan hainbatean; behar orduan euskaraz mintzatzen baitzitzaukun. Etzitzautan hura hain arrotza iduritzen, eta erran dezaket laster ikasi nituela harekin ikasi beharrak.

Katixima aldiz, serorek egiten zaukuten euskaraz. Han oraino hobeki zoan. Alabainan, nik eskolan abiatu artean, ez nuen behin ere frantses hitz bat entzun.

Gero iragan nintzan ttipien eskolatik eskola haundiagoratu, eta katixima ttipitik katixima haundirat, lehen komunionearen ondotik.

Hor jaun ertora ginuen erakasle. Pertsu batzuetan go-resten dutan Uharriet apez zena hain zuzen ere. Hau eza-

gutu dutenek badakite zoin zen eginbidetsua eta bere ikasleentzat garratza. Bainan ni haren ganat trankil joaiten nintzan, harek eman ikasgai zatiak osoki ikasten eta haren erakaspenak gogotik entzuten.

Eskola haundian aldiz, errient erdalduna ginuen, euskararen kontrakoa gainerat, bertze aunitzen gisa. Haurrak elgarrekin euskaraz mintzo hauteman orduko, gaztigatzen gintuen; bainan gainerakoan etzen batere jaun ertora baino garratzagoa.

Zergatik nintzan beraz, katiximarat gogotik joaiten eta eskolarat bortxaz? Nihaurek ere gero konprenitu nuen. Jaun ertoraren eta ene artean bazen gauza bat haren karguaren eta ene eginbidearen arteko korropiloa laxatzen zuena: hura zen gure hizkuntza maitea.

Eskola ere euskaraz egin balaukute, ikasi beharrak errex ikasiko nituen nik ere.

Bidenabar erran dezadan gure jaun ertora euskalzale ona zela; katiximarekin batean entseatzen zen guri euskararen ere erakusterat. Harek euskara garbia zuen maite, ez frantsesarekin nahasia. Euskalzaleen biltzarraren manuz frantsesaren euskararat itzularazten ere ari izan zauku.

Orroit naiz behin nik irabazi nuela lehen saria Urepele'n. Hola ezarri zuen *Eskualdun*'ean gero ene adixkide izan behar zen Elizalde, *Zerbitzari* apez zenak, hura izaiten baitzen gure lantxoan jujari:

Airez aire,
hi haiz lehen, Ferdinand Aire!

Ez bide zuen pentsatzen orduan, geroxago ene pertsuak ere behar zituela jujatu!

Errientaren eta ene artean aldiz, frantses hizkuntzak egiten zuen harresi bat ikaragarria. Etzen ez nuelakotz konprenitzen; bainan ez nuen deus ere egiten haren ikasteko. Ez nuen nahi ene burua frantsesez mintzo aditu; eta frantsesez mintzo zelakotz eta euskara hastio, nuen nik ere ene aldian gure errienta hastiatu.

Geroztik zer pentsatu ote du, nitaz zerbait berri jakin badu? Nik ez dut behin ere ikusi, bainan ez da hemendik urrun bizi izana.

Zonbat aldiz pentsatzen ote nuen: denak euskaldunak izan bagina edo euskaldunik baizik ez balitz munduan!

Ikusten duzu, irakurle, arrazista ttipi bat nintzala, gero sendimenduz aldatu banintzan ere, beheraxago ezarriko ditudan bi pertsuek erakusten duten bezala.

Errient hori —Dachary zuen izena— hainbertzetaraino nuen hastiatu, ez baininduen gehiago nehork eskolarat moldatzen ahal izan. Sasi eskola ere egin izan nuen hartako doia.

Hameka urte inguruan utzi nituen alde bat eskolako alkiak. Errienta gure etxean ibili zen aldi bat baino gehiagotan, ni ait'amen bidez berriz bildu beharrez, baizik eta ikasteko ahala banuela eta pena zela hain goizik eskola utz nezan. Bainan ene ait'amek etsitua zuten enekin eta ez ninduten gehiago bortxatu.

Gauza guti ikasirik gelditu nintzan, bainan etzaut behin ere damutu. Gaur ere nahiago dut, erdaldun jakintsun bat baino, euskaldun ezjakin bat naizen. Irakurtzen doi doia ikasi nuen, bainan horri esker ikasten ahal izan dut munduko zerbait berri.

Orai engoitik ez daut eskolak eginen faltarik gehiena; hobeko nuke, eskola gehiago baino, dakidanaren baliatzeko denbora.

Irakurle maitea, ikusi duzu ene euskalzaletasuna haur haurretikakoa dela. Jakin dezazun hargatik aspaldidanik ez ditudala bertze hizkuntzak ere gutiesten eta aitortzen dutala heien ikasteko behar ordua, horra goraxago aipatu pertsuak:

Hizkuntza baten menturan dena, murriz gelditzen da egun, hargatik bertze zonbaitño ere ahalaz ikas ditzagun; bat edo bida ez laizke gaizki etor gurearen lagun, baina lehenik eta non nahi izan gaiten gu euskaldun.

Nihaurek ere nik konprenitzen ditut bi mintzaira arrotz, mintzatu ere egiten ditut behartua naizen oroz; horiek hola ni euskarari nago bihotzez ta gogoz, ez ederraren gatik bakarrik, baina gurea delakotz.

PERTSUZALEA

Hameka urtetan deus guti egin dezake batek etxean, den borondate hoberenarekin ere. Alta, nahiko nintzan orduan gizon bat izan, gero adina jitearekin haur bat bezala gobernatu banaiz ere askotan.

Artzaintzan nuen gehienik gostu, eta etzuten gure etxean nik nahi baino lehen ene kondu utzi artaldea. Hala ere, hamalau urtetako ene gain hartu nituen ardien lan guziak.

Aita galdu ginuen arte, —hemeretzi urte nituen orduan—, artzaintza izan zen ene lan nagusia; handik goiti, hargatik, denetarik zerbait egin behartu zitzautan.

Eskolan guti ibili banintzan ere, katiximari jarraiki nintzaion bururaino, eta jaun ertorak bere berettar ere atxiki ninduen, aita zenak alde bat artzain ezarri ninduen arte.

Orduan meza kantatuak emaiten ziren aste egun batzuetan ere, eta nik kantatzen nuen apezaren lagun. Gogotik egiten nuen lan hori, kantuz gostu bainuen ordukotz. Errexiki ikasi nituen elizako kantu horiek, nahiz ez nakien zer kantatzen nuen; denak latinez emaiten baitziren orduan.

Hortik laster hasi nintzan kantu euskalduneri ere oharzen. Artzain lagunak ganik ikasi nituen zombait, bainan



Xalbador, hamalau urtetan, bere lagun Manex Goienetxe zenarekin.

gehiago handik eta hemendik bildu kopia batzuetarik. Hau-
etarik gehienak izeba Marianak eskuratzen zauzkitan. Ho-
laxet aunitz euskal kanta ikasi nituen, orai gehienak ahan-
tziak baditut ere.

Badut zombait xaramela aterarik ene ardien inguruan.
Iduritzen zitzautan heieri ere laket zitzaioletela kantua.

Gero hasi nintzan pentsatzen kantu eder horiek nor-
baitek eginak zirela. Jakin ere nuen horiek deitzen zirela
pertsulariak. Hori zitzautan gauza harrigarria, kasik ezin
sinetsia. Nik ez bainuen holako dohainik sendi ene baitan.
Xoraturik egoiten nintzan mixteriozko gizon horiek gogoan.

Nahiz ez nuen behin ere pertsularirik entzun, ez eza-
gutu, eta behar bada hortako, ordukotz pertsularitza nadu-
kan berez den bezalakoa. Bada ordea bide, egiazko pertsu-
laritzatik eta pertsulari aunitzek egiten dugunerat.

Nik ene amentsetako pertsulari heietarik gutixko eza-
gutu ditut. Egin ditudanak ere, mugaz bertzaldean. Bainan
ez noa nehoren izendatzerat. Heiek ba, betetzen dituzte
egiazko pertsularitzaren baldintza guziak. Eni sobera gauza
eskastu zauzkit beti hortako.

Euskal kantuetarik pertsularietarat eta pertsularitzarat
joan banaiz, nik orduan uste nuelakotz kantu guziak per-
tsulariek eginak zirela izan da. Aspaldi ikasi nuen ordea,
gure kantu eder guziak ez direla baitezpada pertsulariek
eginak; bi gauza direla kantuen egitea eta plaza batean
edo ostatu batean pertsuen emaita.

Halarik ere errexago da pertsulari batentzat kantu baten
egitea, kantuak egin dezazken batentzat bat batean per-
tsuak emaita baino.

Behin hauteman nuen ene aita zena ene osaba batekin
pertsularietaz mintzo. Zioten dohain berezi bat bazela ho-
rien baitan, eta horier entzuten zirela guk erabiltzen ez

dugun hitz aunitz. Ageri zen aitak eta ere, miresten zutela pertsularigoa.

Aitaren aita ere artzen omen zen zerbait pertsuka, baina ez dakit zer hainetako pertsularia zen. Ez hanbatekoa neholaz ere, nehon ez denaz geroz aipu. Gostu bide zuen ordea, eta nork daki, gu bezanbat lagundua izan balitz, zer atera zitaiken.

Harek, ez dakit nori eta zer okasionetan, eman pertsu baten erdia kantatu izan dauku aitak. Horra emen:

Gizon bat ikusi nuen sasitik ateratzen,
hori hor zagoela ez bainuen pentsatzen.

Beraz, ez naiz gure arrazan ni lehena pertsutarako gogoia izan dutana.

Aita zena ere, alta, kantari gaitza ginuen. Nik ez dut hanbat entzun elizatik kanpo, hango kantari izendatua baitzen; baina, nik bezala, aunitz kantatu bide zuen gaztean, eta ageri zen ariman zuela kantua. Uste dut boza nik harenaren iduritsukoa dutala.

Gure hauzoan bazen, orai hemen bizi ez bada ere, gizon bat Aldude'tik hunarat ezkontzaz jina. Joanes Bidondo deitzen da. Guk, ahatik, *Muttiko* erraiten ginion, nagusi zagon etxeak *Muttikoenea* duelakotz izena.

Horren anaia bat, Piarre, Ameriketara eta ibilia, hemen egon zen zorbait denbora, gero bera Beskoitze'rat esposatu arte. Anaiaren ardiei zaintzen eta hola ibiltzen zen. Hau pertsuzale porrokatua zen eta bera kantu egile pollita.

Nik ezagutzen ditut hunek egin kantuetarik bida hasteko, baina bat batean ez omen zezaken egin. Hala ere, nik uste, etzuen bertzerik izaiten gogoan; eleketa ere beti tixoka ari zitzaunkun.

Orroitzen naiz behin: menditik ardi esnearekin zatorrela, esne ontzia aldean pausaturik jarrita zagoela ikusi nuen, eta nik erran bainion:

—Hola, Piarre! Pausan?

Ihardetsi zautan:

—Ba, esneak ez nezazken jasan!

Errana dut gure Piarre Ameriketara ibilia zela. Han bide zen hamalauko gerla denboran ere, eta etzuelakotz gerla hortan parte hartzeko deiari ihardetsi, gero, hunat itzuli zenean, preso atxiki zuten Bordele'n. Kantu ederrak egin zituen hortaz ere. Hau dio hor, bertzeak bertze:

Ez dakit hola beharturikan ala inozentkerian,
beti bagira bataillon on bat gaudenak presondegian.

Frantzia'rat entregatu artean ordea, egon omen zen mugaz bertzaldean desertor; Elizondo'n naski gehienik, eta hortik, denbora pasa edo, halako pertsuzalea ere baitzen, ibili bide zen Gipuzko alde hortan pertsularien ondotik. Txirrita eta haren lagunak ezagutzen zituen.

Ardura mintzo zitzaukun heietaz, eta heiek eman pertsu famatu guziak bazazkien. Nik horren ganik ikasiak ditut.

Berak ere maiz pertsulariak zituen mihian; bainan harek aipatzen ez bazituen, nik ekartzen nuen horietaz elea. Behin holaxet galde egin bainion:

—Errazu, Piarre: pertsulariak dudarik gabe gaztetik izaiten du jitea?

Ihardetsi zautan:

—Ba, eta zahartzean joaitea!

Harek ere etzakien orduan horren berri, bainan nik badakit orai egia ziola.

Gizon horrekin elekatzen nintzan guziz, hautemaiten nuen nihaur pertsulari izaiteko tirria bizi bat; baina ez nuen esperantza izpirik hala izanen nintzala egun batez, gaur Aita Saindu izaiteko baino gehiago.

Alabainan, nik uste nuen Jainkoak, apostoluak Izpiritu Sainduz dohatu zituen bezala ebanjelioaren predikatzeko, bertze gizon batzu dohatu zituela pertsulari izaiteko. Oraino ere badira hala uste dutenak, baina ez da egia.

Bixtan da Jainkoak ezarri duela hazi zerbait gure baitan, batzuetan azkarragoa eta bertzetan ahulagoa. Guri dago ordea bihi horren oziaraztea eta gero landare hortaz arta hartzea.

Nehork ez lezake sinetsu eni segurik zombat gosta zautan hain huntaraino ere heltzea. Baditazke ahatik ni bezanbat entseatu direnak, ez baitira deusetarat heldu. Zerbait pindar bazitaiken beraz ene baitan, baina biziki ahula. Ufatuaren bortxaz zaizko artetan gar zirrista batzu atera.

Banuke gai huntaz erraiteko gehiago, baina ez dut astirik huntan zabartzeko. Aintzina joan behar dut.

PERTSUTAN HASTEAN


Errana dut jadanik zer tirria senditzen nuen pertsulari izaiteko, baina ez nuela hortako ahalik senditzen ene baitan. Hainbertzetaraino egia da, non ez bainintzan, bakarrik nintzela ere, behin ere entseatzen baten moldatzerat, ez eta buruan pasatzen ere.

Ene lagun batzuer entzuna nioten, bazirela elgarri pertsuka artzen zirenak ostatu horietan; leher egiten zutela heiekin irriz. Alabainan, orduan irri egin araztea zen pertsulari baten eginkizuna, aunitzen ustez segurik.

Ni ez nintzan orduan oraino ostatuetan ibiltzen, ene adintsuko batzu bezala. Gero ahatik, abiatu banintzan abiatu, kobratu nituen denbora galduak!

Hala ere urte batez, herriko besta bigarren egunean, —hauk Agorrileko Andredena Mariz izaiten dira beti—, hitz hartu nintzan ene betiko lagun Lorentzo Tolosa'rekin, gauzoko bailerat aterako ginela biak, handik haren etxolarat joaiteko etzaterat.

Bailea, *Angelesainea* izeneko ostatuaren aintzinean egiten zen bigarren besta egunean. Orai ere ba oraino.



*«Ixilduxe ziren batez, hor, kasik nihaurek nahi ez
nuela, bota nioten bat leihotik barnerat.»*

*(Xalbador, Angelesaine'ko leiho ondoan, bere lehen
bertsoa bota zuen tokian.)*

(Foto A. Z., 1976.VI.15)

Ez naiz orroitzen zertan pasatu ginuen denbora, dantzariet beha edo. Orroitzen naizena da, ja etxolarat abian ginen mementoan, hauteman ginituela lau edo bortz gizon pertsuka ari ostatu hortako sukaldean. Lorentzo eta biak leihoaren kanpotik jarri gintzaizkioten beha.

Lehen aldia zen nik pertsulariak entzuten nituela; bainan etziren nik amensten nituen heietarik; ez beti ere, nik nazkien kantuen egileen hainekoak. Harrapatua nintzan. Ez nituen dudarik gabe pertsularitzat hartu ere. Bertzenaz etzen pasatu zena pasatuko.

Tira ahala ari ziren, kasik aldiarik ezin hartuz, bainan ahal bezala; eta nik pentsatu nuen ene baitan:

—Horiek bezanbat nik ere egin nezeakek!

Ixilduxe ziren batez, hor, kasik nihaurek nahi ez nuela, bota nioten bat leihotik barnerat. Denak eni beha jarri ziren, eta zakur batzu bezala oldartu zitzauzkitan. Etzitzaizioten nonbait ongi joan gazte mukuzu bat heien artean sartzea.

Zerbait gaizki egin izan banu bezala, ihes egin nuen mendi alde, Lorentzo enekin neramala.

Hori izan zen ene lehen pertsua. Hamasei urte nituen. Zer pertsu eman nuen ez naiz orroitzen; ez orroitu nahi ere funtsean. Banaki norbaitek gogoan duela, zer nahi eman nezoke ixiltzeagatik.

Guk, eskolatik goizik alde egina eta ardura ait'amen bixtatik urrun bizi ardien estakuruan, gure gisako hiztegi bat moldatua ginuen, hiztegi arrunta biziki; eta pentsatzen dut, pertsua bururatzea gatik, edozoin hitz mota baliatu nuela, eta mihiak ez ditu errex uzten behin hartu plegu txarrak.

Badu iturrixka hunek gero ere zombait basur botarik, ur garbi ixurtzen hasi artean.

Gainerat, pertsuka hasterat doan gazte batek, zer ez du erranen *poto* eginen duen baino lehen? Alta, *poto* egitea



» ene betiko lagun Lorentzo Tolosa...»

geroxago ere ez da mirakulu, ez desohore. Ari denak egiten ditu hutsak.

Behin, —ordukotz plazetan kantatzen nuen—, pertsulari lagun batek erran zautan hobe zela poto egitea, ezen ez arrozoin txar bat emaita pertsuaren bururatzeagatik. Egia haundia erran zuen.

Errexago baita ordea kontseilu emaita, etsenplu emaita baino, berari ere entzun diozkat nik, erran behar ez direnak, pertsuetan.

Alta, harek errexki egiten zuen, ene iduriz, pertsua; bainan nork ote du lan hortan aski errextasun?

Gure Basarri haundiak berak iduri izaiten du ongi eta errexki egiten duela. Ongi egiten duela egia da; bainan, hura kantuz ari denean, haren gibelean dagoena ohartuko da, hari ere gostatzen zaiola bere sailaren eremaita. Eskuko erhiekin erabiltzen duen katzakak erakusten du hori.

Batek bertzea ekartzen du eta ohartu naiz ene ildotik atera naizela.

Beraz, ene lehen pertsua leihoaren kanpotik eman bannen ere, hortik laster hasi nintzan barneko alderat ere sartzen, bai eta pertsu gehiagoren emaiten.

Ez dakit noiztik, bainan aldia hartan Urepele'ko ostatuetan izaiten ziren, bi trago eginez geroz, pertsutan hasten zirenak karraskan. Ez dut nehor izendatuko, hainbertze baitzen entseatzen zenik. Gero ahatik denak ixildu ziren.

Ikusi izan ditut artzen, eta nihaur ere ba ari izan, lau edo bortz lagun jarri mahain baten inguruan, arnoa ekar arazi eta hori: pertsua bururatzen etzuenak paga. Eni etzaut behin ere gertatu pagatu behar izaita; zerbait gisa moldatzen nintzan beti bururatzeko.

Ostatuan pertsuka artzeko ohidura hura, uste dut Gipuzkoa'ko Zaldibi'tik hunat jin artzain batek ekarria zuela. Joxe



Joxe Tolosa.

Tolosa deitzen zen gizon hori; bainan guk Joxe *Epele* erraiten ginion, *Epelea* izeneko etxean bizi izana zelakotz. Gipuzkoarra zuen emaztea ere, Gabiria'ko alaba eta Eusebio Igarzabal pertsulari ezagunaren izeba. Jadanik aipatu Lorentzoren aita eta ama ziren. Biak zenduak dira.

Lorentzoz bertze hiru seme eta alaba bat bazituzten, bizi diranak gaur ere: Balentin, ene arreba batekin ezkondua, Martin eta Piarre, eta alaba Teresa.

Gure Joxe maitea, ostatuan papoa berotzen zitzaioneko, berak erraiten zuena, *bertsotan* hasten zen. Badugu zombait irri eginik harekin. Batere etzuen molderik, bainan beti ari zen. Bertzea frango ere hasten zen haren inguruan, haren seme zombait ere barne.

Eta, nik uste dutan bezala, harek ekarria bazen ohidura hori hunarat, ni ere hari esker hasi nintzan. Beraz, nahiz ez dutan dena horien gain emaiten, gipuzkoarrek badute haste hastetik parte haundia ene pertsulari izaitean. Berek erran lezaketena, «ondoren zer esanik ez».

Hamasei urtetarik eta hemeretzi artean pertsua frango kantatu nuen; lagun horiekin ere ba, bainan aunitzetan bakarrik. Ene hamalau hamabortz urtetako amentsa, erdi egi bihurtua zen. Ez banintzan ere ene amentsetako pertsulari heietarik, ari egiten nintzan; eta ni sinets, egin alabak egiten nituela zerbaitetaratzeltzeko.

Bakarrik nintzanean, alde guzietarat entseatzen nintzan: bat batean egiten, zuzen edo makur; bai eta, denbora hartuz, hobexago batzuen moldatzen ere. Azken molde hortan heletzen nintzan hobekienik. Damu dut ez bainuen bihi bat paperetan ezarri. Gogotik behatuko nioten orai.

Hemeretzi urte bete nituenean, bi gertakarrik jo ninduten kasik egun berean: aita galdu nuen eta gerla hasi zen Frantzian.



Joanes Harriet, «Permundo», Aldude.

Handik goiti ez nuen funtsik kantatu. Gerla denborako egoera gogorak kasik itzali zuen, nitan doi doia indartzen hasi su hura; etzen pertsu aro. Ez da dudarik kalte haundia egin ziola horrek ene pertsulari izaiteari. Edozoin landarek ere ez du behar den uztarik emanen, hazi behar zuen sa-soinean ekaitz pean egona bada.

Halarik ere, bazen nitaz zerbait fama hedaturik, eta gerla ondoan, Ernandorena abiatu zenean hemen gaindi pertsulari bila, nitarat ere gidatu zuen. Funtsean, berak aski hitz egina du gauza hortaz. Donibane Lohizune'n muntatu zuen xapelketa batetarat ereman ninduen.

Artean ez nuen egundaino plazan kantatu; pertsulari funtsezko haundirik ezagutu ere ez.

Behin, hogoi ta bat urte nituenean, Luhoso'ko Panpale zenarekin ari izan nintzan hala ere, herri hortako ostatu batean. Orroitzen naiz nola loriatu zen hura, nik haren bide bera hartu nuela ikustean. Bitxi da, pertsulari guziek nahi ditugula ondokoak izan!

Kantatu izan nuen ere Aldude'ko Harriet edo *Premundo* zenarekin. Hau pertsulari ona zen, aho onekoa. Horren boza eta kantatzeko moldea ere gustagarriak ziren. Damurik etzen, oraikoak bezala, alde guzietarat hezia.

Banka'ko Iriarte ere ezagutzen nuen. Hartako doia hune-kin kantatua ere, bainan arras guti.

Zubikoa aldiz, doi doia ikustez nuen ezagutzen, nahiz etzen hemendik urrun bizi, Banka zuenaz geroz bere ardu-reneko bilgia.

Donibane'ko xapelketa hura baino lehen, Panpale hila zen, Premundo ixildua. Iriarte'rekin eta Zubikoa'rekin joan nintzan beraz, eta han bildu ziren bertze guziak enetzat ez ezagunak ziren.

Gure Mattin maitea ere han ezagutu nuen; Etxahun eta Errexil zena ere ba.



Felix Iriarte, Banka.

Donibane'ko egun hori enetzat munta haundikoa izan zen, eta ahalgerik gabe erran dezaket, gu, Mattin eta ni ere, Er-nandorena'ri esker ezagutu gaituela Euskal-herri osoak; bai eta gehiago herrik ere. Paris'en barna ibili izan baitgira jaun horrekin.

Hortik goitiko ene pertsutako ibilaldien eta gora beheren berri ez dakien euskaldun guti ditaik; alde guzietan ibilia bainaiz. Huntan utziko dut beraz, gai hori.



Ezkerretik: Ernardorena, Xalbador, Zubikoa, Larroulet medikua.

ENE LAGUNAK

Donibane'ko xapelketa horren ondotik, gehiago hola-tsuko besta ere muntatu zituen gure Ernandorena'k. Hortik pertsuzaletasun zerbait sortu zen hemen gaindi ere. Hasi zen jendea guri dei egiten, herriko bestak zirela edo tobera edo zerbait holako zela.

Hastean, Iriarte'rekin ibili nintzan, bainan hau laster aspertu zen eta betikotz ixildu.

Ba, nik ere egin izan dut bakarretan desafio, ez nintzala gehiago joanen. Irabazirik etzen, eta orduko ibil moldea, nolakoa zen berriz, guhaurek otorik ez izanki eta! Eremai-leak izaiten ziren batzuetan, bainan ekarzalerik bakan. Gure xoko huntarat treinarik ere ez da heltzen, eta gostatzen zen orduan urrunxkotik hasteko etxeratzea.

Askotan, gu etxeratu gabe, ahantziak izaiten zitaizken guk han nonbait kantatu pertsuak.

Edozoin gisaz, nik bezala laborantzatik bizi behar zuenarentzat, manera txarrak ziren heiek.

Badute gure etxean zerbait iretsirik, nik pertsularigoan irauteagatik. Etzuen gure osagarriak ere onik hartu gu horrela ibiltzean.



*Pertsulariak Baiona'n, 1964.XII.6'an.
Ezkerretik: Xalbador, Xanpun, Ezponda, Errexil zena,
Zubikoa eta Mattin.*

Bainan etxaldeari egin kalteaz eta etxekoer pairarazteaz dut bakarrik damu; ez osagarriaren mendratzeaz, hogoi urtez laburtu banu ere ene bizia. Hola iduritzen zaut, nik ere eman dutala ene bizitik puxka bat gure herri maitearentzat.

Nonbait xapelketa eta holako besta bat zenean ahatik, izaiten nuen *oto espresa*: besta muntazailek berek enkar-gatzen zuten Jean Monlong, ene adixkide zena, ene harat hunat erabiltzeaz.

Bera kantari xoragarria zen, eta pertsularigoa maite baitzuen nehork baino gehiago, —bera ere artzen zen—, ez da dudarik gogotik ibiltzen zela enekin.

Gainerat, nik nehor guti ezagutzen nuen orduan; harek aldiz nor nahi. Ni herabe nintzan eta ene buruaz batere ez segur; harek sustatzen ninduen, aita batek bere semeaz duen arta berarekin. Haren gogoko pertsularia nintzan eta beti nahi izaiten zuen ni lehen izaitea.

Ez dakit egundaino nehork ordaindu diozkan enekin galdu denborak eta erre ezantzak. Nago ez ote ziren haren bihotz onaz baliatzen, nahiz eni segurik etzitzautan behin ere arranguratu.

Gazterik utzi zuen mundu hau. Nahiz beti adixkide egon ginen, azken denboretan etzen gurekin hanbat ibiltzen. Osa-garriak etzion manatzen.

Pertsu batzu eskaini diozkat gure adixkidantzaren eta pertsularigoan ene sustatzaile izan zenaren ezagutgarri; bertze pertsuen artean aurkituko dituzu, irakurle.

Iriarte ixildu zenetik, Mattin izan da ene ardureneko laguna, edo kontrarioa? Noiz nola! Badugu zonbait ibilaldi eginik elgarrekin, eta zonbat pertsu kantaturik ote? Ba ote da gu ezagutzen ez gaituen euskaldunik mugaz bi aldetan? Guti ba hain segur.

Ez naiz ni beti errexki ari izana gure Mattinekin. Ez gi-nuen artzeko molde bera. Nik ez nuen balio irri egin araz-



Etxahun.

teko. Hala beharrez entseatu banaiz ere, maiz gaizki heldu izan naiz. Mattinen harmarik hoberena berriz, hori izan da beti.

Nihaurek ere irri egin dut frangotan, horren ateraldiak entzun eta. Ez ordea, bertzeri irri egin araztea gatik, nihaur joiten ninduelarik! Horrek ez du alabainan nehor errespetatzen. Badauzkit ximiko bakarrak eginak bihotzean.

Beharrik, aspaldi ikasi nuen hobe zela horrekin ez gaitzituarena egitea. Bertzenaz, hanbat gaixto: loriatzen da norbait hunkitua ikustez eta haundiagoak botako daukitzu. Orduan etzaizu gelditzen zuhaur irriz hasteaz bertze erremiorik. Zer egin bada bertzerik? Badaki ba berak ere etzaiola nehor jotzen hasiko, ahalgez ere!

Hortik kanpo, Mattin nor nahi bezain gizon ona eta atsegina da; lagun guziek maite dugu.

Mattinen eta ene lagun, Errexil zena ere ibili izan da frangotan; bainan harek gazterik egin zituen lur huntako aldiak. Goian bego!

Etxahunekin ere kantatu izan dugu, batez ere Xuberoa'n ginabiltzalarik. Hau ez da ordea —berak aitortzen duena— hanbat trebe bat batean *berset* egiten. Bainan baditu eginak kantu xoragarriak. Musika ere berak egiten badaki, eta hortan bekaizti nitzαιο, Xuberoa'ko *izarra* den horri.

Zubikoak ere kantatu izan du gurekin noiztenka. Hau biziki jostagina zen eta bazituen ateraldi pollitak. Aspaldian ixilik dago ahatik, osagarriz mendratua baita.

Orai Mattinekin eta enekin maizenik dabiltzan pertsulariak Xanpun eta Ezponde dira alde huntan. Nor nahi bezain trebeak eta dohatuak, parerik gabeko lagunak gainerat, nahiz enetzat ezagutzen ditudan pertsulari guziak hala diren. Ez dakit ni zer naizen heientzat.

Orai berriki agertu zauzkigu berriz, alde huntan ere, pertsulari gazteak. Ba ote dakite zer atsegina egin dautaten?



Ernest Alkat, Iholdi'ko pertsulari gaztea.

(Foto Arturo Delgado)

Hauek dira Alkat, Mendiburu eta Arrosagaray, ezagutuenak segurik.

Guk, *zahar* hauk, hartua izanen dugu beti, gostaia gosta, pertsularigoa gazte hauetaraino helarazi dugulako gozame-na. Agian hauek bertze batzuetaraino eramanen dute.

Hori izanen da, euskara beti bizi delako seinalea. Zer bertzerik bilatzen dugu guk? Hori da preseski pertsulari ba-kotxaren helburu nagusia: gure hizkuntzaren ezagut araztea eta hunen iraupena.

Mugaz bertzaldean hemen baino gehiago kantatu dut, eta nola utziko ditut bada hango lagunak aipatu gabe? Bainan bederazka denak egin behar banitu, liburu hau dena ez nuke sobera, hainbertzerekin egin izan dut eta.

Lehenik, duela hogoi eta hamar urte inguru, Basarri eta Uztapide ospetsuekin ibili nintzan. Orduan horiek ziren eza-gutuenak.

Orai badira ahatik konda ahala Gipuzkoa'n segurik, bai eta Bizkaia'n ere zombait, zoin baino zoin hobek. Horiekin denekin, hasi berri diren zombaitekin salbu, kantatu izan dut askotan.

Harritzeko da hor gaindi nola sortzen den pertsularia eta laster gain gaineraino heltzen. Egia erran, maiz ari ere dira eta entzuleen aldetik asko lagunduak.

Milaka biltzen da hor jendea pertsularien entzuterat. Balio haundia emaiten diote hor pertsularitzari. Hortan ager-tzen da euskaldungoan duten kartsutasuna.

Alde huntako entzule miseria ikusi eta, ahalgeturik egoi-te naiz ni askotan. Ez nau ahalgetzen, guk errekestarik ez dugula ikusteak. Badakit zenbatsu balio dugun guk. Gure euskaltasunaren hotza senditzeak nau ahalge arazten.



Jean Pierre Mendiboure, Heleta'ko pertsulari gaztea.

(Foto Arturo Delgado)

Mugaz bertzaldeko pertsulari lagun horiek aunitz estimatzen eta maitatzen ditut nik, eta uste dut horiek ere egi-ten nautela ni.

Badut bertzalde alde hortan adixkide asko. Ez dakit merexitua dutan adixkidantza hori, baina gogotik onartzen dut halere. Ene bizia aunitz betetzen du horrek.



Jean Arrosagaray, Aintzile'ko pertsulari gaztea.

(Foto A. Z.)

PERTSULARITZAZ BI HITZ

Ez dakit baden ofizio errexik, bainan etzaut iduri hau baino zailagoko aunitz baden munduan. Ez litaike ez hala! Oraino ere zonbaitek, eta nihaurek haur denboran uste bezala, dohain hutsez egiten balitz!

Batere ongi egitearen axolarik duenak ordea —eta nork ez du?—, herstura gogorak pasatzen ditu, hainbertze jende zuk zer aterako duzun beha dagonean. Bertzela ere, entzulea gero eta eder goseago dela ageri da.

Pertsulariak, lan hortarako zaletasunaren edo gogoaren ondotik, baitezpadako duen dohaina, rimaren edo berdin burutzen diren hitzen bilatzeko errextasuna da. Hori ez duena, beti nekez ariko da. Nik badakit ongi.

Dohain hori duena, titxolaria deitzen dugu guk hemen. Horieri, zuk hitz bat atera orduko, burrustan heldu zaizkiote hura iduriak gogorat.

Dohain horiek biak dituenak, errex egin dezake pertsua. Horrek zerbait aterako du, barnean deus baldin badu segurik.

Nahi ez duenak ez beza sinets, baina eni bigarren hori eskatu izan zaut beti. Ez du pertsularia izan behar, ni baino titxolariago izaiteko. Gogoarekin bakarrik ere zerbait egin ditaikela, badut ahatik lekukotasuna. Ni hortaz izan bainaiz gehienik dohatua.

Ez bainaiz ordea titxolaria, beti nekez ari izan naiz, eta ongi berriz bakan. Nondik nahi duzu, rima ezin bilatuz ari denak, gogoan izan ditzan, pertsuak ona izaiteko eskatzen dituen bertze baldintzak?

Pertsu ona egin nahi duenak, ez du behar *problemarik* izan horren osatzeaz, behin zer erran gogoratuz geroz. Errextasun hori osoan duten pertsulariak, nehork uste baino gutiago dira.

Bertze guziek barka dezaidatela, baina alde huntan Xanpun dugu, izaitekotz, hortaz dohatua. Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n badira ahatik andana bat, gure iduriz hasteko, pertsua nahi bezala moldatzen dutenak edozoin rimetan.

Rimaren bilatzea baldin bada enetzat segurik lanik zailena, hori da ere gauzarik premiatsuena pertsuaren egiteko.

Azken denbora hauetan, pertsuzale batzuek atera daukute ez duela rimak inportantziarik haundiena pertsu batean; barnean zer duen dela gehienik konda. Eta banago, hori entzunik edo, zombait entzule ez ote diren egoiten gaizki rimatu pertsu bat entzun arte, esku zartaka hasteko!

Behar bada, pertsulari batzuek ere atseginekin entzun dute ateraldi hori, askatasun horrek arint lezakelakotz gure lanaren zailtasuna. Baina ez ditela lokar. Pertsulariak pertsuak egin behar ditu. Nolakoak egiten diren, hori bertzerik da. Baina arrozoinamendu txar bat ongi rimaturik, pertsuago da, arrozoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hoberenarekin egin oreka ere ez da ogia, labean axala egin artean.

Pertsulariak behar du gainerat, edozoin rimetan pertsua-
ren osatzeko ahala, gogoratzen zaion ateraldiak eskatzen
dion bezala; eta iduri luke rima arrado edo iduri guti duen
batean nekezago egin behar duela, bainan ez da batere egia.
Berdin bururatzen diren bortz hitz bakarrik ezagutzen ba-
dituzu ere, bortz pundutako pertsu bat ederki egin dezakezu,
erran nahi duzunak hala manatzen badu; eta dotzenaka bera
iduriak dituen hitz batekin hasi eta poto eginen duzu berdin.

Ez dira hitz arrado horiek gogoratzeko zailenak. Bakan
erabiltzen dituzu, bainan badakizu halere azken aldian ibili
eta non gelditu ziren. Sukaldari bati ere gerta dakioke, egun
guziz usatzen duen ontzi bat edo, ez eskurat jitea prisordu
batean. Bainan nahi duzia, besta buruetan baizik erabiltzen
ez duen bat badakiela xuxen non duen?

Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure
hizkuntza gaizki erabili behar. Etsenplu asko emaiten ahal
nitezke hortaz; bainan, ez luzeegi izaiteagatik, hau emanen
dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait holako, konpa-
razione:

Deitoragarri zaut hiltzia,
maitatzen baitut bizia.

Bizia'rekin ongi joanarazi nahiz, erran du horrek *hiltzia*,
hiltzea delarik hitz xuxena. Poto egitea baino lotsagarriago
zaut eni hori. Poto egiten duenak, ez du nehor enganatzen;
hura agerian gelditzen da. Aldiz, *hiltzia* erran duenak, enga-
natu nahi izan du.

Holako zerbait ezin bertzean egin izan ez duen pertsu-
laririk ez ditaik; bainan zer egiten duten ongi dakitela eta
noiz nahi egiten dutenak badira.

Pertsu idatzietan ere agertzen da maiz huts hori. Han
oraino itsusiago egiten du.

Badakit ber horier etzaiotela bekatu; baina nik ez dut hori onartzen. Denek behar dugu gure hizkuntza ongi ahozkatu, eta pertsulari batek bietan.

Rimaren ondotik, negurria da pertsu batek eskatzen duen baldintza nagusia. Airearekin edo doñuarekin bat egin behar dute zure hitzek; baina hortako ez dut uste dohain bezirik behar den izan. Hortan treba ditaikela iduritzen zaut.

Enetzat segurik, negurrian huts egitea —eta gero eta gehiago gertatzen zaut— rimaren bilatzeaz sobera hartua naizelakotz izaiten da nik uste. Zergatik ez dute Gipuzko eta Bizkaia'ko pertsulari on horiek negurrian ere huts haundirik egiten? Dударik batere gabe, rima errexki bilatze horrek uzten diotelakotz, bertze egin beharrez arta hartzeko, denbora edo askatasuna.

IZPIRITUAZ ERNE ETA BERE BURUAZ SEGUR

Pertsulariak, bere lana ongi egitekotan, behar du ere izpirituz biziki ernea izan. Zure gogoak ez du lo egon behar; maiz gauza batetik bertzerat aldatu behar du eta emaiten dauzkizuten gaiak zer ele bide duten bat batean hatzeman.

Bi edo hiru pertsutan zuhaurek erabiltzeko gai bat emaiten dautzutenean ere, behar zauzkitzu gogoratu gai horrek berekin dituen erran beharrak. Askotan ordea ez duzu deus haundirik ateratzen, zure gogoak ez baitu egin gai horren eremuen itzulia, eta itxura bakarrik egin eta bazoazi zure jar tokirat. Han ba, pentsatuko duzu: Hau ez diat erran! Edo: Hura erran behar nian!

Ofizioak eman ta bertze batekin negurtzen emaiten zaitzutenean berriz, izpiritu erneaz bertzalde, behar duzu zure buruaz segurtamen osoa izan; bertzenaz ez duzu lana ongi eta lañoki eginen.

Huna zertako: hor gudu bat bezala ereman behar duzu alabainan; zure tokia ahal bezain ongi zaindu eta bertzearena mendratu.



«Izpirituaz erne eta bere buruaz segur.»

(Lazkao-Txiki ta Lopategi, Donosti'ko Anoeta'n, 1967.VI.11'an)

(Foto Aygues)

Artetik erran dezadan, nik molde hori ez dutala nehoiz gogokoa izan, eta nor nahik sartzen nauela zakuan.

Lana ongi egitekotan, ez duzu deus pentsatu behar, berzteak pertsua bururatu arte. Harek erran duenari behar diozu alabainan ihardetsi, deus onik egitekotz.

Hor ez bazira zure buruaz hainbat segur, kezketan egonen zira pertsuaren moldatzeaz beraz, eta askotan ez duzu entzunen ere lagunak zer bota dautzun. Orduan zer gertatzen da? Ahoa zabaltzen duzu, bainan ez duzu deus erraiten. Pertsu pollit bat ateratzen baduzu ere, ez da izaiten lagunak erran dautzunaren ihardespena, eta hori ez da lañoki artzea.

Bere buruaz segur dena aldiz, erran nahi dut pertsuaren moldatzeaz kezkarik ez duena, han egonen da lasai lasaia lagunak zer derasan entzuten, eta gero harek bota duenaren arabera ariko.

Goraxago aipatu estatu hortan aurkitzen garen hok, zainen hoben emaiten dugu gehienek, zainek edukitzen gaituztela airean. Egia ote da hori? Ez naiz medikua galde horri ihardesteko; bainan eni iduritzen, bere buruaz segur denak mendera dezazkela zainak.

Izpiritua eta bere buruaz behar laiken segurtamena aipatu ditut, eta zer erran orroitmenaz? Baitezpadako ote du pertsulariak? Noiz nola, zer nahi dela, ez duzu orroitu behar lehen zer kantatu duzun. Hura dohakizula gogotik ahal bezain urrun.

Hainbertze gai ukaiten dituzu aldi guziz berdintsuak, hala nola agurra, eta gogoan baldin baduzu lehen zer erran izan duzun, bertzerik gogoratu ezean, hartarik zerbait kantatuko duzu, eta ez da hori baino gauza lotsagarriagorik guretzat.

Gure lana, berria egitea da, txarragoa bada ere. Bertez naz ez luke entzuleak aldi guziz gure ganat jiterik. Aski luke

behin magnetofonean hartzea gure kantaldia, eta hartarik entzuten ahal gintuzke etxean.

Alta, ez da lan errea gai berarekin beti gauza berria egitea. Edozoin sukaldarik erranen dautzu hori.

Baditaike ene lagun guziak ez diren ene aburu bereko, diotalarik hobe dela lehen zer kantatu den ez orroitzea. Baditaike erranen dutenak behar dela preseski gogoan izan lehen kantatua, gai bera datorrenean hitz beretan ez erortzeagatik. Bainan nik pertsu berdintsuak kantatzen entzun ditudanek, badakit ongi bazakitela zer egiten zuten.

Bertze bertute bat bada, pertsularia aunitz lagunt lezakena lan onaren egiten. Hori da, aire edo doñu aunitzen ezagutzea, eta heietarik, erabjili behar duzun gaiari dohakonaren hautatzen jakitea. Konparazione: heriotze batetaz kantatzea ez dohakizu *Uso xuria*'ren airean.

Ezin ukatua da ere, hainbatean erreki eta ongi kantatzen duen baten ahotik, pertsu bera ere beti goxoago dela beharientzat; bai eta kantatzeko errextasunak lagunt dezakela pertsu hobearen egiten ere.

Horra: ustez aipatu ditut pertsulari batek, osoa izaiteko, baitezpadako dituen bertuteak. Horiek denak bere baitan sendi dituenak, altxa dezala erhia! Ez dut uste ene bi eskuetan den baino aunitz gehiago altxatuko den Euskal-herri guzian.

PERTSU IDAZTEA

Jadanik errana dut errexago dela pertsulari batentzat kantu baten egitea, kantuak egin dezazketen batzuentzat bat batean pertsuak kantatzea baino.

Pertsulari gehienek ez dute ordea lan horri lotu nahi, eta nik uste dut badakitara zer gatik. Ni ere egona bainaiz kasu hortan.

Bi arrozoin badituzte. Badakite pertsu idatziek, nahi hainbat denbora hartzen ahal delakotz hortako, hutsik gabeak izan behar luketela, eta etzaiote iduritzen, heiek bat batean egiten dituztenak baino hoberik egin dezaketela nehola ere, eta hori etzaiote aski.

Bainan horien arrozoin nagusia da gogorik ez dutela hortako; nik eta bertze batzuek bietarik zerbait egiten badugu ere, bi lan horiek, nahiz elgar iduriak diren, galdegiten dute zaletasun berezia.

Badira gizonak, beren erran beharrak gogoratu arau jendearen aintzinean goraki kantatu behar dituztenak; bertze batzu aldiz, munduari edo Jainkoari bakartasunean mintzo

zaizkionak. Hauek, enetzat, pertsu idazleak edo kantu egi-leak dira, eta zonbaitek deitzen dituzte olerkariak.

Bainan zer ausartzia norbaiten edo bere buruaren olerkaritzat atxikitzea! Hortako lehenik behar litaik jakin zer den olerkia. Nik segurik ez dakit zer den, bainan etzaut iduritzen edozoin gauza dela. Izan ote da ere egundaino nehon Jainkoaz bertze olerkaririk?

Nik ere luzaz pertsu guti idatzi dut: hartako doia ene karitzat atxikitzea! Hortako behar litaik jakin zer den olerkia. Nik segurik ez dakit zer den, bainan etzaut iduritzen edozoin gauza dela. Izan ote da ere egundaino nehon Jainkoaz bertze olerkaririk?

Azken denbora hauetan ahatik, izan ditut sustatzaileak eta horier esker agertu ditut herriari, aspaldian golkoan naduzkan arrangurak: bai eta ere ene bozkario bakarrak.

Orai artean idatzi ditudan pertsu gehienak agertuko dira liburu huntan; bainan, Jainkoak nahi badu, hasian hasi, jarraki nahi nuke ene sendimendu eta gogoeten herriari molde hortan agertzen.

GOSTA GABE DEUSIK EZ

Nik ez dakit bertzek nola egiten dituzten kantuak, baina eni segurik ederki gostatzen zaut batzuetan.

Gostatzen batez ere hastea, eta gero gogoaren hartan atxikitzea. Hainbertze lan eta buru hauste bada gure bizi moduan, eta ene izpiritua errex aldaratzen da nik atxiki nahiko nuken lekutik.

Bertzalde, izigarriko lanak emaiten dauzkit gehienetan, erran nahi nituzkenekin aire bat ongi joan arazteak. Nihaurek musika egiten jakin izan banu, engoitik banuen kantu gehiago eginik, eta hain segur ederragoak.

Ezagutzen ditudan aireak, nik agertu nahi nituzkenetaz bertze sendimendu batzuen gainean josiak izanak dira askotan, eta ez da maiz gertatzen, bertze norbaitentzat egin soinekoa, gure soinean ongi joaitea.

Zerbaitetaz kantuak egitea gogoratzen zautan guziz, *problema* bera izaiten dut, eta baditut pertsutan agertu nahi nituzken gai batzu utziak ere, heier loakiketen airerik ezin bilatuz.

Berriki errana dut nik ez dakitala bertzek nola egiten dituzten kantuak. Nik uste badiren, paperra eta luma harturik mahain baten ondoan jarri eta gogoratu arau idazten dituztenak.

Ez dakit zendako behar dutan ene moldea salatu; baina nik ene pertsuak ene harat hunatetan nabilala egiten ditut, eta gero, denak egin ondoan, idazten.

Bada orai, gero eta gehiago, pertsu idazten ari denik. Mugaz bertzaldean, bixtan da, asko dira eta onak; baina pozten nau ikusteak, hemen ere badirela frango ongi helzen direnak.

Nik hauer, aholku bat emaitokotan, hau erran nezeieke: ez diton beti ar alegiazko gai batzuetaz; behar lukete ere ari beren biziko gertakari eta sendimenduetaz; ez dezatela ere nehoi deusik har; egiten dituztenak izan ditela osoki heienak, behar den denbora hartuko badute ere hortako.

Hor ez da denbora izartua, eta norbaitek gostuko pertsu alde bat irakurtzen badu, ez du galde eginen zonbat denboraz eginak diren, baizik nork eginak diren.

Horra, irakurle: engoitik nardatua zaitut, baina xehe-tasun hau nahi nauzkitzun eman. Orai ahatik hurbil dituzu, gutiziatzen dituzkezun pertsuak.

OHAR BAT

Liburu huntan ontsalaz euskara orokor bat edo euskara batua delakoa behar nuen erabili, bainan ez nuen hori ongi eginen.

Bertzalde, irakurle aunitzek ez ninduten hola baino hobeki konprenituko.

Beraz, ene baxenabartar euskaran idatzi dut gehiena.

Xoilki, mugaz haindiko anaieri bereziki mintzatu behar izan dutanean, entseatu naiz heienaren erabiltzerat, nahiz ez dutan heiek bezala mintzaten naizelako ustekeriarik. Irakurlerik gehiena hangoa izanen dutala jakinik, hoinbertze bederen zor nioten.

Hemengoek barka dezaidatela, hola jokatu naizela; hangoek aldiz, hemengoa ez baitut ukatu.

Irakurle maitea: nongo nahikoa izan zaiten, uste dut xehetasun hau zor nautzula.



*Pertsulariak Ereñozu'n, Uztapideren omenaldian, 1975.V.4'an.
Ezkerretik: Azpillaga, Koxme Lizaso, Lopategi, Joxe Lizaso,
Uztapide, Lasarte, Mitxelena, Mattin eta Xalbador.*

PERTSUAK

ENE AITA ZENARI

Nihaur ohartua naiz ene jitearen aitortza askotan egin dutala, ezarri ditutan pertsuetan. Bertzeak bertze: ni ere ez naiz sortu aingeru umila... Edo: Nehoiz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria...

Eta zer egin gure jite horren kontra? Gure inguruan sofri arazten dugula ohartzearekin, behar bada heiek baino gehiago guhaurek sofritu!

Gure inguruko lehenak aita eta ama izan ditugu, eta heiek badakite, nehork baino hobeki, gure jitearen berri.

Hola diot nik, liburu huntan agertuko ez diren kantu batzuetako pertsu batean:

Ni ere ait'et'amek hain ninduten maite,
bainan nik ez nituen atseginez bete.
Pena hauk heien manuz datorzkita ote?
Hala bada ederki gaztigatzen naute.

Ba, hain ninduten maite. Bertzela berdin izanen zitzaio-
ten ni nola nahikoa aterarik ere.



Xalbadorren aita.

Eta nik ere maite nituen. Oraino ere, nitan zerbait onik ba ote den iduritzen zautan bakarretan, heieri pentsatzen dut, zerbait goxo partekatzeke duenak bere maiteneri pentsatu ohi duen bezala.

Pertsu hauk eskaini diozkat aitari:



- 1/ Aita nuen gizon bat tatxarik gabea,
haren seme hau baino aunitzez hobea.
Bera hanbat bertute garbiren jabea,
nola ote dagokit zerutikan beha?

- 2/ Zerurat igaitean, gure aita zenak
berekin joan zituen dohain gehienak.
Eni eskastu zauzkit kasik heiek denak,
kantua ta fedea ditut aitarenak.

- 3/ Aita, bakarrik utzi ninduzun munduan,
ez denbora luzeko, guzien buruan.
Behaka has zaitezke zure inguruan,
enetzat jar lekurik badenetz zeruan.

- 4/ Nik ere mundu hits hau utzi behaut laster,
orai zeruari so ez naiteke asper.
Aita, ez nau utziko Jaunak hortik bazter,
zuk eni helarazi fedeari esker.

ENE AMA ZENARI

(1976'eko *Xenpelar Saria* irabazia)

The image displays a musical score for the piece 'ENE AMA ZENARI'. The score is written on eight staves of music, all in a single treble clef. The key signature consists of two sharps (F# and C#), and the time signature is 2/4. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some rests and slurs. The piece concludes with a double bar line at the end of the eighth staff.



Xalbadorren ama.



- 1/ Ama, nola zure belaunetan nindadukazun denboran, utz nezazu zure bularrean burua pausa dezadan; ene bihotzak zer sendi duen nahi baiterautzut erran, zure ezpain sakratuetarik ikasi nuen mintzairan.
- 2/ Ene deia amodioaren bitartez zinuen entzun, eta gero oinazen erdian mundurat eman ninduzun; biziaren grazia lehenik, gero hoinbertze maitasun, berant jakin dut, ama maitea, zendako eman dautazun.
- 3/ Orroit naiz, inozent bat bertzerik ez nintzaneko bizitzan, ama, zer artak eta pilpirak nitaz zinituen izan: kartsuki miresten ninduzula zeruk' aingeruen gisan, ez aingeru bat nintzelakoan, bainan zurea bainintzan.
- 4/ Geroxago, gaizkirako griñak ni baitan piztearekin, zure oharrarazpen zorrotzak etzitzaizkidan atsegin; ene adimendu errebelak ez baitzuen nahi jakin, amodioz nahi zinuela nitarik gizon bat egin.
- 5/ Alabainan ez nuen nik hanbat konprenitzen gizongoan, are gutiago zuk enetzat zinuen amodioan; atsegingarriena nondik zen, handik nahi nuen joan, ene nahia bete zadien baizik ez nuen gogoan.
- 6/ Errexki konprenitu dut, ene burrasogoko bizian, ama, zer pairarazi dautzudan ezagutza eskasian. Kezka hori ene lagun duket ene bizitza guzian, hoinbertze damutzen zautan hutsik ez baitut kontzientzian.

- 7/ Ama maitea, nondik zatorren zure maitasun garbia,
kreatzea zer den ikastea egin zitzautan argia.
Geroztik betikotz xukatzea izan da ene lehia
ene gatik ixuri nigarrek busti zuten aurpegia.
- 8/ Adiarazi zerautanean odolak bere mintzoa,
berriz gogoratu zitzaizun, o ama, zure altzoa;
bai ta zure bularretik hartu esne on haren gozoa,
orduz geroztik zurea naukan ene izaite osoa.
- 9/ Ama, gero zerurako deia zitzauzunean etorri,
bizirik zirauten izaitetan bilhatu nuen sokorri;
bainan gure Jainkoak ahalik ez dio eman nehoi
estaltzeko amaren galtzeak egiten duen huts hori.
- 10/ Munduko amarik hoberenak, Jesusena ez izanik,
ez du ekarri sekula hutsik egin ez duen gizonik;
ez ni ere, bainan ene hutsak ene gain hartzen ditut nik;
aldiz, ama, zuri bihurtzen dut, ni baitan bada deus onik.
- 11/ Ama, noizbait ibili banaiz zu naigabetzeko moduan,
ene hobenez penitentzia egin nahi dut munduan;
Jaunak zure gai kausi nezala heriotzeko orduan,
itzal gabeko ama semegoz goza gaitzen zeruan.

SORTETXEARI

(1972'eko *Xenpelar Saria* irabazia)

The image displays a musical score for the piece 'Sortetxeari'. It consists of six staves of music, all written in a single treble clef. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 2/8. The notation includes various rhythmic values such as eighth notes, quarter notes, and half notes, along with rests and slurs. The music is presented in a clean, black-and-white format on a white background.



Xalbadorrenea.

(Foto A. Z., 1975.X.30)



1

Oi gure etxe maitea,
orroitzapenez betea,
zorionaren atea!
Zure altzoan iragana dut
sortzetik orai artea.
Izanagatik pobrea,
bertzeak baino hobea
ni sortu nintzan etxea.

2

Amak, munduratekoan,
etxea, zure xokoan
hartu ninduen besoan.
Geroztik hunat eduki nauzu
zure geriza goxoan.
Nabilalarik kanpoan
ez naiz sosegu osoan,
beti etxea gogoan.

3

Dudalarik zerbait pena
zu zaitut lagun lehena,
ihes leku hoberena.
Zure alderat inguratzen naiz
ahalik eta maizena.
Munduko leku maitena,
zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.

4

Arbason eskutik jina,
o egoitza atsegina,
ez dakit zure adina.
Heiek lurpean estali ziren
zutan utzirik arima.
Hain amultsuki egina,
heientzat zer bihotz mina
zutaz gabetzen bagina!



Xalbadorrenea.

*«zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.»*

(Foto A. Z., 1975.X.30)

5

Etxetik hoinbertze gazte,
kanporat zorion eske
zoraturik bazoazte,
bizi-moduak behartuz edo
etxea ez aski maite?
Gure faltaz balezate
arrotzek etxe hau bete,
hobendun haundi gintaizke.

6

Zutaz hainbertze entzuna,
aunitzentzat ezaguna,
o bizipide urruna!
Nik betidanik arbuiatu dut
zure aberastasuna.
Hau da guk deraukaguna,
zu baitan eskas duzuna:
etxeko goxotasuna.

7

Ene haur onak, badakit
luzaro gabe engoitik
joanen naizela mundutik.
Arbason ganik ukan dohaina
ez utz sekula eskutik,
aldegitean hemendik
heier erraitea gatik:
Etxea han dago xutik!

8

Pertsu hauk bururatzean,
azken finez orroitzean,
emanen naiz otoitzean:
Etxea, noizbait utziko zaitut
aunitz pena bihotzean;
Jaunak, zure babesean,
nola bainintzan sortzean,
naukala heriotzean.



Urepele'ko eliza.

(Foto A. Z.)

UREPELE'KO ELIZARI

Liburu hunen egiterat gehienik sustatu eta osatzen lagundu nauen Aita Zabala'rekin, ene emaztea eta biak gure etxe buruan ginabiltzan batez, gure elizari beha jarri gintzaizkion, eta orduantxe gogoratu zitzautan, nik, ene lehen pertsuetarik batzu, eliza horren ehun urte betetzearen kariatarat idatziak nituela.

Ez nintzan orroit, ez zonbat, ez nolako pertsuak izan ziren; orroit nintzan bakarrik, Uharriet, gure ertor zenak galde eginik egin nituela eta orduko *Eskualduna* kazetan ager arazi zituela, berak ene pertsuen burukitan aintzin solas bat ezarririk, ene lantxoia *Oilanda arroltzeño* deitzen zuela.

Orroit nintzan ere, urte heietan Urepele'ko auzapezgoa betetzen zuen Joanes Monako'k, diru zerbait eman zautala, —ez naiz orroitzen zonbat—, gure herria aipatuz pertsu horiek egin sari. Hori izan zen, nik pertsuetarik irabazi lehen dirua.

Ene arreba Marik berriz, laudatu zauzkitan pertsu horiek. Hori estimatu nuen, auzapezak eman dirua bera baino gehiago.

Nik ez nuen pertsu horien gehiago eskuratzeko esperantza mikorik; bainan Aita Zabala'k erran zuen, kazetan agertu baziren, bazitaikela kazeta haren nonbait hatzeman ahal izaita.

Baiona'ko Euskal Erakus Tokirat jo zuen beraz, zer nahi zuen adieraziz; eta horko enplegatua den Mañek Pagola'k, bazter guziak miaturik, hatzeman du nonbait, ene pertsuak zakarzkien kazeta. Milesker, Mañex!

Erran dut gure elizaren ehun urte betetzearen karietarat egin nituela pertsu horiek; bainan bazen bertzerik ere.

Denbora hartan Baigorri'ko apez nagusi sartu zen Olagaray'ek altxatu zuen, aspaldian lurreratua zagoen Oilandoi'ko kapera. Ez baitzitaiken lan ttipia izan, orduko molde-tan mendi kaxko hartarat obra horren egiteko behar zirenen igaitea bera. Kapera hori geroago ere aipatzen dut nik pertsu batzuetan.

Aldude'n berriz, denbora bertsuan, Lazkanotegi apezak harrotu zituen bazterrak, eskola libroa eta gazten libertitzeko plaza bat ere eraikiz; marmarika frango atera arazi baitzuen.

Banka'tik hasi zen norbait obra horiek aipatuz pertsu igortzen. Aldude'tik Premundok ihardetsi zion, Urepele ere aipatuz, bidenabar ni deitzen ninduela pertsu zonbaiten mol-datzerat.

Alabainan, guk ere baginuen gure gertakaria. Ehun urte orduan betetzen zituen, gure eliza baginuela.

Lehenago, Aldude'rat joan behar izaiten omen zuten urepeldarrek, elizako urrats guzien betetzerat.

Ehungarren urte buru horren karietarat, jaun ertorak, herriko buruzagiekin batean, zerbait antolatu eta tinda arazi zuen gure eliza maitea.

Aldare aintzinetik kondatu zaukun nola, mila zortzi ehun eta berrogoi eta batean, gogoratu zitzaieten Urepele'ko buruzagieri, gure herriak ere behar zuela bere eliza.

Aldudarrereri ez omen zitzaieten ontsa iduritu gauza hori, eta urepeldar gizon heiek, Meharoztegi'n barna Banka'rat jautsirik, aldudarrek etzitzaten ikus zertan zabiltzan, joaiten omen ziren apezpikutegirat, eliza hunen ukaiteko baimenaren eta laguntzaren galdez.

Meharoztegi delako mendixkak mugatzen ditu Banka, Aldude eta Urepele.

Jaun ertorak irakurri ere zauzkigun, eliza hunen egiten, beren emaitzez eta lanez, parte hartu zuten guzien izenak.

Bada gauza jakingarririk gure elizaren sortzearen harat hunatetan. Xehetasun gehiago nahi lukenak, aurki litzazke Aldude eta Urepele'ren ixtorioan.

Gure elizak, atal koronean, 1841 zenbakia dakarre; barnean aldiz, 1842'a zakarkien, orai ezeztatua badu ere. Beraz, urte bat inguru eman zuketan horren hasi eta bururatzan.

Antolatu berriz, 1942'an egin ginuen, eta besta, 1943'an ospatu zen.

Dena dela, eni jaun ertorak egin arazi zauzkitan pertsuak, Banka'ko eta Aldude'ko zirikatzailek ihardetsiz eta gure eliza aipatuz.

Hamabortzgarren pertsuan aipatzen dutan euskaldun jaun haundia, Saint Pierre jaun apezpiku zena da. Harek ere egun haundi hortan ohoratu baigintuen bere presentziaz.

Ene pertsu horiek hemen agertzen dira hitz bat ere aldatu gabe, beren huts nabarmen guziekin.

Nik, segurik, gogotik behatu diot ene «oilanda arroltzeari», eta badakizue zeri ohartu naizen? Hogoï eta hamahiru urte horietan gauza guti ikasi dutala!

Horra beraz, ene pertsuak, jaun ertor zenak ezarri aintzin solas eta guzi:

Bankatik lehenik, gero Aldudetik bi «Arroltze» igorri dauzkute gotorrak. Eta guk oilanda arroltzeño bat baizik ez izanki ordainez eskaintzeko!...

Den hau igortzen dauzuegu borondate onez. Har zazue halaber. Oraiko denboretan jakin behar da ukanarekin pasatzen.



- 1/ Buruari loturik egon niz pentsatzen
ixilik egoitea hobe ez ote zen;
auzoko jauntto batek bainau kitzikatzen,
Jauna, lagun nezazu hari ihardesten.

- 2/ Baigorri, utz nezazu zutaz mintzatzera,
oraiko gudua da hortikan atera;
moldatu baituzue Oilandoi'n kapera,
suiet berri bat da jin hortik gutartera.

- 3/ Gora zu, jaun ertora, guzien burian,
zuk duzu ezen eman jin eta abian;
obra beharragorik ez baita mundian,
Jainko etxea xutik han mendi gainian.

- 4/ Fededun zaretela erran gabe doa,
Oilandoi'rat jendea tropaka baitoa;
gureztat ere, otoi, Oroz Gainekoa,
otoitz zazue bada zeruko Jainkoa.

- 5/ Banka'tik ere zauzku berri onak jiten,
zuzen erabiltzeko hari segi giten;
ez niz beldur bidetik bazter joan ditene,
ardi onak baititu artzainak egiten.

- 6/ Ez dut uste gezurrez mintzatuko nizan,
han bezanbat koplari non ote da izan?
Banka'n dira kantari oro beren gisan,
Eskual-herrian lehen ostatu t'elizan.



Urepele.

(Foto A. Z., 1976.VI.14)


- 7/ Aldude hortaz ere nahi niz mintzatu,
 horko koplari batek nau desafiatu;
 kantuz ihardestea baiteraut galdatu,
 kopla batzuez nuke nahi zerbitzatu.
- 8/ Gizonen bertutea lanetan ezagun,
 gure auzo hoieri beha dezotegun;
 errotikan baitaude eskualdun fededun,
 nork egin du hoin laister hoinbertze obra hun?
- 9/ Errespetia dute elgarri ekartzen,
 Elizaren legeri baitira behatzen.
 Gure Jainkoak ditu bai segur laguntzen
 hartzen dituzten sailen denen bururatzten.
- 10/ Banka'k pentsa dezake et'erran bertzela:
 Zertako bada lauda Aldude horrela?
 Inbidian direnek jakin dezatela
 koplariaren aita han sortua zela. (1)
- 11/ Azkenik, Urepele, zutan gelditzen niz,
 gure xokoak ere merezi tu bi hitz;
 nork bera laudatzea itsusi ez balitz,
 bertze oroz gorago ezar niro ainitz.
- 12/ Jendek izanagatik gutaz erraiteko,
 hargatik sort herria ez dut mendratuko.
 Zerbait izan girela nork du ukatuko?
 Arbasoen obrak hor baitaude lekuko.

(1) Ene aita Aldude'ko Aranbelea etxean sortua zen.

- 13/ Duela ehun urte, entzunik badakit,
Urepele'n oraino ez zen elizarik.
Gizon zintzo batzuek buruan harturik,
Jainkoaren etxea badugu geroztik.
- 14/ Bainan gaixo eliza, oi zer bihotz mina!,
arras tristerik zagon, hits eta zikina.
Orai ikusten dugu distirant, arina,
Kurutzarri Leonek berri bat egina.
- 15/ Elizak ehun urte betetze horrekin,
besta bat egin dugu orok elgarrekin.
Eskualdun jaun handi bat hemen zen gurekin,
urre makila eta kurutzearekin.
- 16/ Aldude, Urepele, Banka ta Baigorri,
zuentzat ditut egin zonbait pertsu berri;
eskuz esku bagaude lotuak elgarri,
ez daukute eginen gu laueri irri.

ARTZAINNTZA

A musical score for the piece 'ARTZAINNTZA'. The score is written on ten staves in a single system. The key signature is three sharps (F#, C#, G#), and the time signature is 2/8. The melody consists of eighth and quarter notes, with some phrases connected by slurs. The piece concludes with a double bar line.



Xalbador artaldearekin.

(Foto A.Z., 1975.XII)

1

Mendian sortu bainintzan,
laguntzat ene bizitzan
artaldea dut nik izan;
haur nintzaneko, aitak erranik
ardiak goberna nitzan,
plantatu nintzan artzaintzan,
mundu hunetan gabiltzan
gizon xumeen langintzan.

2

Geroztik ene bizia,
izan eguzki xuria
ala elur erauntsia,
santa sekula pentsatu gabe
zer dutan irabazia,
hola deramat guzia:
ardier erne begia,
bihotzez heier josia.

3

Xakurraren konpainian,
xori-kantuen erdian,
nago ardien guardian.
Ez dakit zonbat ditutan bainan,
bat galtzen bada mendian,
hautemaiten dut abian
zoin ez den arditegian.
Ai ene kezak ordian!

4


Gero bazterrak miatuz,
ikusirik mirakuluz,
urrundik deitzen dut xixtuz.
Ardi gaixoak ihardetsiko
derauta bee amultsuz.
Orduan hasten naiz kantuz,
ardi hau nereganatuz
gogoratzen zeraut Jesus.

5

Udak ardia derama
libro oihanetan barna;
orduan ez naiz ni jauna.
Libertatea Jainkoak baitu
denen gogoan emana,
uzten diotet baimena.
Nola dezaket kondena
nihaurek maite dutana?

6

Laster iraganik uda,
hurbildu gira negura,
gaiten bordarat ingura.
Xixtu batekin gaur biltzen dit
errex ene ingurura;
sartu zaiote beldurra,
eginen baitu elurra,
ardi heztaile segurra.



Xalbador artaldearekin.

(Foto A.Z., 1975.XII)

7

Neguan sartzearekin
artzainak badu zer egin,
bai eta ere atsegin:
ate ondoan ikusi baitut
ardi bat bi bildotxekin,
hantxe bertze bat batekin,
urruntxago bida erkin,
zoin uros naizen nork jakin?

8

Munduko izaitetarik,
gaur eta egundainotik,
bildotxa da eztienik.
Bati nik hauxe galdetu diot
musu bero bat emanik:
Nor da gutan dakienik
zoin zaituen maitenik:
zure amattok edo nik?

9

Ez da atzoko kondaira,
doha bi mil'urtetara
jakintsunen arabera:
bildotx bat hartu besotan eta
artzainak ziren atera,
aingeruekin batera,
Eguberri goiz aldera,
Jesusen adoratzera.

10

Bildotxa Jesus haurrari
eskaintzen izan denari
Jaunak emaiten du sari;
ardi bildotxik duen herria
ez da arras urrikarri:
dixelakotz maitagarri,
berak ditugu lotgarri
sortu gaituen lurrari.



Xalbador, bere artzain etxolaren aintzinean.

(Foto Boni Otegi)

GURE ARTZAIN ETXOLARI

(1973'eko *Xenpelar Saria* irabazia)

The image displays a musical score for the song "GURE ARTZAIN ETXOLARI". The score is written on six staves of music, all in a single system. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some rests and a fermata. The piece concludes with a double bar line.

- 1/ Ez dakit noiztik den bainan, bai iragan aspaldian,
gure arbasok landatu leizar batzuen erdian,
iparretik hotzik datorken aizearen gordabian,
etxetik urrun han dago gure artzain etxola mendian.

- 2/ Kaiola maitagarria, hor zaude mendian gora,
zutarat bilduz nuen nik iragan gazte denbora;
bizitza zoragarri hura maiz etortzen zaut gogora,
oraino ere ahal guziez heldu nitzaizu ondora.

- 3/ Zuk ezagutzen dituzu, etxola maitea, ontsa
udaren edertasuna eta neguaren beltza;
munduak duen kiretsetik garbi daukazu bihotza,
hango berririk guti dakiten gizon xumeen egoitza.

- 4/ Aspaldi du zure ganat, haur hutsa nintzan denboran,
aita zenak ninduela goiz argi batez ereman.
Orroit zirea, ahapetik, zer botu egin nuen han?
Beti maiteko zintudala nik nola nerautzun hitzeman!

- 5/ Zer ahal zen zure pena ez baitzinitaizken mintza,
nik ordea mixterioz entzun nuen zure hitza:
«Gorde-leku bat erakutsiz hor dagoke ene giltza!
Nitarat gabe, otoi, ez geldi, hemen gaindi bazabiltza!»

- 6/ Ate apal batetarik da zutarako sarrera,
leio bakarra begira daukazula sorkaldera;
pausu erdian joan daike ganbaratik sukaldera,
halere etzintuzket utziko jauregi baten aldera.

- 7/ Egun guziko nekeak unatua arratsean,
ene ardiak utzirik, zure ganat etortzean,
errege baten urgulua sendi nuen bihotzean;
hameka aments gozo eginik badut zure ohantzean!
- 8/ Noizbait etxean norbaitek egin baderaut beltzuri,
nintzaneko haur nigarrak zu baitan ditut ixuri;
gazteko kezka ments guziak kondatzen nauzkitzun zuri,
zuk konprenitzen ninduzula baitzitzerautan iduri.
- 9/ Artaldea zuri hurbil mendietan zabilano,
primaderaren erditik larrazken ondarreraino,
zoriontsuago nintzala, ez dut ahanzten oraino,
erregerikan ospetsuena bere jauregian baino.
- 10/ Negu beltza jin da gero, amentsetan nindagola,
ostotarik buluzi zen aldeko leizar arbola.
«Berriz ikus arte!» erranik han utzi nuen etxola.
«Ai, sasoin ona zoin laburra den!» iduri zuen ziola.
- 11/ Negu batez pentsatu dut elurrez elur joaitea,
ikusi behar nuela mendiko ene maitea;
gure etxola elur hotzak azpian zaukan ordea,
gizon bat zuen hila iduri, mihise xuriz gordea.
- 12/ Egun onen erraiterat barnerat sartu bainintzan,
ene bihotzak etzuen atsegin haundirik izan:
teilen artetik itaxura zarion nigarren gisan,
dohakabe bat bisitaturik bezala itzuli nintzan.

- 13/ Gaur elurrak hurtu ditu, zabaldu da primadera;
artaldea ere berriz igan da mendi gainera;
ahal bezain maiz sartuko naiz, etxola, zure barnera,
nehoiz ukatu ez derautazun bake hortaz goatzera.
- 14/ Bainan gaur zer senditzen dut? Zer heldu da ene gana?
Jazdanikan aurtenerat bortitza zaut mendi gaina;
geiago luzaz ez nitaike izan lehengo artzaina,
bainan, etxola, ez, otoi, trista: utziko dautzut ordaina!

UREPELE

Airea: Mixel Monaco zenak-eta Ameriketako ezarri kantuenak.

The image displays a musical score for the piece 'UREPELE'. It consists of eight staves of music, all written in a single melodic line using a treble clef. The time signature is 3/4. The notation includes various note values such as quarter notes, eighth notes, and dotted notes, along with rests and slurs. The melody is simple and rhythmic, typical of a folk or traditional song.



Urepele.

(Foto A. Z., 1976.VI.26)



- 1/ Nik zonbat pertsu alde ditutan ezarri,
laster agertuko da aunitzen pozgarri.
Kantatu izan diot Euskal-herriari
edo gure hizkuntza dohakabeari;
gaur, Urepele, zuri hasten naiz kantari,
zu baitan munduratu naizenaren sari.

- 2/ Urepele, derautzut aitortu beharra
ederrez etzarela munduan bakarra,
bainan hala ere nik zu zaitut izarra.
Galdezka hasten bazaut nehoiz kanpotarra
nongo semea naizen edo nongotarra,
goraki erraiten dut: «Ni urepeldarra!!»

- 3/ Jainkoak berak daki ni ene bizitzan
bertze zonbat herritan ibilia nizan.
Beharrik, gogo huntan zu baitzinabiltzan,
hor gaindi perekatu izan nauten gisan,
engoitik bertze nonbait kokatua nintzan,
maitasuna ez banu zu ganako izan.



*«Zure eremuetan dute ezarria
gaurko bi Nafarroen arteko harria.»*

(Ixterbegi'ko kaskoko mugarrria.)

(Foto A. Z., 1976.VI.26)

- 4/ Zure eremuetan dute ezarria
gaurko bi Naparroen arteko harria.
Etzare paperretan hanbat ekarria,
bainan aitortu nahi balute egia,
kondaira zaharretan zoin aipagarria,
Roland hiltzen hauteman zinuen herria!
- 5/ Beha zure mendi ta oihan ederreri,
zure ur garbietan arrainak igeri;
entzun xoriak kantuz goiz ala astiri,
erakutsi beharrez kantatzen bertzeri.
Ez dela harritzeko, errex da ageri,
pertsutako gogo sortzen bazaut neri.
- 6/ Artzaingoa da zure aberastasuna,
zare, Jesus sortu zen tokien laguna;
fedea zure baitan sendo daukazuna,
horren hil-zeinua zuk ez duzu entzuna.
Zu baitan bizitzea zer goxotasuna!
Ez da toki txarrean ene maitasuna!
- 7/ Hoinbertze gogo bihotz garbien sehaska,
hartze zinituzkena ospeak doblezka.
Orai zuharen baitan zaudezke galdezka,
nitan bururatzen den zure bihotz besta.
Ez, ez, o Urepele, etzaitela kezka,
zu maite etzaituen herritarrik ezta!



Urepele.

(Foto A. Z., 1976.III)

- 8/ Herritarren artean zonbait hala hula
badakizu denboraz sortu zauzkitzula.
Satanek ifernutik egin duke burla,
bainan, herri maitea, ez ahantz sekula
zuri ongi nahiak sortu derauzkula;
hortarik ageri da maite zaitugula.
- 9/ Arrotzak zu ganatzen dauzkitzu Ekainak,
bainan gu ez kutsatzen horien usainak.
Etzauzkitzigu erdaran lokartu ezpainak,
euskara baizik ez du mintzatzen artzainak.
Garbiki beiratzeko euskaldun dohainak,
pare gabeak dira zure mendi gainak.
- 10/ Ez garela betiko, lege batek dio,
gizonari Jainkoak manatzen baitio;
hilkor sortu ginen ta zer erremedio!
Nik, Urepele, zuri ertean adio,
desiratuko dautzut aunitz amodio;
arta hori uzten dut gazten gomendio.
- 11/ Gazte maitea, zutaz nago gogoetan,
otoi, entzun nezazu guzien onetan:
Norbait baldin bazaude gaurko denboretan,
orroit Urepele'ri zarela zorretan;
euskaldun ager zaite ele ta obretan,
gure sort herri maite hunen ohoretan.

12/ Bai, euskaldunak izan obra eta ele,
herriko aferetan ez izan logale.
Izan zaite arbola fruitu ekarle,
herria beti bizi denaren seinale,
gero're izan dadin hitz hauen erraile:
Gora urepeldarrak! Gora Urepele!

ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

The image displays a musical score for the piece 'ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests, slurs, and ties. The melody is characterized by a mix of eighth and quarter notes, often grouped together. The overall mood is contemplative and melodic.



- 1/ Amodioa gauza tristea, bihotzen hingatzailea,
guziz enea bezala bada esperantzarik gabea.
Gizonarentzat hau baino malur handiagorik badea?
Ikusten eta ezin eskura maitatzen duen lorea!...
Hunela bizi baino aunitzez hobe litaike hiltzea!

- 2/ O, Jainko ona, zendako bada egin nauzu hoin maluros,
begien bixtan izar eder bat ezarri dautazulakotz,
ikus orduko maite nuena nik ditutan indar oroz?
Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez bihotz...
Nehoz ikusi izan ez banu hobeko nuen ondikotz!

- 3/ Oi, ene maite ezin ukana, zoin zaren xarmegarria!
Maite dut zure begitartea, maite zure boz ezta,
halaber zure irri gozoa, zure izaite guzia;
zuretzat baizik ez dut begirik, zare ene iguzkia,
gau eta egun zuri pentsatzen deramat ene bizia.

- 4/ Martxoko hormak galduko duen lore pollit goiztiarra,
ta eihartzerat bortxatua den aizeak hautsi abarra;
ene bihotza ez ditaikea gauza horier konpara?
Nehoz enea ez da izanen maitatzen dutan izarra,
hortaz oroitz maiz etortzen zaut nigarra begietara.

5/ Aitortzen dautzut, ene maitea, goiz aski banakiela
etzintaizkela enea izan, bertze batentzat zinela;
bainan halere maitatu zaitut, ez bainezaken bertzela;
ene bihotza, bizi naizeno, izanen zaizu fidela,
zuretzat bizi ez banitaikete, zuretzat hil nadiela!



«Agur eta ohore, Ahetze'ko Mattin...»

(Foto J. M. Arregi, Donosti)

DOHAINA ETA LANA

A musical score for the piece "DOHAINA ETA LANA". The score is written on seven staves in a single system. The key signature is B-flat major (two flats), and the time signature is 6/8. The notation includes various rhythmic values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests, slurs, and accidentals (sharps and naturals). The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

- 1/ Agur eta ohore, Ahetze'ko Mattin!
Hea non bizi ziren nahi nuke jakin;
ez gira aspaldian egon elgarrekin;
egun gogoia zeraut zure alderat jin;
hurbilago bazintut banuke atsegin.

- 2/ Garelakotz lagunak eta elgar maite,
adixkide zaharrak garela diote.
Bainan zaharragorik nonbait baditaike:
guk elgar ikusirik lehengotz, nik uste,
aurten beteko ditu bederatzi urte.

- 3/ Geroztik izan zaitut adixkide mina,
zure ganatzea da ene atsegina.
Zarelakotz pertsutan osoki jakina,
lagun bila naiz egun zure ganat jina,
biek bururatzeko ene etsamina.

- 4/ Errex da pentsatzea zonbat zaukun eder
elgar ezagaturik dohain bati esker;
etsenplu eman dugu batzuer ta bertzer.
zonbait pertsu kantatuz eskuin eta ezker,
lan bereko lehia eman nahiz gazter.

- 5/ Bainan debaldetan da gure entsegua;
gazteak bertz'alderat hartu du plegua:
zineman eta dantzan uda ta negua,
iduri sekulako duela galdua
gure aintzinekoen kantuko gostua.

- 6/ Koplariak metaka ziren lehenago,
bihi bat ere ez da sortzen gehiago.
Gauza hori ikusiz, gogoetan nago,
aintzina joanago eta tristeago,
pertsulari arraza gutan den akabo.
- 7/ Jainkoak emaiten du zombaiti dohaina,
nola guhauri ere baitaiku emana.
Nork daki hazi hori non dagon eraina?
Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoberenak ere baitu bere lana.
- 8/ Orroit naiz egun batez senditu nuela
dohain berezi hori, Mattin, zuk bezala.
Hasi nintzan artoski lantzen bereala.
Bainan gelditu banintz uzkur ta gibela,
segur naiz pindar hura ilaunduko zela.
- 9/ Ez da jorratu behar ez den landarerik
lurrean heldu denik, ez eta bertzerik;
gaur ere jiten daike landare hartarik;
bainan deus ez dezake hark bere baitarik,
jabeak ez badio emaiten artarik.
- 10/ Zombaitek uste dute, sortuz geroz behin,
bihia segur dela hazi onarekin.
Ez badugu laguntzen handi ta ont dadin,
landare hoberena galduko da berdin:
uzta nahi duenak behar du lan egin.

11/ Huna kantuz emanak nik zonbait abisu,
konprenitzeko badu jendeak askitsu;
gero're izan dadin kantu eta pertsu,
Jauna, Zuk, otoi, zerbait zerutik egizu,
gure behar orduen berri baitakizu.

12/ Nik zerbait erraiteko aldia zen egun;
Mattin, zurea ere ez ahal da urrun.
Ez baitzaitut ikusten gehiago nehun,
urrunetik bederen nahiko dut entzun
ene gaurko suietaz zer pentsatzen duzun.

ALDUDE'RI

A musical score for the piece 'ALDUDE'RI'. The score is written on six staves of music, all in treble clef. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 2/4. The melody consists of a series of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line.



Aldude.

(Foto A. Z., 1976.VI.14)

- 1/ Aldude'ri begira lorian nago ni,
hartakotz dazkot egun pertsu hauk eskaini,
hartakoz dazkot egun pertsu hok eskaini,
nola dagon izaite bizi bat iduri
Sorogain'i begira, bizkarrez Baztan'i.

- 2/ Bizkarrez dago bainan anaia du Baztan,
berex badaude ere zonbait urte hautan,
ez daude berriz ere amodio faltan,
amultsuki hartzeko elgar besoetan.

- 3/ Aldude'ri izena nork eman ote du?
Noren asmutik edo nondik zaio heldu?
Diate *Alto-bide* dela estakuru,
Aldude erdalduna noiz izana dugu?

- 4/ Naparroa'ko ginen Aldude'n lenago,
gure bihotza hortaz penetan baitago;
izen berriz gaituzte eman apalago,
bainan gure gogo lehengoan dago.

- 5/ Herri hau gero ere, denen arabera,
ez español, ez frantses, bizitzen zen bera;
gero etsaiek, jauzi eginik gainera,
zuten gain hartarikan jautsi hoin behera.

- 6/ Arbolak bizi deno baduke itzala,
beraz balaike fruitu ekar dezakela;
bainan nork du nahiko, nork duke ahala
Aldude ezartzeko lehen zen bezala?

7/ Aldude'n, Urepele'n, Kintoa'n, Esnausu'n,
dakigu badugula zerbait anaitasun;
guziek gogo beraz hitzeman dezagun
beti zinez egonen garela euskaldun.

JEAN MONLONG ZENARI

The image displays a musical score for the piece "JEAN MONLONG ZENARI". The score is written on seven staves, all using a treble clef. The key signature is one sharp (F#), indicating G major. The time signature is 3/4. The music consists of a single melodic line. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp, and a 3/4 time signature. The melody starts on G4, moves to A4, B4, C#5, D5, E5, F#5, G5, and ends with a quarter rest. The second staff continues the melody with G5, A5, B5, C#6, D6, E6, F#6, G6, and ends with a quarter rest. The third staff continues with G6, A6, B6, C#7, D7, E7, F#7, G7, and ends with a quarter rest. The fourth staff continues with G7, A7, B7, C#8, D8, E8, F#8, G8, and ends with a quarter rest. The fifth staff continues with G8, A8, B8, C#9, D9, E9, F#9, G9, and ends with a quarter rest. The sixth staff continues with G9, A9, B9, C#10, D10, E10, F#10, G10, and ends with a quarter rest. The seventh staff continues with G10, A10, B10, C#11, D11, E11, F#11, G11, and ends with a quarter rest.



Jean Monlong zena.

- 1/ Lagun on bat banuen gazte nintzelarik,
Jean deitzen ginuena Monlong'tarretarik;
gurekilan apur bat egon zen bakarrik,
gazterik hegaldatu zen mundu huntarik.

- 2/ Lehenbiziko aldiz, o adiskidea,
kantuz ikusi zaitut; orroitzen zireaa?
Xoragarri zitzautan zure entzutea,
ohoratzen zinuen euskal izaitea.

- 3/ Zurekilan beti zen uda berri goiza,
errexioñolarena baitzen zure boza;
adimendua ere zinuen zorrotza,
hioen denen artean urrezko bihotza.

- 4/ Ez duzu zuk munduan egin, zu baitarik,
lagunak maitatzeaz bertze deus kalterik;
ni ere ahulegi nintzeno segurik,
erabili ninduzun eskutik harturik.


- 5/ Gure plazetan kantuz zu lagun naiz izan,
sustatzen ninduzula seme baten gisan;
zu ene ospearen bila zinabiltzan,
eta zuretzat beti hoberena nintzan.

- 6/ Ni laguntzea gatik, o lagun prestua,
zonbat aldiz ez duzu luzatu eskua!
Nik ere zu zintudan lagun hautatua,
maiz zuri hurbil nuen ene jar lekua.

7/ Ikus arte, laguna, etzaitut ahantzi,
hel bekizu ni ganik zerurat goraintzi;
zur'ondoan jartzerat bertzerik ez utzi,
ni horrarako bainaiz bihar edo etzi.

UREPELE'KO JAUN ERTOR ZENARI

A musical score for a song in 6/8 time, featuring a single melodic line on a treble clef staff. The key signature has two flats (B-flat and E-flat). The score consists of seven lines of music, each containing four measures. The melody is characterized by eighth and sixteenth notes, often beamed together, and includes various rests and accidentals (sharps and naturals). The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh line.



Jean - Baptiste UHARRIET apeza

Alduden sortua: Martxoaren 27ian: 1885

Apeztua - 1913

Hazparnen eskol-emaile - 1913

Urrugnan bikario - 1924

Urepeleko erretor 42 urtez
1925 - 1967

JAINKOAK bereganatua

Martxoaren 26ian 1972

EZ AHANTZ ZUEN OTOITZETAN


- 1/ Urepeldarra bainaiz eta pertsulari,
abisu hau urrundik zerauta etorri:
«Eman behar zinuzke zorbait pertsu berri,
gure artean egin lan onaren sari,
gure herriko apez zendu berriari.»

- 2/ Uharriet apeza, sortzez aldudarra,
urepeldarren artzain higatu beharra,
eginbidetan fermu, fedean azkarra;
goragoko zerbait zen, etzen mundutarra;
arimen salbatzeaz zuk zinuen karra!

- 3/ Zure dohaina etzen fedea bakarra,
dohain batek berekin geiago dakarra:
herri maitatzen ere etzinen zu txarra,
gudari bipil eta euskaldun suharra,
gure hizkuntzak ere zintuen izarra.

- 4/ Berrogoi ta bi urtez gure artzain gisa
egon zarenaz geroz, engoitikan aisa
ezagutzen zinuen garen ardi klasa;
bainan nahi zinuen, maltso eta basa,
denak zeruko bortan ginitezen pasa.

- 5/ Xuxen joan dituzu karguko urratsak,
hala nola orena erloiko orratzak;
zuk beti zeru alde gogo ta bihotzak;
ifernutik salbatu ditaizke bakotxak,
Jaunak entzun baditu zuk egin otoitzak.



Jean Baptiste Uharriet, Urepele'ko jaun ertora zenaren ehorzketa.

- 6/ Zonbat lan egin duzun apezgo bizitzan,
gu gobernatu nahiz zerurako gisan;
kar handienarekin beti zinabiltzan,
kanpoan alegera, serios elizan,
apez zintzoagorik etzitaiken izan.
- 7/ Arradotarik zinen zu artzain bezala,
ikusi zaituztenek aitor dezatela;
beti berotu nahiz arima epela,
alha arruntetarik gaitzak zatozela,
guretzat etzitzazun on larre uspela.
- 8/ Aunitz maitasun duzu gu ganat ixuri,
bainan izana gatik bihotza hoin guri,
egin izan daukuzu beharrez beltzuri;
Jainkoak daki zonbat gosta zaizun zuri
gogor egin beharra batzuetan guri.
- 9/ Erranez ordreari ginitezen berma,
bertzela etzaikela zerurat arima;
iduria gantikan zaharren sistima,
beharrezkoa zela zure katixima,
hartu duenak bezik ez diro estima.
- 10/ Jin zinenean gure arimen gidari,
fedeguzia hortan zinuen ezarri;
osoki emanikan Jesus maiteari,
beti ezetz erranez zure buruari,
gauaz eta egunaz gure zerbitzari.

- 11/ Kusi zaituenari elizatik kanpo,
zer bihotza zinuen gogorako zaiko;
zuhaurentzat gogorra, lagunentzat flako,
horrelakoa zinen ez dakit zendako,
zuhaurentzat deusik ez, denak bertzendako.
- 12/ Denak gerta gitaizke gu zorigaitzean,
eliz-gizonak ere bertzen sahetsean;
zuk ere edan duzu turri kiretsean;
ur hortarik iretzi duzun bakoitzean,
zer iragan ote da zure bihotzean?
- 13/ Zuk eman kontseiluak, zuk egin graziak
ez dira geldituko nehoiz ahantziak;
uzta ekar dezala erain den aziak,
zeruaz jabetzera herritar guziak
susta gaitzala zure sinesmen biziak.
- 14/ Jesus gatik hoinbertze egina borrokan,
amultsuki hartuko zintuen besotan;
hoinbertze sinetsia zeru eder hortan,
hor zaudela baitakit, bat egoitekotan,
gu errezebitzeko egon zaite bortan.

ENE ERREKONTRUA



- 1/ Gizona da zoroa ta bihotz gabea,
barnean baldin badu plazerren gosea;
arimadun batentzat zer egitatea
hegaztin inozenter bizia kentzea!

- 2/ Tiroka ari denak uso gaixoari,
bere burua ere ez du urrikari;
usor egin nahia jin daike berari,
hori gertatu zaio aurten Xalbadorri.

- 3/ Urrieta goiz batez, goizik oihanean,
ihizin nindagola harma bizkarrean,
tiro bat eskapatu zaut uste gabean,
xuxen-xuxena sartuz zango muturrean.

- 4/ Jainkoari eskerrak hortan gelditurik:
geiagokorik gabe bi erhi mozturik;
tiroak hartu balu nonbait barnagotik,
egun etzen entzunen kantuz Xalbadorrik.

- 5/ Tiroak hiltzen baitu hatzemanenez geroz,
bederen zaurituko gaitu aldi oroz;
bizi nahi badugu trankil eta uros,
harma xaharra sal ta berririk ez eros.

- 6/ Harma lanjerosa da geiago ezina,
ez dea alabainan hiltzeko egina?
Nik ene malurrean egiten dut zina:
beiratuko naizela hemendik aintzina.

LUKAS ADIXKIDEARI

Lukas, gure herritar bat zen; Ameriketarat gazterik joan eta han luzaz egon zena hunarat agertu gabe.

Hala ere, azken alderat —ezen aspaldi zendua da—, egin zauzkigun bisita batzu; ez baitzituen behin ere ahanzi herria eta herritarrak.

Pertsuzale beroa zen. Hortako egin zen enekin adixkide. Mattin ere ekar arazi izan du Urepele'rat, enekin kantatzeko.

Behin, hemengo egonaldi baten ondotik, Ameriketarik dirua igorri zion gure jaun ertor zenari, bazkari bat egin ginezan apez etxean jaun ertorak, Aguxtin Bidegain'ek, Joanes Iraztorza'k eta nik.

Sekula bazkariaren saria baizik ez bazuen igorri, ederki harrapatua izan zen gure jaun ertora. Gu, afaldu arte ez baiginen haren etxetik atera.

Ene lagun horiek erran zautaten, gure Lukas ez ginuela neholaz ere hobeki eskertuko ene pertsu batzuez baino. Heien manuaekin eta ene borondate hoberenarekin moldatu niozkan hemen agertzen diren hauk:



Lukas Martikorena zena, Xalbadorren adixkidea.



1/ Ene Lukas maitea, zer bihotza duzun
gutaz arta hartzeko, izanik hoin urrun!
Beldurtzeko da Euskal-herrian ez dugun
zu bezalakotarik bi miletan ehun.

2/ Haragia ausarki, herriko ogia,
mugaz bertze aldetik karri edaria;
pare gabea zela da egi haundia
guk zure diruekin egin bazkaria.

- 3/ Beti orroituko naiz ikustate hortaz,
ene lagunak ere kontent ziren arras;
denek maiz giniola «Gizagaixo Lukas!»
han etzen egun hartan zu bertzerik eskas.
- 4/ Musean iragan da gero atsaldea,
nik laguntako nuen ogi-egilea;
Aguxtinek Battitta, gure abadea,
ez idurian hauxe zer xori pare!
- 5/ Gezurrak haizu ziren, hori betikoa;
zaharrek inbidoa ta guk hordagoa;
nahiz denek berdintsu ginuen jokoa,
gaztek galdu dugula erran gabe doa.
- 6/ Holaxet iraganik uros atsaldea,
han berean jin zauku afal-tenorea;
berriz jan eta hartu etxeko bidea,
zuretzat ezagutzaz bihotza betea.
- 7/ Etxeko bide hortan ez ginazan gaizki,
Joanes, Aguxtin ta ni, hiru ginen naski;
askotan ixilago joan dira zazpi,
eta bide guzia ez ginuen aski.
- 8/ Lagun on horiekin zinez laketu niz,
orok omorea on kantuz eta irriz.
Oi, egun eder hori berrituko balitz!
Zuk nahi duzunean gu prest gira berriz.

ERREXIL ZENARI





Errexil pertsularia.

- 1/ Mila bederatzi ehun eta hirur hogoi eta bortza,
aurten gertatu zaukun malurrak erdiratu daut bihotza;
ene nahia bete dadien Jaunari diot otoitza,
hortaz penetan dauden guziak pertsutan ditzagun goza.

- 2/ Aire tristean kantatuko dut tristea baitut suieta,
heriotzeak egin arazten dauku zonbait gogoeta.
Errexil gure lagun maitea mundu huntarik joan eta,
behin betikotz ixildu zauku gure errexiñoleta.

- 3/ Azken aldikotz kusi ginuen iragan Salbatoretan,
Eiaralarre herri maitean kantatu ginuen betan.
Ordukotz ere bertzelatua ageri zen koloretan,
bainan nork erran holako gaitzik bazagola haren baitan?

- 4/ Handikan laster jakin ginuen zaukan gaitzaren berria,
mundu guzia suntsitzen duen setio lotsagarria;
horra, denbora gutiz sofrituz hauts bihurturik jarria,
berrogoi eta zazpi urteko gorputz espantagarria.

- 5/ Etzen bakarrik gorputzez eder, ederra zuen arima,
lagun goxoa eta leiala, etzaiken aski estima.
Guzien kantuz xoratzea zen harek zuen atsegina.
Euskal-herriak noiz izanen du beste bat haren berdina?

- 6/ Goizetik arrats berdin ari zen beti kanta eta kanta,
besteak dudan baldin bazauden, zer hots emaile xarmanta!
Etzen osoki trebea bainan perfetik nehor ez baita,
sekulan ez du nehor sumindu ele gaixto bat erran-ta.

- 7/ Munduko gauza segurrena da denek hil behar duguna,
gizonak hori pentsatu gabe ez beza pasa eguna.
Bainan halere bada gauza bat deitoragarri zukuna:
bere adinik hoberenean joaiten kusteak laguna.
- 8/ Errexilekilako denborak izan zauzkigu laburrak,
akabo haren pertsuak eta haren behako samurrak!
Euskal-herria dolutan dauka zure galtzeko malurrak,
laster ordaina eman bezauku estali zaituen lurrak!
- 9/ Zuk ere triste kantatu duzu maite zombaiten joaitea,
eta guk ere egun zuretzat daukagu kantu tristea.
Mundu huntako denbora dugu guk ere laster betea,
egizu, otoi, guretzat otoitz, ikusi arte, maitea!

HIRITARRA ETA BASERRITARRA





*«Baserritako lanak berekin dakarzki
osagarriarentzat aize ta iguzki...»*

(Ezkerretik: Xalbador, Joxe Mari Aranalde ta Mixel Xalbador.)

(Foto A. Z.)

- 1/ Baserritar bat eta hiritar bat atzo
beren bizi-moduaz entzun ditut mintzo;
bakotxa bereari ari ziren zintzo;
jendeak sujet huni kasu egin bezo.
- 2/H.: Hiritarrak zerasan baserritarrari:
Zendako zira hola leherturik ari,
ez duena atera beharrez lurrari?
Gizon dohakabea, zaitut urrikari!
- 3/B.: Baserritako lanak berekin dakarzki
osagarriarentzat aize ta iguzki;
lurretik aldiz biltzen janaririk aski;
urrikari nauena ez bide da gaizki.
- 4/H.: Ni ere baserrian nintzan lehen hazi,
gero hiri alderat joan nintzan ihesi;
nola egin zitaiken, han nuen ikasi,
lan guti egin eta aunitz irabazi.
- 5/B.: Errexa bada ere damazun bizia,
ez dautazu emaiten hanbat gutizia;
ez dakit zonbat duzun zuk irabazia;
zonbat gelditzèn zautzun, hortan da guzia.
- 6/H.: Baserritik hirirat joan nintzanetikan,
lan arin bat eginez ari naiz fabrikan;
zu aldiz lehertua, beti izerditan,
nik baino gutiago irabazirikan.

- 7/B.: Osasuntsu naduka ni aize garbiak,
artatzen ditudala behi ta ardiak;
zuen hazkurri, heien esne haragiak,
zoriona sortzen du ene izerdiak.
- 8/H.: Osasuntsu zaudela diozu ardura,
ni hala ez nagoen dukezu beldurra;
ez da ekaitza sartzen ni naizen lekura,
lantokian badut nik geriza segurra.
- 9/B.: Fabrika zilo hortan, dena ke eta su,
pozoina iretsirik, hatsa bezain usu.
Bizirik ere nola egoiten zira zu?
Eskaleak ez dira zu bezain behartsu.
- 10/H.: Ez izanikan ere aberats modurik,
ez nabil zu bezala burua galdurik:
bizi-legerik ezin errespetaturik,
lan har uzteko eta jateko ordurik.
- 11/B.: Andreak deitzen gaitu jateko orduan,
eta ni jar arazten nau mahain buruan,
familia guzia, dohakon lekuan,
berak egin salda on baten inguruan.
- 12/H.: Ene andreak aldiz, ohetik lekora,
ez du salda egiten pasatzen denbora;
ni fabrikarat eta hura bulegora,
egun guziz baitoa etxetik kanpora.

- 13/B.: Bakotxa zuen alde lanerat goizean,
ez uka zoaztela pena bihotzean;
atsean, nekatuak, handik etortzean,
nahi t'ez sartu behar sukalde hotzean.
- 14/H.: Hotzetikan gurerat badago aldea:
hutsik iragan arren goiz arratsaldea,
arratsetan berotzen zauku sukaldea,
harat biltzen denean gure haur aldea.
- 15/B.: Eta ni zuen hurrez ahantzia nintzan;
jakin nahiko nuke, al badaike izan,
ait'amak kanpoan ta heiek non dabilizan:
ala nonbait hetsirik xakurkumen gisan?
- 16/H.: Erran dautzut, andrea dabil bulegoan;
ez dezazke eduki umeak altzöan;
goizetik arratserat dauzkagu auzoan,
andre prestu batekin, geriza osoan.
- 17/B.: Haurrak bertzer utzi ta lanerat laguna,
zer da har-eman hortan gelditzen zautzuna?
Ez da gauza ederra egiten duzuna:
haurrer ama ken eta eman amaizuna.
- 18/H.: Zer makurbide da, ba, hortik datorrena?
Haurrentzat berdin dela dut iduripena,
auzoko arta izan, nola amarena;
tripa betetzea da gauza beharrena.

19/B.: Tripa ez du betetzen hiriko aizeak,
baizik lurretik bildu janari maiteak;
zuretzat ez balira bermatzen bertzeak,
luzaro gabe hilen zintuzke goseak.

20/H.: Goseak hilen nauen ez dago beldurrik,
gaurko osagarriak badiraut, segurik;
zernahiz jabetzen da, dirudun delarik,
jateko ez dut zure lurraren beharrik.


21/B.: Egun batez haragi, arraina bertzean,
ogia harmairuan, ilarrak eltzean:
guziak diru truke dituzu etxean;
non bila zinezazke, guk sortu ezean?

22/ *Pertsulariak:*
Baserritar tontoak holako galdera!
Durduzatuko zuen abokat bat bera.
Auzia trenkatu zen hortikan aurrera,
hiritarrak etzuen hinkikan atera.

23/ Behar dela hiritar dudarikan ezta,
bainan lur-langilea beza errespeta;
eduki arren diruz sakelak beteta,
jangairik ez badago, akabo da besta.

BAIGORRI

A musical score for the piece 'BAIGORRI'. The score is written on six staves of music. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 5/8. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line on the sixth staff.



*«Nafarroa gaineko mendien gerizan,
zure kaskointzerikan ez ditaike izan.»*

(Baigorri, Oilarandoi'ko gurutzetik.)

(Foto A. Z., 1976.VII)

- 1/ Euskal-herri guziko xoko pollitena,
zu zare, zu, Baigorri, ene maiterena,
kantari, pilotari, oro dituzuna,
euskara maiteari fidelik zaudena.

- 2/ Beha zure umeak zoin xintxo dabiltzan,
astean lanean ta igandez elizan;
Nafarroa gaineko mendien gerizan,
zure kaskointzerikan ez ditaike izan.

- 3/ Igande arratsalde zoin den zoragarri
Baigorri'ko gazteak plazan pilotari!
Handik etxerakoan euskaraz kantari,
etsenplu har dezagun zu baitan, Baigorri.




Baigorri.

BAIGORRI'KO JAUN ERTORARI

JAUN ERTOR NAUSI J. OLHAGARAY
KALONJEARI GUTARTEAN SARTZEKO
25'GARREN URTE-MUGA-KARI.

The image displays a musical score for the song 'BAIGORRI'KO JAUN ERTORARI'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic values such as quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, along with rests and slurs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the sixth staff.



«Oilarandoi'ko kapera, zure artzain etxola...»

(Foto A.Z., 1976.VII)

- 1/ Duela mende laurden bat, Martxoko egun batez,
jauna, egin izan zira baigorriarren apez;
geroztik zure kargua kontzientziaz betez,
hemen zaude eta egonen oraino luzaz arabez.

- 2/ Ez daukagu ahanzteko egun balios hura,
zu baino artzain hoberik etzitaiken eskura;
beti izan duzu gutaz saminki arrangura,
bidea xuxen eman ez hel gaitezen zerura.

- 3/ Kapablea den gizona obretarik ageri,
zer laneko karra ere etzinuen ekarri!
Artegian egin duzu zonbait zonbait lan berri,
zonbat gisaz aberastu den zurekin Baigorri!

- 4/ Eginbideak artoski bete nahiz zabilta,
artaldeaz arta duen artzain onaren gisa;
etzitzaizkizun, ez, aski otoitza eta hitza,
nola berriturik eman ez daukuzu eliza!

- 5/ Oilarandoi'ko kapera, zure artzain etxola,
ohartu zinen lurrean eroririk zagola;
hura ere eman duzu denek dakigu nola,
gure uzten beirazaile leialki so dagola.

- 6/ Lurreratu zenez geroz kapera maite hori,
horko beila baliosa horrekin zen erori;
orai berriz bagoatzi urte oroz beilari,
hor gure uzten geriza galdatzeko Jaunari.

- 7/ Serora gaixoak ere, hain beharrak herrian,
ginauzkanak egoitza on baten behar gorrian;
hioen ezartzea ere sartu zautzu burian,
merexi zuten bezala, beren etxe berrian.
- 8/ Lan da zure obrak oro ezartzea lerroan;
horra hor bertze etxe bat, seroratei-ondoan
nexkatontzat zuk egina, zerbait haundi gogoan:
hor ikasiko zutela etxekanderegoan.
- 9/ Bil-etxe maitea ere zuk emana da xutik,
gaztentzat beharragorik herrian etzen deusik;
ez ginakien non josta, non erabil solasik;
orai badugu hautua, hau dugunaz geroztik.
- 10/ Oraino zertan ez duzu gutaz hartu axola,
Jaunaren erakaspena ez galtzeko nehola?
Burrasok beren hautua egiten dute hola,
zuk eginik mutikontzat giristino eskola.
- 11/ Zer egin duzun etorritz geroz gure artera
kondatzeko, balitaike oraino sail ederra;
Oilarandoi'n goiti eta Leizpartze'tik behera
zuk berritu duzu ere Urdoz'eko kapera.
- 12/ Zure obren kantatzea ez daukuzu galdegin;
geiago egin dukezu, bainan orok ez jakin;
badakizia oraino zer ginuken atsegin?
Luzaz gure artzain gisa egon zaiten Baigorri'n.

HAZPARNE'RI

A musical score for the piece 'HAZPARNE'RI'. The score is written on six staves of music. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 5/8. The melody consists of eighth and quarter notes, with some dotted rhythms. The piece concludes with a double bar line on the final note of the sixth staff.



Hazparne.

(Foto Boni Otegi)

- 1/ Zendako debru ari zerate pundu berekilan teman?
Gaurko egunak behar gintuzke askoz gorago ereman.
Hazparne'k merezi duenikan gaur ez baitakogu eman.
Zendako debru balio gabe diren solasak guk erran?
- 2/ Bazkal ondoan gaur izan dira pertsu haitada beroak,
eta Hazparne'k argi ditzala oraiko eta geroak.
Hazparne galtzen ari zaukula hor mintzo dira eroak,
ez, ez, Hasparne'k oraino bizi ditu euskaldun erroak.
- 3/ Gure Jainkoak banatzen baitu behar denean grazia,
eta Hazparne ez du oraino arras debalde utzia.
Mediku on bat bada ber'ustez haren sendatzen hasia,
eta mera're bere alde du, etxean du farmazia.
- 4/ Mattin, ez laike kantatu behar sekulan bertzen berririk,
bertzen bihotzak dauden lekuan uzteko geldi geldirik.
Otoi, Hazparne, zuk erradazu ez duzun kusten argirik?
Baldin Hazparne itzaltzen bada, ez dugu Euskal-Herririk.
- 5/ Ene bihotza agertzen badut, ez nezazue gaitzetsi,
berroi ta zazpi urte baditut, egi'erten behar hasi.
Orai artean debaldekoa izan da ainitz garrasi,
gazte maiteak, segi zazue, nehoiz etzazue etsi.
- 6/ Zonbaitek berdin erranen dute gu ez garela perestu,
maiz erabiltzen ditugulakotz hal'hulako zonbait jestu.
Bainan Hazparne maitagarriak hortan hobenikan eztu,
idai desberdin izana gatik, ibil zaizte eskuz esku.

- 7/ Gauza hau ikusiko balute gure arbaso lehenek:
Lehen etzuian holakorikan, zer debru derasa hunek?
Beren herria zain dezatela han sortu diren gizek,
iririk nehoiz egin ez dezan ifernuan den Satanek (1).

(1) (Bazkal ondo batean kantatu pertsuak)

MATTIN NIGARREZ IKUSI DUT

Gure Mattin ezagutzen duten guzier, nik uste, hartaz orroitzeak berak irria ekar arazten diotela; ezpainetaraino ez bada ere, bihotzerat segurik.

Berak ezpainetan irria du beti, eta mihian ere irri gaia. Hola agertzen zauku beti Mattin.

Bainan hola jokutzen da guri atsegina egitea gatik, nehon min hartzen ez balu bezala. Aski estimatzen ote dugu gauza hori?

Bainan Mattinek ere baditu bere zauriak, eta horietarik batean jo zuen behin Aranalde apezak Añorga'n, galdegin ziolarik Paris'erat joana zuen semeari hiru pertsuren kantatzea.

Ni gibelean nintzan; ez nuen Mattinen aurpegia ikusten. Bainan ohartu nintzan etzezakela kanta; uste nuen zintzurreen zuela zerbait traba.

Ba, egiaz traba bazuen: bihotza eta zintzurra hestutzen ziozkan, gainditu zitzaion nigarrak.

Horra Mattin, gure ustez bihotz sendoko gizona, haur bat bihurtua!



Mattin eta bere semea.

(Foto A. Z., 1976. VIII)

Gutik egin zuen, nihaur ere ez bainintzan nigarrez hasi. Hainbertzetaraino hunkitua nintzan.

Biharamunean berean egin nituen, *Mattin nigarrez ikusi dut* deitu nituen pertsuak.

Horra ere hemen, Mattinek zertsu kantatu zuen gai hortaz. Bainan ez da errex entzutea nigarren artetik datorren kantua, eta ez ditaizke ongi hartuak. Zerbait holatsuko izan behar zuten, eta Mattinek barka dezaukula huts zerbaitekin agertzen badira:

Aranalde'k: Zuek ez dakit badakizuten, nik bai: Mattinek seme bat du eta seme hori Paris'era joan zaio; lan beharrez edo, behintzat etxetik Paris'era joan da. Ta nik nahi nuke Mattinek seme horri hiru bertso kantatzea.

Mattinek:

Oraintxe gaia etorri baitzait hemen neri bat batera, hala beharrez, nere semea, hi juañ haiz Paris'era; bañan aitaren esan hau beti hartu behauk bihotzera: urte batzuek hor pasata're etorri behauk etxera.

Nik bazakiat hi ez haizela Paris'a joana gogotik, pena haundia huen partitzia ait'eta amaren ondotik, bainan bizitzeko gizonak asko ikusi behar tik; hire bihotza beñ ez urrundu hik, otoi, Eskual-herritik.

Herri txikitik partitua haiz Parise herri aundira, ait'eta ama haretxetikan hor zaudek hiri begira; urte batzuek hor pasata're Paris'en, itzul ta bira, ait'amengana etor adi ta lenbailen Euskal-herrira.



- 1/ Mattin, zu atzo arte irriaren giltza,
gaur euskal mingainetan kurri zabilta;
izpiritua duzu argi ta zorrotza,
jend'artean omore pitzarazle gaitza;
 gainerako gauza
 ginaukazun hotza,
 zure nigar-otsa
 ginuen arrotza;
atzo ikusi dugu zure bihotza.

- 2/ Atzo ere zinuen arrai aurpegia,
eman dautzuten arte suiet berria;
harek zaitu ezarri galdurik irria,
nigar bero batekin bustirik begia;
 ixtripu guzia
 zagon ikusia,
 zure sarraskia
 zutela hunkia:
gorderik zineraman zauri bizia.
- 3/ Aranalde apezka gai-emaile fina,
hark dautzu jauz arazi nigar-zotina;
semeaz kantatzea zautzun galdegina,
nola Paris alderat dautzun aldegina;
 ez bada burdina,
 atzotik aintzina
 daukake jakina,
 zonbat den samina
seme urrunduen aitaren mina.
- 4/ Mattin, ni ere nauzu naigabeen lagun,
nola biek semeak urrun ditugun;
Jainkoak berak daki nor garen hobendun,
ala guhauren faltaz urrundu zauzkgun;
 hola gau ta egun
 egon gabe ilun,
 aztertu dezagun
 joan aintzin hoin urrun
hartze zuten laguntzik eman diegun.

5/ Horra, ikusten duzu, etzira bakarrik,
zama hau har dezagun bi aldetarik;
bainan, laguna, otoi, ez egin nigarrik,
gure semek ez dute tristura beharrik;
ez dute hargatik
desterru hartarik
ahazten aitarik
ez eta amarik;
urruntzeak hortako ez du indarrik.

6/ Ez dezagun eduki horrenbertze dolu,
semeak itzuliko baitzerauzkigu;
herria ez uzteko hoinbertze aholku
gure kantaldietan emanik badugu;
uda eta negu
euskal semer oihu
egin diotegu;
zer medikuak gu
gaitza etxean sartzen balitzerauku!

7/ Euskal haurrak etxetik urrun joaitea
da mendeak dakarren ezin-besteak;
jakinik baduela zorion-partea,
hura ezin bilatuz dabila gaztea;
gure gizartea,
herria, etxea,
semetaz hustea,
zer gauza tristeak!
Urrikal zakizkigu, Jainko maitea!

8/ Atsegaberik baizik ez dago munduan:
ait'amek ezin beira haurrak ondoan,
urrundu denak berriz herria gogoan;
errazu zoriona non dagon orduan;
lurreko guduan
gaiten hau buruan:
aintzin alde joan
sineste fermuan
saria badaukala Jaunak zeruan.



Ezpeleta.

(Foto A. Z., 1876.VII)

MENDIAN GALDU DIRENERI

(1973'eko *Xenpelar Saria* irabazia)

Ezpeleta'ko mendietan hatzeman zituzten Frantziarat lan-keta zatozin hiru gizon beltzen gorputzak; hotzak eta goseak hilak zituela ezagutua izan zen.

Gertakari horrek gogoetak egin arazi zauzkitan eta pertsuak ezarri nituen hortaz.

Nik, muga bazterrekoa izanik, nor nahik bezain ongi badakit mendiko berri. Gau osoak iragan ditut askotan horietan gaindi. Tokia ezagutzen duenak ere izaiten du hor lanik aski gauaz, aro txarrarekin batez ere.

Ez dut egundaino hauteman gaixtaginik ibili dela gauaz mendian. Gu iduri, behartsu batzu dira beti hor dabiltzanak. Hala ziren Ezpeleta'ko mendietan hilak hatzeman zituzten dohakabeak ere.

Beren ustez hartua zuketena, etxetik ateratzean, gogo zuten lekuraino heltzeko dirurik aski; baina norbaitek bildu ziotena dena mendiari lotu baino lehen, eta han utziko zituzten, haur sortu berri bat gauazko sedenean, norbaitek bilduko duelako menturan, nork edo nork utzi ohi duen bezala.

Horren egitea edo norbaiten jo buruan eta botatzea di-tuenen ekentzeko, berdintsu zaut eni.

Eta zer erran gure agintarietaz? Frantzian aski barna sartuz geroz, haizu ziren arrotz horiek egoiterat. Zendako ez bada utz mugan ere pasatzerat eragozpenik gabe?

Bada zonbait holako bitxikeria munduan, nik injustizia deitzen ditutanak. Bainan ixo! Ez ditzagun iratzar lo goxoan daudenak!

Horra direlako pertsuak; hor agertzen ditut ene sendi-menduak hobeki.

The image shows a musical score for a piece in G major and 2/4 time. The score consists of seven staves of music. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 2/4. The melody is written in a single voice on a treble clef. The music features a mix of quarter, eighth, and sixteenth notes, with some triplet markings. The piece concludes with a double bar line.

- 1/ Gauza triste bat publikatzeko kantatzerat naiz abian;
horra zer berri zabaldu zaukun berriki Euskal-herrian:
laguntza faltak berekin duen pairamenaren erdian,
hiru gizonak beren bizia galdu dutela mendian.
- 2/ Etziren gure arrazakoak mendian galdu direnak,
Jainko Jaunaren bixtan ordea anaiak girade denak;
kolorez beltzak izana gatik, heiek ere ama banak,
bertzek bezala sofriturikan, mundu huntarat emanak.
- 3/ Afrikatikan hunat zatozin, eginik bide luzea;
ezin jasana zuketen nunbait herriko ezin bertzea;
beren bizia hobetu nahiz, gosez ta hotzez hiltzea;
bas'ihiziek gorenaz dute holako heriotzea!
- 4/ Diru zuteno laguntzaileak bazituzten ene ustez,
bainan zombaiten karitatea egiten da diru hutsez;
hartarik kanpo axola guti bertzen arima gorputzez;
gauza horrek nau orroit arazten Judasez eta Jesusez.
- 5/ Ezin bertzea berekin dauka betitik herri pobreak,
hango jendea tirriatzen du bizi modu bat hobeak;
haren ondotik zabiltzalarik, hil dira dohakabeak...
Ai! Ezpeleta'n aurten nolako primaderako loreak!
- 6/ Bas'ihiziak gerizatzeko badute lege bipilik;
heietan zombait ihiztatzeko ez du gizonak pegilik;
eta jendeak norbaiten faltaz mendian goseak hilik...
Lege horien sustatzaileak gelditu dira ixilik.

- 7/ Boteretsuak ilargiraino igan zauzkigun orduan,
nehoiz bezanbat injustizia ikusten dugu munduan:
batzu dirutan emokatuak, gako guziak eskuan,
eta bertzeak ogia galdez, biziaren irriskuan.
- 8/ Dirua deno gure nagusi, ikusiren da holako:
aberatsentzat atekak zabal, hertsu pobrearendako;
iduritzen zaut, gizona bada erreprotxurik gabeko,
bidea libro behar lukela nahi lekurat joaiteko.
- 9/ Arrotz horiek horrela hiltzen ikusiz gure artean,
nolaz eduki ginezake guk kontzientzia bakean?
Orroit gaitezen, atsalde batez, Galbarioko gainean,
gu guzientzat hil izan zela Jesus kurutze batean.
- 10/ Jesus maitea, otoitzez nago kurutzearen oinetan,
ixuri duzun odol saindua ez dadila debaldetan;
gure lurrean hil zure haurrak harzkitzu, otoi, besotan,
arraza berex eta mugarik ez den erresuma hortan!

KENNEDY PRESIDENTA ZENARI

A musical score for the piece "Kennedy Presidenta Zenari". The score is written on seven staves, each in a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The melody consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and accidentals. The piece concludes with a double bar line.

- 1/ Kantari bera ez ditaike ar beti alegrantzietan,
bihotzik badu parte har beza protsimoaren penetan;
nik ere batto izanki eta goibeldua dut betbetan,
zertaz den kausa esplikatuko dautzuet pertsu hauetan.

- 2/ Azaroaren hogoi ta bia, ilundu ta bereala,
mundu guziak entzun izan du ihurtzuri bat bezala:
Amerikako president ona tiro batez hil dutela;
horra Satanen herrazko lana, ezin ditaike bertzela.

- 3/ Gisa hortako berri tristeak zer latza duen emaiten!
Aurrerapenen mendean ere gaixtakeriak irauten;
gaitz pentsurik ez dugunak ere guharen baitan sar gaiten:
gizonaren bizia zonbaitek zer estimutan daukaten!

- 4/ On izaitea kaltegarri da orai hemendik aintzina,
onaren gatik zuri; Kennedy, dautzute lana egina;
jendeak aski erakutsi du zutaz hartu duen mina,
etzen hoinbertze nigar entzunen gaixtoa izan bazina.

- 5/ Orai engoitik ezin ditaike egina dena barrea,
Satanek bere lan biguina du bertze aldi bat bete;
inozentaren hiltzaile dena da zinez dohakabea:
beretzat ez du deus onik eta hoinbertzerentzat kaltea.

- 6/ Bizia bizi, izanik ere haundi edo erromesa,
edozoineri haren kentzeak eman behar dion lotsa!
Presidentgoa ordain ditaike zonbat ere baliosa,
ezin ordainduz gelditzen dira hor aita eta esposa. 176

HERRIA ETA HIZKUNTZA

A musical score for the piece "HERRIA ETA HIZKUNTZA". The score is written on seven staves in a single system. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 6/8. The music is written in a treble clef. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line and a final cadence.



*«Mendian bizi arren, dut ikustekoa
gaztainaren aldaxkez jauntzirik pagoa.»*

(Korota'ko lepoa, Urepele).

(Foto A. Z., 1976.VI.26)

- 1/ Iragan egun batez, ostatu batean,
bi lagun ari ziren ez ta ba betean;
biak ziren euskaldun zintzoak ustean,
halere ezin adi elgarren artean;
entzuten egona naiz omore tristean.

- 2/ Ez dut osorik hartu baten parabola,
erdaraz mintzo baitzen, berak jakin nola:
gure herri maiteaz zuela axola,
hau, bere gain beharra, bertzen men dagola,
«Gora Euskal-herria!» frantsesez ziola.

- 3/ Bertzea oldartu zen euskara garbian:
«Gure hizkuntza ez da galduko agian!
Hori dugu berexik guk Euskal-herrian,
gainerakotan gaude bertzen negurrian;
frantses eginak gira joan den aspaldian!».

- 4/ Bi gizon horietan, zugaitz onekoa
batek ondoa zuen, bertzeak ostoa;
gauza arrado hori ez dut gustukoa,
mendian bizi arren, dut ikustekoa
gaztainaren aldaxkez jauntzirik pagoa.

- 5/ Bat herria goratzen arrotz baten gisa,
arrotz-nahiak berriz herriaren hitza;
gureak ja egin du, gaiten garbi mintza,
lano pean bezala galduak gabiltza,
ez daizke bi nagusi batean zerbitza!

- 6/ Elgarri direlakotz bi gizon jazarri,
gauza bat bera dute bi pusketan zarri;
erakatxi nahi tut nik puskek elgarri,
gure hizkuntza eta gure Euskal-herri
konparatzen baititut izaite bateri.
- 7/ Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzelik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.
- 8/ Batzu herriaz orroit, euskaraz ahantzi;
bertzek euskara maita, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

AGERTU ORDUKO GORDE IGUZKIA

The image displays a musical score for the piece 'AGERTU ORDUKO GORDE IGUZKIA'. The score is written on seven staves, all using a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The time signature is 3/8. The notation includes various rhythmic values such as quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, along with rests and phrasing slurs. The music is presented in a clean, black-and-white format.



- 1/ Nehoiz ez da senditzen Jainkoaren ahala
atseginean eta naigabeen bezala.
Zorionaren pindarrak gutan argi dezala,
goresten hasiko gira Haren esku zabala.
Pena datorrenean, ohartzen bereala
gizonen harat hunata bere esku daukala.

- 2/ Bi maitemindu ginen, gazte ta ezkont berri,
halere zerbait eskas gure zorionari;
berri ona ikasirik lorian ginen jarri,
elgarrez ezin aspertuz, pereka eta irri,
egiten giniola aurrez ongi etorri
bien maitasun ezitik zatorren fruituari.

- 3/ Gero ait'amatzeko edukirik grazia,
irriz ari zitzaukun gure ustez bizia.
Zerutik ukan ondoan desiratu guzia,
horra gure haur maitea gaur lurrez estalia,
munduratu deneko bertzerat itzulia,
nola agertu orduko gorde den iguzkia.

- 4/ Zerua, entzun zazu gur'etxeko auhena,
amaren nigarra ta aitaren hasperena!
Oi, hau da zorigaitzean gu aurkitzen garena!
Egiztatu zaukuneko amentsik ederrena,
plazerraren ondotik —o Jainkoa, hau pena!—
herioak iretsi du gure itxaropena.
- 5/ Gozaten ginaudela emana zitzaukunaz,
ez ginuen pentsatzen asko biharamunaz.
Nor ez da urrikalduko guk pairatzen dugunaz?
Galdu duguna gogoan gauaz eta egunaz!
Hunela gabetzeko guhauren ontasunaz,
Jauna, dudatzen ari naiz zure zuzentasunaz!
- 6/ Haurra lotu deneko amaren bularretan,
herioak hartu du bere aztaparretan,
ait'amak hemen utzirik hurturik nigarretan.
O Jauna, hel zakizkigu, gauzkatzu beharretan!
Barka nik erran hitzak une garratz hunetan,
eta aingeru maitea har zure besoetan!



*«Arbola bat eihartu gabe Iruitu emaiten bestea!»
(Xalbadorren alaba Mari Helen eta semeatxi Eneko)*

(Foto A. Z.)

AITONA GAZTEA

A musical score for the piece "AITONA GAZTEA". The score is written on six staves in a single system. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 2/4. The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests and a final double bar line. The notes are: Staff 1: G4, A4, Bb4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: C4, Bb3, A3, G3, F3, E3, D3, C3. Staff 3: Bb3, A3, G3, F3, E3, D3, C3, Bb2. Staff 4: A2, G2, F2, E2, D2, C2, Bb1, A1. Staff 5: G1, F1, E1, D1, C1, Bb0, A0, G0. Staff 6: F0, E0, D0, C0, Bb0, A0, G0, F0.

- 1/ Beti ez gaitezen higa tristeak diren gauzetan!
Zorion-tokia ere bada gure bihotzetan!
Alabak esan zeraukunean, aidatu nintzan pozetan,
zorionean, aurkitzen zela haur baten esperantzetan.

- 2/ Tentatzen ari zerauzkit haurrak eta emaztea:
aitondu naizela, bainan ni naiz aitona gaztea.
Ez dea, bada, atsegingarri gauza hunen ikustea?
Arbola bat eihartu gabe fruitu ematen bestea!

- 3/ Orai igerika gaude loriazko erasoan,
fede guzia emanik datorren aingerutxoan.
Nik bihotzean atsegin hainbat ur ez dago itsasoan,
a zer bertsoak, datorrenean, bera harturik besoan!

- 4/ Ez gaiten geiegi poztu, oraino bidean baita!
Ez dela bururatuko, ai hori eni ez aipa!
Aingerutxoa, zure zai daude hemen ama eta aita,
eta heietaz bestalde ere izango duzu nork maita!

MIXEL MONAKO

«ILARRAGORRI» ENE LAGUN ZENARI

The musical score is written on six staves in a single system. The key signature is two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 5/8. The notation includes various rhythmic values such as eighth notes, quarter notes, and dotted notes, along with rests and phrasing slurs. The melody is presented in a single voice line.



Mixel Monako zena.

- 1/ Nahi gabea dut gaur kantuan gidari,
lagun batek erranik agur munduari;
penaren agertzeko eman naiz kantari,
hau laket baitzitzaion lagun zenduari.

- 2/ Penetan da etxea, penetan auzoa,
horiekin batean herri bat osoa;
gizon baten galtzea ez baita goxoa,
guziz, gizona bazen zu bezalakoa.

- 3/ Zure omere onak, zuzenak, fedea,
eginak zauzkitzuten orotan maiteak;
ehorzketa hartako eliza beteak
ongi finkatu ditu zure bertuteak.

- 4/ Sekula egin gabe kontrako urratsik,
kantuz salbu ez duzu egin arrabotsik;
ez duzu zuk nehoi nehoiz egin gaitzik,
etzinuen etsairik bekatua baizik.

- 5/ Irakurri gaberik nehoiz liburuan,
euskal kanta guziak zintuen buruan;
kantatzen zinauzkigun xorien moduan,
beti primadera zen zure inguruan.

- 6/ Nehor ez mespretxa ta denak kantuz xora
bertzerik etzitzautzun etortzen gogora;
lanean jarraik eta Jainkoa ohora,
aberatsa zen zure lurreko denbora.


- 7/ Miraila bat izana zarela munduko,
horra kontsolamendu berri bat zeruko;
zure seme alabak hor daude lekuko,
zuk eman etsenplurik ez dela galduko.
- 8/ Zu ardi leialena gure artaldean,
xori kantariena gure oihanean;
hartu zaituenean Jainkoak aldean,
jar arazi zaituzke kantari taldean.
- 9/ Zuk bezala sinetsi duenak lur huntan,
sineste beharrikan orai ez baitu han,
eni behar dautazu dohain hori eman:
zuk ikusten duzuna ikusi dezadan.
- 10/ Horra pertsu berriak zur'amodioan,
moldatu ditut, Mixel, zu joan ondoan;
oraino gehiago baditut gogoan,
ekarriko dauzkitzut horraratekoan.

FRANTSES PRESIDENTAREN HILTZEA



MEMORARE NOV
PECABIS

SIMATVA ET NON
1741



ORHOIT_HILCIA

*«Ezin ukatuzkorik bada egietan,
hau dugu sarkorrena egi horietan,
herioak emana gure begietan:
berdin trebea dela ttipi haundietan.»*

(Orzaize'ko iguzki erloia)

(Foto A. Z., 1976.VI.26)

- 1/ Oi hemengo dolamen eta garrasiak!
Mintzo zauzkigu berri emaille guziak:
buruzagia galdu duela Frantziak,
bertze Jabe bat baitu gu denen biziak.

- 2/ Ezin ukatuzkorik bada egietan,
hau dugu sarkorrena egi horietan,
herioak emana gure begietan:
berdin trebea dela ttipi haundietan.

- 3/ Denek diotena nik zendako ixildu?
Gizon boteretsua ginuen Pompidou;
ez dakit zeruko zer sari duen bildu,
bainan zuzena uste zuena egin du.

- 4/ Ederrena izan da bere ehorztea:
bildutasun haundian zer jende ostea,
munduko kargudunek harturik partea!
Egun hartan eder zen frantses izaitea.

- 5/ Kontrarioek ere, bazuen aspaldi
etzutela iragan egun bat hoin geldi;
errespetu osoa denetan zen sendi,
noiz ikusi ote da herri bat hoin haundi?

- 6/ Gizonak bazituen, lur hunen gainean,
mespretxatu zutenak; bainan hil denean
eman dute estimu goren gorenean;
bakeak egin ditu azken orenean.

- 7/ Oldartzen zitzaizkonak hanbat gizon abil,
zendu denean denak eman zaizko umil;
gogoeta triste hau ene baitan dabil:
nor garen agertzeko behar garela hil.
- 8/ Kargudunaren karga hain dago pizua,
eta gure Jainkoa ez baita itsua,
egin dezogun denek otoitz bat kartsua:
Pompidou'ri ez dezon hets parabisua.

PRIMADERARI

A musical score for a piece titled "PRIMADERARI". The score is written on ten staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 3/8 time signature. The music consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and accidentals. The notation includes various rhythmic values and articulation marks. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the tenth staff.



Primadera, Xalbadorrean.

(Foto A. Z., 1976, IV)

- 1/ Apirilean goiz eder batez goizik bainintzan atzarri,
eta ohea uzteko nagiz nindagola pentsalari,
etx'aintzineko sagar arbolan xori bat zagon kantari:
gau hartan zerbait gertatu zela, beha nezon kanpoari,
negu zitalak lekua utzi ziola primaderari.

- 2/ Ene barnean senditu nuen gazteko sugar piztura,
bihotza berriz airatu zauntan kanpoko xori xixtura;
lur gain guziak galdua zuen negu beltzeko histura,
ni ganik ere aldaratu zen zahartzearen tristura:
etsipena zen leku guzitan argi berri bat piztu da!

- 3/ Sasu-zokotan gordez egonik neguko hotz gogorretan,
egun xoriak kanta ta kanta ari dira arboletan;
andere espos batzu iduri, pentze guziak loretan;
aitor dezagun ageri dela Jainkoa bere obretan,
horiek oro Harek eginak gizonaren ohoretan.

- 4/ Belar berriak berdatu ditu zelaiak ta mendi gaina,
kukuak bere kantu ozenez atzar arazi oihana;
etxek'andreak lili pollitez apaindu dauku mahaina,
bihotzeraino sartzen zaukula lore berrien usaina;
fededun batek nola ez mirets hor Jainkoaren dohaina?

- 5/ Xori pareak ikusten ziren bel'izpi bana mokoan,
erasiaka han zabiltzala, sar ateraka, sasuan,
Jainkoak berak erakatsirik dakiten soinu gozoan,
ohantze berri baten egiten elgarren amodioan,
maitasun hortan sortu beharrak diren umeak gogoan.

- 6/ Horra xoriek kafi berriak beren umentzat prestatu,
eihar zorian zen landarea izerdi berriz freskatu,
larrazkenean buluzi ziren zugaitzak berriz ostatu...
Erradazue aldaketa hau nori etzaion gustatu,
ukan duguna baino geiago zer ginezake eskatu?
- 7/ Xoraturikan kanpoari so iragan ditut orenak,
bixtan nituen bizi huntako dohainikan ederrenak,
niolarikan: Norentzat bada, gauza eder hauek denak?
Nola ahantziitsuak eta presondegian daudenak?
Primaderaren edertasunik ikusiko ez dutenak!
- 8/ Primaderaren iduria da gizonen gaztetasuna,
Apirilean entzuten diren xori kanten oihartzuna;
indar guzia berekin dauka, gainerat edertasuna;
gazte maitea, estima zazu zutan duzun ontasuna,
zoin ederra den ikasi gabe iragan behar zaizuna!

SEMEARI

A musical score for the piece 'SEMEARI'. The score is written on seven staves in a single system. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 3/8. The melody consists of eighth and quarter notes, with various phrasing slurs and accents. The piece concludes with a double bar line on the seventh staff.



Xalbador ta bere seme Mixel, Añorga'n, 1968.III.24'an.

- 1/ Mixel, ezarri bainauk dudazko trantzean,
kantatzerat noakik, pena bihotzean;
esperantzaz beteak ginenak artean,
hire azken aldiko berriak hartzean,
hotz ikara ilun bat sartu duk etxean.

- 2/ Urtatsetako karta ginian lekuko:
etxerako hintzala heldu den neguko;
berri hau izan zian gu denen gostuko,
geroztik asmo horri egin diok uko,
ez ahal haut, gaixoa, betikotz galduko!

- 3/ Diru eskasia duk eman estakuru,
ekarriko ote dauk sekulan sosegu?
Pausarik hartu gabe uda eta negu,
zer egiteko dituk horrenbertze diru?
Gutiagorekilan biziak gaituk gu.

- 4/ Hemen hintzan denboran hi hintzan lehena:
diruaz gutienik axola huena,
amodioz eginik lanik gogorrena;
ama batek sor diron ume zintzoena,
harrokaren gainean bizi hindaikena.

- 5/ Maite hituen behi, ardi ta bildotsak,
hemengo mendi eta dohain baliosak,
etxeari loturik gaduzkaten gauzak;
zer irabazten dugun, gogoan har ezak,
hauen amodioa galtzen badauk sosak.

- 6/ Hi orroit araztea dukek alferretan
etxea daukagula hire beharretan;
aunitz egin behar duk Amerika hortan,
hunek galtzen duena indarraren faltan
ordaindu behar baduk dolar paperretan.
- 7/ Lau haurridetarikan hi haiz hautatua,
etxeko nagusitzan hik daukak eskua;
denek utzia ditek hiretzat lekua;
kontsidera dezakan, jina duk ordua,
hemengo lemazaintzat hiauren burua.
- 8/ Laster ezkontzeko zaik haurride gaztena,
bertze bien ondotik deramagutena;
amari errex jauzten zaiok hasperena,
gure etxean sendi duk uda azkena,
hi haiz uda berria ekar hezokena.
- 9/ Ekar dezokek bainan ez utzi gerora,
diruaren dirdiran ez hadila zora;
orai haizela gazte ekar zak gogora;
landu gabe utzirik sobera denbora,
baratzerik onena ez bailaibe lora.
- 10/ Bainan ez nikek nahi, o seme maitea,
desafia dezakan kontraka haizea:
sort-etxearen karga bortxarat hartzea;
hobe baituk hi baino etxea galtzea,
nahiz tristeia izan gure zahartzea.

- 11/ Tristea litaikela ez diat dudatzen,
etxe-amodioa ez baita mugatzen;
ikustea kafi hau sasuz inguratzen
eta gure bazterrak bertzen eskuratzen,
gogoratzerat ere ez nauk menturatzen.
- 12/ Entzutean etxeko agoni-ekzila,
bihotzaren bakea non aurki? non bila?
Ganbarak hutsak eta sukalde ixila,
biziaren arbola betikotzat hila,
hori ikusi gabe lurperat nadila!
- 13/ Bainan, seme, nik hitan badiat fedea,
kartsuki hartzen baituk hik eginbidea:
amodioz entzunik aitaren galdea,
behingotzat hor utziz Amerik'aldea,
bilatuko dukala etxeko bidea.
- 14/ Semea, urrundurik sosaren peskizan,
agertzen duk zer aita erromesa nizan;
zintzoki jarraik hadi hi hire bizitzan,
ni baino aita hobe izaiteko gisan,
hire semeak ez dezan joaiterik izan.



California'n, Los Baños'en.


Ezkerretik: Jonhy Etcheberry, baigorriarra, nagusia; Juan Arbazegi, Mungia'koa; ta Mixel Xalbador.

AMA EUSKAL HERRIA

Musical score for 'AMA EUSKAL HERRIA' in 2/4 time, featuring five staves of music with triplets and a key signature of two flats.

The score consists of five staves of music, all in treble clef. The key signature is two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 2/4. The music features several triplet markings (indicated by a '3' under a bracket) and various rhythmic patterns.

- Staff 1: Starts with a quarter rest, followed by a quarter note, then a triplet of eighth notes, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, and another triplet of eighth notes.
- Staff 2: Begins with a half note, followed by a triplet of eighth notes, a quarter note, another triplet of eighth notes, a quarter note, and a quarter rest.
- Staff 3: Starts with a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a triplet of eighth notes, a quarter note, another triplet of eighth notes, and a quarter note.
- Staff 4: Begins with a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a triplet of eighth notes, a quarter note, a quarter rest, and another triplet of eighth notes.
- Staff 5: Starts with a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, a quarter note, a quarter rest, and a quarter note.



«Ama Euskal-herriaz naiz naigabetua...»

(Foto Arturo Delgado)

- 1/ Delikatua baitut egungo suieta,
hasi aintzin egin dut zonbait gogoeta,
gure arteko asko ele entzun eta,
euskaldun agertzea ez baita josteta.

- 2/ Badakit askoz ere nukela hobea
neheri ez agertu ene dolorea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.

- 3/ Ama Euskal-herriaz naiz naigabetua,
uzterat doalakotz betikotz mundua,
bere seme alabez abandonatua;
nork barka dezaguke gure bekatua?

- 4/ Bata dela eskuina, bertzea ezkerra,
euskaldunen artean hazi dugu herra,
ahantziz, Ama, zure maitasun ederra;
horra zure seme hok dautzugun eskerra.

- 5/ Baztertu dugulakotz zure maitasuna,
desegin da betiko gure batasuna;
gu baitan aditzen da gudu oihartzuna,
hau da zuri bizia ekendu dautzuna.

- 6/ Lehen sartu zitzauzun ezpata zorrotza,
zure etxe nagusi jartzean arrotza;
halere etzitzauzun gelditu bihotza;
etxekoen eskutik duzu heriotza.

- 7/ Zure lekua hartu duen andereak,
gurekin behar ditu pairatu bereak:
amaizunarendako ez daizke hobeak,
ama ukatu duten haur dohakabeak.
- 8/ Baditaike seme hok noizbait orroitzea,
Ama, zu ganik izan dugula sortzea;
guhaurek bilaturik zure ehorztea,
jasan beharra dugu gaztigu dorpea.
- 9/ Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deiadar bipila:
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

ESPOS BERRIER KANTATZEKO

A musical score for a song titled "ESPOS BERRIER KANTATZEKO". The score is written on seven staves of music. The key signature is two sharps (F# and C#), and the time signature is 2/4. The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests and a final double bar line at the end of the seventh staff.



Daniel eta Mari Claude'ren ezkontza.

Ezkerretik, jarrita: Xalbador ta Leoni, bere emaztea;

xutik: espos berriak eta Henriette ta Helene, Xalbadorren alabak.

- 1/ Espos maiteak, gaurko eguna zinuketen berantetsi;
bidak maitatuz geroztik elgar, bakarzka zendako bizi?
Zuen bihotzen sosegua gaur baituzue ardietsi,
koplari gisa nahi zaituztet guzieren partez goretsi.
- 2/ Gure Jainkoak lehen gizona eman zion munduari,
gero biziko bere laguntzat andre bat zion ezarri;
zuek ere gaur bi izaiteak erakatzirik elgarri,
jarraiki zaizte Jainkoak berak egin zuen legeari.
- 3/ Nik abisatu nahi zintuzket, lehenik zu, jaun esposa:
ezkontza karga haundia dela, baina karga baliosa;
atseginetan goza zaite ta nahigabeen ez lotsa,
aurkitzen ziren leku guzitan garbi agertuz bihotza.
- 4/ Bortitza eta esker gabea ez otoi izan nehola;
zure laguna triste badago goxoki zazu kontsola;
baina ez ahantz nagusigoa gizonari dohakola,
famiariaren geriza berriz, zure eskutan dagola.
- 5/ Andere espos zoragarria, zuk ibil zazula beti,
egun gorputza duzun bezala, arima xuritan bezi;
zure senar on horrentzat izan maitagarri eta ezti,
kanpo hoietan miraila eta etxe barnean iguzki.
- 6/ Egun kartsuki otoiztu dugu zuretzat Ama Birjina,
zure parrean izan dadien zerua beti urdina;
gaur sartu ziren erreinu hortan zu baitzira erregina,
entsea zaite beti egiten jauregiko atsegina.

- 7/ Espos berriek ait'amatzeko zerutik dute ordena;
kargu ederrik munduan bada, zonbat ederra zuena!
Egi haundien lerroan baita norbaitek erran zuena:
mundu huntara bietan sortzen dela kreatzen duena.
- 8/ Landarerikan baldin badator zuen baratze aldean,
jarraik ditela, baztertu gabe, zuek iragan bidean:
haur maite hoiek altxazkitzue Euskal-herriko legean,
zuen aitamen ganik ikasi mintzairan eta fedean.
- 9/ Dena gaur egin balitz bezala, bertzen baztertzen ez hasi;
orroit zaitezte gaurko bidea nork dautzuen erakatsi;
nahiz zuenaz egin behar ta jinen diren haurrak hazi,
zuen ait'amak ezkitzuela Jainkoa gatik ahantzi!
- 10/ Gazte maiteak, horra nik erran senditzen dutan guzia;
bizi luze bat izan zazuten laike ene gutizia;
gero orena heldu denean zeruratzeko grazia,
bakean eta amodioan iraganikan bizia.

JAINKOA ETA NI

(Mendaro Txirristaka Saria irabazia, 1974'eko Abenduan)

The image displays a musical score for the song "Jainkoa eta Ni". It consists of eight staves of music, all written in a single melodic line on a treble clef. The key signature is two sharps (F# and C#), and the time signature is 5/8. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The score is presented in a clean, black-and-white format.



- 1/ Fede haundiko burrasen ganik sortu bainintzan mundura,
Jainko legean hezi ninduten jitean adimendura;
hain zen beroa denbor'hartako eliz gizonen kar hura,
ziotelarik gaizki eginak zeramala ifernura,
muintaraino sartu zitzautan Jaungoikoaren beldurra.

- 2/ Entzuleeri behar diotet hau erran haste hastetik:
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik;
ukan aholku guzien eta Jainko beldurraren gatik,
ez nau ez deusek nehoiz beiratu bekatoros izaitetik.

- 3/ Legeak zuen erakaspena hausten nuen guzietan,
okaztagarri aurkitzen nintzan Jainkoaren begietan,
nitaz betikotz etsi zuela iduritzen baitzitzautan;
desgustaturik damuz betea egon izan naiz bortzetan,
ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan.

- 4/ Orduko apez suhar zintzoek halako arak zituzten,
etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen;
heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen,
zeruko edertasunak berak hotz hotza ninduen uzten,
gaztiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten.

- 5/ Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen,
etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen;
gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,
gure arteko hostasun hartaz hasia nintzan aspertzen,
Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezan.
- 6/ Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurra eman nau fidantziaz beterik;
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen, amodioaz besterik.
- 7/ Nechoiz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria,
bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria,
ur on guzien Jabeak berak emanikan negurria;
horra egi bat amodioak gure bixtan ezarria:
Haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria.



Larzabale'ko eliza.

(Foto A. Z., 1976.VI.26)

OTOITZEZ

Larzabale'ko elizan kantatuak, fededunen otoitz gisa.

The musical score consists of eight staves of music in G major (one flat) and 9/8 time. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and bar lines. The piece concludes with a double bar line and repeat dots. The final measure of the eighth staff contains a sharp sign (#) under a note, indicating a key signature change to A major.

- 1/ Jaun Zerukoa, otoitzez gaude konfidentzia betean:
amodioa pitzarazazu gure sort herri maitean,
zure lekuko agertuz beti, bizi gaitezen bakean,
batek bertzea errespetatuz, batasun sendo batean.

- 2/ Eta ogia sortarazazu gosea dagon lekuan,
gure gidari daudenak aldiz lagundu beren karguan,
izan dezaten bihôtz bat eta argi bizi bat buruan,
egia eta zuzentasuna heda ditezen munduan.

- 3/ Egizu, otoi, libertatea nehork ez dezan kondena,
eta ez ahantz hobenik gabe estekan eman dutena,
Zuhauren edo herriagatik pairatzen ari duena,
mundu guzian errespetatu dezan gizonak gizona.

- 4/ Bada hoinbertze sofrikario eta hoinbertze behartsu,
zure eskua izan dadila denen alderat indartsu;
mundu huntako behar orduen berri ongi baitakizu,
komeni bada, solegi diten, Jainkoa, zerbait egizu!

HAUR GALTZEAREN ALDEKO LEGEA DELA TA

The image displays a musical score for the piece "HAUR GALTZEAREN ALDEKO LEGEA DELA TA". The score is written on seven staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 2/4. The notation includes various note values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests. There are three instances of triplets, each indicated by a bracket with the number "3" underneath. The first triplet appears in the third staff, the second in the sixth staff, and the third in the seventh staff. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

- 1/ Gaur auzi baten iluntasunak hartu du mundu zabala,
gure gogoak lanbrostaturik berekin derabiltzala;
iduritzen zaut eskubidea nik ere badaukatala
auzi horretaz hitz egiteko pentsatzen dutan bezala.

- 2/ Herri legeak iragaitean Jainko legezko hesiak,
girstinoak aurkitzen ditu buru hauste bereziak;
Jaunaz mundurat deituak diren haur inozenten biziak
aski lanekin ezarri ditu gizonen kontzientziak.


- 3/ Ilunbe huntan argitasunik nahi duenak bilatu,
Jaunak Moisi Zinai'n eman harri xabala behatu;
hartan bekatu agertzen dena gaur ere baita bekatu,
jasan nekeza bazauku ere bizia beti sakratu.

- 4/ Haurrak negurtu behar direla, beraz negurtu nekeak;
ustez ditugun, hori erranez, eginkizunak beteak.
Nork zabalduko ote zauzkigun zeruetako ateak,
negurri berak hartu balitu guretzat Jesus maiteak?

- 5/ Entzuten dugu: «Sortu gabeen galtzea ez da gaizkia».
Kontzientzia ixil arazi nahiaren aitzakia!
Gure zortea zer izanen zen gutan nehork badakia,
ait'amek gutaz hartu balute holako erabakia?

- 6/ Horra ama bat, lege gizonen arrosin dutelakoan,
bere fruituaz libratu eta iduriz bake osoan.
Dohakabeak ez luke behar irrik ezpain xokoan,
zila baleza, haren bitimak zer zion hiltzerakoan.

- 7/ Amodiotik aingeru hori kontzebitu den ordutik,
ni segur nago Jainko maiteak deitzen duela zerutik.
Haurrak ordea: «Jauna, zure gai ni ez nau egin hoin gutik,
segur zerurat nahi naiz bainan pasa nahi dut mundutik.»
- 8/ Zu, amatzerat deitu andrea, eta zu, senar gaztea,
kargu haundiko lagunkideak, hala bat nola bestea;
ohart arazi nahi zaituztet zonbat den gauza tristea
amodiotik datorrenari gure bihotzak hestea.
- 9/ Baldin plazerra ezarri badu Jaunak ezkontza obretan,
bazakiela zer egin zuen ez da dudarik horretan;
hori jakinik nahasten dena atsegin horren kordetan,
nahi ala ez geldituren da biziarekin zorretan.



*Euskalduna naiz eta maito dut herria,
oroz .gainetik gure hizkuntza garbia...»*

Foto Aygues, Donostia'n, 1967.VI.11)

NIGARRA BEGIAN

Musical score for 'NIGARRA BEGIAN' in 2/4 time, featuring five staves of music. The key signature is two flats (B-flat and E-flat). The score includes several triplet markings (3) and rests.

The first staff contains two triplet markings (3) under groups of three eighth notes. The second staff contains two triplet markings (3) under groups of three eighth notes. The third staff contains two triplet markings (3) under groups of three eighth notes. The fourth staff contains two triplet markings (3) under groups of three eighth notes. The fifth staff contains no markings.

- 1/ Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun munduan zabaltzerat zerbait alaitasun; ez dakit beti danik zer gaitik naukazun gutarteko berri txar guzieren oihartzun.

- 2/ Zortearen indarrez, munduan ni ere sartu nintzan euskaldun agerien jabe; frantses edo español sortu banintz hobe, gaur ez nuen izanen hoinbertze naigabe.

- 3/ Euskalduna naiz eta maite dut herria, oroz gainetik gure hizkuntza garbia; beti amultsuki dut bixtan ekarria, gure izaitearen ezagutgarria.

- 4/ Bainan gure hizkuntza jo du erroraino gaitz bat txarragokoak gaitz guziak baino; ez da gure etxean sartua oraino, bainan hedatua da kasik oneraino.

- 5/ Baxenabar, Lapurdi eta Xuberoa'n nik ez dakit jendea zeri buruz doan; euskara itotzea hartu du gogoan, ezagutza gabeen urgulu zoroan.


- 6/ Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian, guretik deus ez duen hizkuntza mihian, sofritzen egoiten naiz horien erdian, gutaz ahalgetua, nigarra begian.

- 7/ Bertzerenaz beztituz haundi esperantzan,
garenaz bertze zerbait nahi dugu izan,
bururat eman gabe, haunditzeko plazan,
gure aments zoroak norat garamatzan.
- 8/ Amenstu leku hortan heltzen garenean,
egizkoaren hatsa galdurik bidean,
leize bat eginen da gure gibelean,
amentsak er'ez baitu iganen airean.
- 9/ Nechoiz etzeraukula, nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia atzartzen hasiko;
egungo balentriak ez baitu betiko
odolaren mintzoa ixilaraziko.
- 10/ Guk uste baino lehen jin daike eguna,
euskaldun deit gaitzaten nahiko duguna:
ehortzi duguneko lur pean hain barna
euskaldun izaiteko gauza beharrena.
- 11/ Nechoiz ez gitaizke gu egizko frantsesak,
euskaltasuna berriz joa azken beltzak;
bilakatu beharrak gaitu gu amentsak
arimarik gabeko izaite deus ezak.
- 12/ O, entzule maitea, otoi barkamendu,
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!
Jostetako gogoia dautate ekendu,
aunitz maite duenak aunitz sofritzen du.

13/ Ene etsimendua ez beraz kondena,
ez ere irriz entzun ene dolamena,
ez delakotz arinki hartu behar dena
ama hil urran duen haurraren auhena.

AMERIKETAKO ITZULIA

A musical score for the piece 'AMERIKETAKO ITZULIA'. The score is written on seven staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/8 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line and a repeat sign.



Aita semeak Ameriketan.

- 1/ Iragan den urteko Urriko bortzean,
Amerikarat buruz, ortzegun goizean,
nindoan sendimendu asko bihotzean:
alde batean pena, plazerra bertzean,
zer uzten nuen ta zer hartzen orroitzean.

- 2/ Deliberatu nintzan etxekon uztera,
semeak sustaturik haren ikustera;
bihotza zabilkitan batetik bertzera:
bertzeak utzirikan bat besarkatzera;
horra zer ziren ene pena ta plazerra.

- 3/ Jarraiki zitzauzkitan haur eta emazte,
abioneraraino lagundua naute;
aira-leku guzia jendez baitzen bete,
han denak egon ginen, joaile ta beste,
lurretik airatzeko orenak jo arte.

- 4/ Nahiz batzu baziren joan nahiz zaudenak,
nik nahi baino lehen jo zuen orenak;
etxekeer emanik musu kartsuenak,
goiz aldean gintuen hartu abionak,
leku ttipian zauden ene zorionak!

- 5/ Beti bortxaz igaiten naiz ni airekora,
xori hori ez baita Jainkoaren obra:
gostuz ez dagonean luze da denbora,
ni ez naiz ene hartan lurretik hain gora,
gauza lazgarri asko jiten zaut gogora.

- 6/ Ibil aldi hortako aldeko lagunak,
ni bezala nituen denak euskaldunak,
ene kasu berean bidean emanak:
utzirik etxekoak eta beren lanak,
norbaiten ikusterat harat zoazanak.
- 7/ Nola ibili giren bide luze hortan,
ez naiz egun sartuko xehetasunetan;
bururaino heltzeaz denak amentsetan,
gero zer atsegina gure bihotzetan
jautsi ginelarikan Los Angeles'etan!
- 8/ Gu jautsi beha zauden gure gidariak,
nik ere han nituen ene bilariak:
arreba ta semea han baitzauden biak,
mement horiek dira hain hunkigarriak,
plazerrezko nigarrez bustirik begiak.
- 9/ Amerikatik eta hunarat artea
ibili denak daki zonbat den luzea;
maite direnetarik hola berextea
bizi labur hunetan, o gauza tristea!
Arabera atsegin berriz ikustea!
- 10/ Maitetarik joan nintzan maiteen artera,
sartu banintz bezala etxetik etxera,
han baititut semea eta bi arreba,
hainbertze lehen kusi ta hiru izeba,
koinatak ere hiru, ilobak ere ba.

- 11/ Bertze bat ere badut ezin ahantzia,
sortzez ez izan arren gure askazia:
umezurtz gelditurik gurekin hazia,
aspalditik han gaindi damana bizia;
haren kusteko ere izan dut grazia.
- 12/ Bilgia nagusia izan arren Chino'n,
ibilia naiz ere ikuska Idaho'n,
koinat iloben baitan gero San Francisco'n,
miserian nintzala ez beldurrez egon,
iragan dut hor gaindi zonbait gau egun on.
- 13/ Egin izan dut ere bortz kantaldi luze,
hor ere euskalduna baita pertsu gose;
bainan ordaina ez dut ahantziko aise,
ongi sariztatua naute banaz bertze,
nitarik esker ona askok dute hartze.
- 14/ Inguratu zauzkitan euskaldun nobleak,
ene bihotz xokotik ez daude gordeak;
gogoan daduzkatan gizon ta andreak,
ene ongi-egile parerik gabeak,
merezi nuen baino aunitzez hobeak.
- 15/ Hau ere erran gabe ez nitaike pasa,
hango biltokietan ikusten den gauza:
garbi agertzen da han euskaldun arraza,
denak gure herriko kantu eta dantza,
gaur ez da hain euskaldun gure aunitz plaza.

- 16/ Han argia ikusi euskaldun haur asko
entzun ditut euskaraz gu bezala mintzo,
berexkuntzarik gabe neska ta mutiko,
amodio dutenak herri hunendako.
A zer erakaspena hemengoendako!
- 17/ Gauza hortaz egin dut aunitz pentsamendu.
Gure herri maitean zer ikusten dugu?
Gureak diren gauzak ditugu higuindu;
beldur naiz «izaite» hau nahi bada zaindu,
guk ere behar dugun herritik urrundu.
- 18/ Ibil aldi hortako azken igandean,
izeba baten etxen nintzan eguerdian,
ene hango etxeko guzien erdian;
denek gauza hau bera ginuen mihian:
berriz bateratuko ginela agian.
- 19/ Arrats hortan berean ginuen bilkura,
aldudar batek daukan euskal ostatura;
jendea metatu zen ene ingurura,
pertsuz egin nioten nik azken agurra,
ene hango denbora baitzoan burura.
- 20/ Utzi dut Amerika, eremu haundia,
orai etxe xokoan ai zer goxaldia!
Lehen ere aldi bat nintzan ibilia;
nola jartzera noan urtez estalia,
beldur naiz hau nuela azken itzulia.

ARTZAIN BESTA

Ez dakit xuxen zonbat urte dituen hasi zirela uda azken alderat artzain besta baten egiten, gure etxetik goraxago, Korota'ko lepoa deitzen diogun toki batean. Gure artzain etxolaren ondoan dago lepo hori.

Zikiro pare bat edo, erretzen dute kanpoan, arnoa eta ogia harat ereman eta ez da gero han omore faltarik izaiten.

Inguru hauetako artzain gehienak harat biltzen dira. Artzain ez dena frango ere ba, haragiz asetzerat, artzainen aitzakian.

Aurten, Jean Pierre Erreka besta horren antolatzaileari gogoratu zaio, tripari baizik, Jainkoari ere behar zitzaiola eman berea; eman edo eskatu, ez dakit.

Dena dela, artzaintzat bereziki eman izan zen egun hortako meza, eta eni galdegin zautaten, fededunen otoitz gisa, pertsu batzu kanta nitzan.

Nihaur artzaina izanki eta, errexki bete nuen egin bide hori.

Hauek dira nik egun hartan elizan kantatu nituen pertsuak.



Artzain besta Urepele, 1975.

This image shows a page of musical notation consisting of ten staves. The music is written in treble clef, with a key signature of one sharp (F#) and a time signature of 3/8. The notation includes various rhythmic values such as eighth notes, quarter notes, and dotted notes, along with slurs and ties. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp, and a 3/8 time signature. The music flows through the staves with a mix of eighth and quarter notes, some with slurs and ties, and a few dotted rhythms. The notation is clear and legible, typical of a printed musical score.



Artzain besta Urepele. 1975.

*Otoi, Jainko maitea, sustenga gaitzazu,
gure behar orduen berri baitakizu.*

1/ Nola Betelem'eko estalpe hotzean
zure adoratzaile Eguerri goizean,
horra, Jesus, artzainak Zuri otoitzean,
eskuak hutsik bainan karra bihotzean.
Otoi, Jainko maitea...

2/ «Ni naiz artzain ona» zuk zinion aspaldi,
izen eder horren gai gu ez gira sendi;
gu artzain xume batzu, bainan zure ardi;
zure korletik kanpo ez gaitela geldi!
Otoi, Jainko maitea...

3/ Jauna, Zu zeru lurren betiko jabea,
entzun lurreko artzain xumeen galdea:
Zu artzain guzietan parerik gabea,
gomendatzen dautzugu gure artaldea.
Otoi, Jainko maitea...

4/ Artzaintzaren geroak triste du begia,
lan hunek galdegiten du odol berria.
Maitatzerat ardiak, heiekin herria,
lehia zazu, Jauna, gure gazteria!
Otoi, Jainko maitea...

5/ Eri edo xahartzaz gaur etxe xokoan
dauden artzain maiteak, har, Jauna, gogoan:
bakean bizi dituen etxeko goxoan,
gutarik hartze duten estimu osoan.

Otoi, Jainko maitea...

6/ Gure artzain zenduak, menderen mendetan
zure ardi leialak zirenak lur huntan,
harzkitzu, artzain ona, zure besoetan,
beti goza ditezen zeruko bazketan.

Otoi, Jainko maitea...

7/ Guretzat sortu zinen, Jesus, pobrezian,
gu ere hala gabiltz bizitza guzian;
bainan emazu zure kutxa berezian,
deus ederrik bazautzu artzainen bizian.

Otoi, Jainko maitea...

FEDEDUN ERDALDUN

Ez nuke nahi nehoi minik egin, bainan ene euskalzale-tasun urrikalmendurik gabeak ekartzen nau apez batzueri oharrarazpen baten egiterat.

Nik dutan beldurra da, hobenik ez duten batzuek berentzat har dezaten oharrarazpen hau; bainan nor nahik bezain ongi badakit ez ditaikela hemen nahi denik egin, nahikunderik hoberenarekin ere. Badira ordea nahikunderik ere ez dutenak eta gure hizkuntzaz etzaiotenak hanbat axola. Halakoak ditut bakarrik gogoan.

Apezari euskararen zaintzeaz ere aunitz galdegiten diogu, aunitz badezakelakotz. Elizako urrats guziak hain balio-tsuak izanik, hizkuntzari ere balioa emaiten zaio urrats horier erakatziz; bertzela berriz, ekentzen.

Bertzalde, «norbait» da apezza Euskal-herrian segurik, eta norbaiten etsenpluak izanen du beti jarraikitzaile gehiago, ez deus batenak baino.

Gainerat, ez ote du apez batek fedez bezanbat arta izan behar, haren zerbitzatzeko kargua duen herriaren hizkuntzaz? Zer nahi dela, etzaio haizu horri kalterik egitea bere nahitarat.

Betidanik izan ditugu apez euskalzale suharrak, eta orai, -behar ordua sumaturik edo?-, badukegu nehoiz baino gehiago. Nork uka horiek guziek duten partea gure hizkuntza maitea-

ren iraupenean? Bainan nongo ofizialeak eraikiko du etxe bat, harek egin ahala norbaitek desegiten badu?

Gaur ere ezagun dira apez euskalzalea duten herriak, eta ni segur naiz, elizan eta kanpoan euskaraz mintzo den apeza dagoen herrian galduko dela azkenik gure hizkuntza maitea.

Bururatzeko, hau erranen dut bakarrik: Ez du euskarak egundaino kalterik ekarri nehongo fedeari; nonbaiteko fededunen zerbitzatzeko estakuruak ahatik, ari dio emaiten euskarari zafraldi bat ona.



- 1/ Gure erran zaharra «euskaldun fededun»
bere erran beharraz gabetu da egun;
zonbait euskal eliza bisita ditzagun,
han adituren dugu «fededun erdaldun»,
tra la lara lara «fededun erdaldun».

- 2/ Gu «euskaldun fededun» gintaizke ainitzak,
fedetik ihes egin ez balu hizkuntzak;
egiztatzekotz erran zahar horren hitzak,
bien iheslekua behar du elizak
tra la lara lara behar du elizak.

- 3/ Zuri mintzo nitzaizu, apez euskalduna,
hobeki erraiteko, euskal izen duna;
gure gogo barnean deitzen zaituguna:
euskara ostikatzen dutenen laguna,
tra la lara lara dutenen laguna.

- 4/ Ez ditut oro zaku berean sartuko;
bainan zuk, arrotz bat hor ikusi orduko,
herri bat osoari egin duzu uko,
Jaungoikoaren hitza harturik lekuko,
tra la lara lara harturik lekuko.

- 5/ Arrotzaren ariman argitu nahia
dela diozu zure helburu garbia;
ez dakit horri pizten diozun argia,
euskal bihotzetan bai zonbait errabia,
tra la lara lara zonbait errabia.

- 6/ Arrotz horren gogoan beharrez barnatu
edo zure burua nahiz enganatu,
herri aiherkundera duzu zu ganatu;
Jainkoak ez derautzu hoinbertze manatu,
tra la lara lara hoinbertze manatu.
- 7/ Zinez ote da zure eginbide mina,
ala hortan ote da zure atsegina?
Arimen artatzeaz duzu zin egina,
eta euskaltasuna ez dea arima?
tra la lara lara ez dea arima?
- 8/ Hoin eginbidetsua zare erakusten,
eta berdin hotz hotza gauza hunek uzten;
gure gaztek herri hau dutenean husten,
hioen arimak zertaz bazkatzen dituzten,
tra la lara lara bazkatzen dituzten.
- 9/ Behin Ameriketara mezarra izan nintzan,
dotzenaka euskaldun baginen elizan;
apezak guretzat hitz arrotzak zabiltzan,
han etzen guretzako fagorerik izan,
tra la lara lara fagorerik izan.
- 10/ Ikustean arrotzak elizan daudela,
zuk ere pentsa zazu hangoez bezela;
meza ixilarekin geldi ditezela
edo gure hizkuntza ikas dezatela,
tra la lara lara ikas dezatela.

PLATINAZKO EZTEGIAK

Ene aita eta amaginarrebaren platinazko eztegi eguneko eginak. Ez naiz suhi bezala mintzo, bainan pertsulari bezala.

The image displays a musical score for a piece titled "Platinazko Eztegiak". The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and a 5/8 time signature. The notation includes various rhythmic values such as eighth, quarter, and half notes, as well as rests and slurs. The music is presented in a single melodic line across the staves.



Platinazko eztegieta.

- 1/ Agur, Domingo, eta agur, Mariana,
gu ere hurbilduak gira zuen gana,
zuenari juntatuz gure zoriona,
Jainkoari eskainka denen esker ona.

- 2/ Egun egiten ditu hirur hogoi urte,
ezkontzako urratsa zinutela bete;
duda gabe zinuten elgar aunitz maite,
horrela irauteko ordutik gaur arte.

- 3/ Ohart gaiten ez dela atzoko eguna,
gaur zuen ohoretan ospatzen duguna;
oraino ere zuek sendo batasuna,
etzen lastozko sua zuen maitasuna!

- 4/ Bertze gauza bat bada ezin ahantzia:
zuekin zinutela Jaunaren grazia;
bihotz beroz goresten naiz hemen hasia
zuek Haren laguntzaz iragan bizia.

- 5/ Domingo, izan zira eginbidetsua,
lanean jarraikia, fedean kartsua,
espos leiala eta aita amultsua...
Deneri pitz bekigu zuk zinuen sua!

- 6/ Zu ere goresgarri zira, Mariana,
espos paregabea, zilarrezko ama;
ez da oraino ere fini zure lana,
bainan zure bideak zerurat derama.

- 7/ Urrezko bizi hortan ikusi du Jaunak
etzaiztela eskuak kurutze egonak;
ikasi du zer diren penak eta lanak,
zazpi seme alaba hazi dituenak.
- 8/ Zazpi seme alaba, denak ohorezki,
hazten hartu nekeak Jainkoak badazki;
zuek bat ez sobera, izan arren zazpi,
gaur gutiagorekin bazaiote aski.
- 9/ Zazpitarik ez dela bat sobera izan,
bixtan eman duzue ikusteko gisan;
ume zurtz bat harturik etxeko gerizan,
etzirezte emaiten kondatuz arizan.
- 10/ Bertze bat ere jin zen zuen baratzer,
bainan hura mundutik laster zen atera;
hegaldaka joan zen aingeru artera,
gaur begira dagoke zerutik lurrera.
- 11/ Xahartu denak ere nahi baitu bizi,
nola fededun batek ez dezaken etsi,
Jainkoari mezu hau diot helarazi:
gure artean luzaz zaitzaten ahantzi.
- 12/ Noizbait orroituko da dudarikan gabe,
iduri zaionean eginen du galde;
hemendik joaiten gero zero alde,
etzegi ederrenak zuentzat han daude!

BAKEA

A musical score for the piece 'BAKEA'. The score is written on seven staves of music. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 6/8. The melody consists of eighth and sixteenth notes, often beamed together, with some notes tied across bar lines. The piece concludes with a double bar line and a final note on the seventh staff.





Sukaldeko idatzia, Xalbadorrean.

(Foto A. Z.)

- 1/ Egun, bakea, zutaz kantatzerat noa,
iragan aspalditik banuen gogoa;
gizonen zorionak zu zaitu erroa,
ontasun guzietan pare gabekoa,
bakan aurkitzen ziren lore arradoa.

- 2/ Denek dugu bakea gure mingainean,
nahiz herra bazkatu bihotzen barnean;
betidanik bezala, gaurko egunean,
hameka giristinok lur hunen gainean
gerla egiten dugu zure izenean.

- 3/ Nahiz gerla tiroak urrundu aspaldi,
haren usain kiretsa bada hemen gaindi;
batean kalapitan hoinbertze alderdi,
edo langilen eta nagusien aldi,
egiazko bakerik nehon ez da sendi.

- 4/ Munduari begira egon naiz bortzetan:
zonbat jende bizi den lege zorrotzetan,
bizientzat eraiki hil-harri hotzetan;
hek ez dute sartzerik gerlako gauzetan,
bainan ez da bakerik heien bihotzetan.

- 5/ Jo arazten diete bi belaunez lurra,
ixilik egon diton, tinkatuz zintzurra;
itotzen badute're heien arrangura,
ez diete itzaltzen barneko su hura;
bake sortaraztaile txarra da beldurra.

- 6/ Nork ez daki munduan asko badaudela
egun bat pasa gabe beterik sabela?
Ez pentsa heien baitan bakerik badela;
anai artean egin lezakete gerla,
jakinik elgar hilez aseko direla.
- 7/ Bertze gose mota bat bada hedatua:
zonbaitek, ase nahiz beren mendekua,
non nahi sortzen dute bizi irriakua;
ez dauka hoiien baitan bakeak lekua,
errabiak gidatzen diote eskua.
- 8/ «Borondate oneko gizoner bakea»
zuk erran hitzak dira, o Jesus maitea;
guk borondate onik ez dugu ordea,
gurekoikeriaz bai bihotza betea,
gure nahirat hesten diogu atea.
- 9/ Ni ere ez naiz sortu aingeru umila,
nitan da gizonaren kitzika kiskila;
betidanik harekin borrokan nabila,
gisa baterat nahi nuke banintz hila,
zerurat joaiteko bakearen bila.



Gerlako hilen orroit harria, Urepele'n.

(Foto A. Z., 1976.VI.26)

GURE HERRIKO IHIZTARIERI

A musical score for the song "GURE HERRIKO IHIZTARIERI". The score is written on ten staves of music. The key signature is two sharps (F# and C#), and the time signature is 2/4. The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests and a final double bar line at the end of the tenth staff.

- 1/ Beti laket izan zaut Urriko aroa,
Urriko aroa,
mendietan mulizkan sendituz hegoa,
berekin dabilala gizonen gogoa,
ihiztariendako sasoin arradoa;
gaur horientzat zerbait kantatzerat noa. *(Bis)*
- 2/ Ni ere lehenago, jendeak badaki,
jendeak badaki,
ihizien ondotik nintzela ibilki;
nahiz asperturikan utzia aspaldi,
ihiztari horien berriak xeheki
nork argirat ditzazke nik baino hobeki?
- 3/ Urrieta guzian, lau oren argira,
lau oren argira,
den nagiena ere erne atzarri da;
esperantzaz beterik badoaz mendira,
ordutik arrats arte hor egonen dira
etorriko ez diren usoer begira.
- 4/ Egunak ez du eman ustearen funtsik,
ustearen funtsik,
gehienak hor daude deskarzelak hutsik;
aire tristea dute hamarretik zortzik,
etxean agertzeko ez izanki deusik,
omere txarra eta akidura baizik.

- 5/ Eguna nekaturik iragan ondoan,
iragan ondoan,
oheratu orduko sartu dira loan;
biharamun goizean, fidantza osoan,
berriz mendia goiti doatzi lerroan,
amentsetan ikusi usoak gogoan.
- 6/ Egi bihurtzen bada gauazko amentsa,
gauazko amentsa,
harrigarri da hango tiro arrabotsa;
uso dohakabeek hartu duten lotsa,
batzuentzat izan da gauza baliosa:
norbaitek horri esker bete baitu moltsa.
- 7/ Huts egiteak nehor ezin du ohora,
ezin du ohora,
holakorik ez erran beharri ondora;
kartuxa txarrak edo hegaztinak gora,
gaixto guziak heldu zaizkote gogora,
berriz ere debalde errerik bolbora.
- 8/ Aurten ere usoak gaizki heldu omen,
gaizki heldu omen,
gauza bera entzuten dugu han ta hemen;
nik otoitz horri erran behar diot amen,
horiek entzun eta baitut segurtamen
uso saltsa haundirik ez dugula janen.

- 9/ Guk errana gantikan nai dugun guzia,
nai dugun guzia,
ihiztariak badu dohain berezia:
goizean esperantza, atsean etsia;
gauza hau zeraut eni ezin sinetsia:
egungo ahanztea atzo ikasia.
- 10/ Ihizi guti dela beti erasian,
beti erasian,
gezur zonbait kondatuz egi eskasian;
hola hauteman ditut nik ene bizian:
zerbait egin badute noizbait ihizian,
errepikatzen dute bizitza guzian.
- 11/ Ihizirik ez dela ez ditela mintza,
ez ditela mintza,
irri ederrik ari da basurde beltza;
gure eremuetan osteka dabilta,
gogoetagarri da ikusten den gauza;
basurde bat hiltzea ote da hoin gaitza?
- 12/ Batean alorra da, pentzea bestean,
pentzea bestean,
denak eman dauzkute itxura tristean;
ausikiko gaituzte gutien ustean;
nago ihiztariak, hoiek ikustean,
gordetzen ote diren sasuen artean.

13/ Nahiz ez dutan erran batere gezurrik,
batere gezurrik,
orai ihiztariez nago harriturik;
nonbait bilatzen badut basurde larrurik,
agertuko naiz hura soinean harturik,
orduan ez baituket horien beldurrik.

14/ Bihurtu behar diot Jaunari grazia,
Jaunari grazia,
noizbait badutalakotz zerbait ikasia:
gizonen jostagarri bada ihizia,
ez duela egiten zorion guzia;
kartuxa saltzaileak du irabazia.



*«Goi ta beherik ez da enetzat, Naparro bat da bakarra.»
(Donibane-Garazi'ko ate bat.)*

(Foto A. Z., 1976.VII)

NAPARROARI

A musical score for the piece 'NAPARROARI'. The score is written on seven staves of music, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 5/8 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, often beamed together in pairs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots.



Baztan'go Ziga herria.

(Foto A. Z.)

- 1/ Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde, diot: «Aurrean Baztan daukazu, gibelean Erro alde, ezkerretarat Eugi herria, eskuin alderat Luzaide; zure guziak Naparroaren hegalen azpian daude.»
- 2/ Ene amatxi zendu maitea Auritzberri'ko izanik, napartarraren odol kartsua zainetan senditzen dut nik; eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarrirat iganik, norbaitek «Atzar hadi!» diola entzuten dut urrundarik.
- 3/ Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra, titulu horrek lehen hitzean galtzen du bere indarra; ni beheretar zendako deitu, nerez banaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat, Naparro bat da bakarra.
- 4/ Bere zainetan sendi duena hastapeneko odola, eman dioten izen mendreaz nekez ditaike kontsola; ezin onartuz bizi naiz beti murrizturikan dagola, bere itzala Baiona'raino hedatzen zuen arbola.
- 5/ Bainan enetzat, o Naparroa, ez da ezin igarria izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria: enbor sêndoan sartu baitzuten aizkora beldurgarria, zure laurki bat bertzerik ez da ni bizi naizen herria.
- 6/ Bi aldetarik nagusi bana jarriz geroz Naparroan, ez dakit gure etorkizuna zoin ateri buruz doan; ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan, bat gineneko egun ederrak ditut bakarrik gogoan.

- 7/ Betitikako arrain haundien lege okaztagarriak
gaitu napartar anai arrebak bi taldetan ezarriak;
bainan ele huts dira tratuak, itxura huts zedarriak,
hitzez ta harriz ezin hautsiak dira gure lokarriak.
- 8/ O Naparroa, banatorkizu otoizka fagore galdez:
urrikal zaite ukatu nahi zaituzten seme alabez;
bertze koroka batek estaltzen bagaitu ere hegalez,
Baxenabarrak Ama zu zaitu, guk nahi izan ala ez.

ORTZIRALE SAINDU BATETAKO GOGOETAK ETA OTOITZA

(1975'eko *Xenpelar Saria* irabazia)

The image displays a musical score for a piece titled "ORTZIRALE SAINDU BATETAKO GOGOETAK ETA OTOITZA". The score is written on eight staves of music, all in a single system. The key signature is two sharps (F# and C#), and the time signature is 2/4. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some rests and slurs. The piece concludes with a double bar line on the eighth staff.



Antonsai'ko gurutzea, Urepele.

(Foto A. Z., 1975.X.30)

- 1/ Jesus, kurutzeaz kargaturik zamatzaten egun huntan,
gogoz izan naiz zure ondotik Galbarioaren puntan;
han ene buruari behatuz, hara zer ikusi dutan:
zu itzatzeko burdin zorrotzak naramatzala eskutan.
- 2/ Aitortzen dut nor zaitudan bainan aitormen xoila bakarrik,
zure aski maitatzeko ez du ene bihotzak indarrik;
bekatuari estekatua naukate hainbat lotgarrik,
deus egin gabe zu beiratzeko kurutze dorpe hortarik.
- 3/ Sortzetikako jaidura txarra da ene hutsen iturri;
Jainko Semea zarenaz geroz baitakizu denen berri,
gizoner gorde izan dut bainan nola gordeko dut Zuri
ardurenik zer izaiten duen ene gogoak hazkurri?
- 4/ Zure Aitaren eskuetarik badut kargu bat ukana:
bertutearen predikatzea gizonen artean barna;
alegiatzko kartsutasunez egiten dut ene lana,
bainan Zu eta ene burua ezin dezazket engana.
- 5/ Bake hitza ene ezpainetan nork ez ote du entzuna?
Bainan barnetik etzaut ixiltzen hisiaren oihartzuna.
Nekeak utzi bertzerendako, enetzat errextasuna,
horra hor ene karitatea, horra ene maitasuna.
- 6/ Norbait ikusten badut ni baino dohatsuago bi mailez,
gizarteari oihuz ari naiz zuzentasunaren galdez;
aldiz ene bihotzak funtsezko urrikalmendurikan ez,
nik jakinean pairamenetan bizi diren dohakabez.

- 7/ Ixildu dut zure burregoer elgar zagutzen dugula,
horra naizen dohakabe hunen bertutearen ahula!
Badakit Jondoni Petrik ere lan bera egin zautzula,
bainan nik haren urriki minik ez dut senditu sekula.
- 8/ Hau da sinesmenaren argia ahulezian hurtzea!
O, Jesus ona, ilunbe hunen iraupenaren luzea!
Noiz onartu behar derautazu ene soinean hartzea
zur'eskuinean itzatu zuten ohoinaren kurutzea?
- 9/ Jauna, suntsi dezazun ni baitan, egiten dautzut galdea,
hoinbertze bere gostuko sugai erretzen duen labea;
bihotz berri bat eman zaidazu, o zero lurren jabea,
ene jaidura gaixtoek egin karramiskarik gabea!

O, GIPUZKOA, MAITATU ZAITUT

Ernani'ko Galarreta pilota plazan kantatu behar nuen batez, hitz hartu bezala joan bainintzan, han erran zautaten nik ez naukala kantatzerik; agintariek debekatzen zautatela. Ez nakien zer gatik.

Biharamunean berriz, Erretereria'n ginuen kantaldia, eta han ez nuen eragozpenik izan. Bertzekin batean kantatu nuen. Ez nuen deus konprenitzen.

Handik egun batzuen buruan berriz, Zarautz'erat joan nintzan Patxi *Barbero*'ren omenaldian kantatzeko asmotan. Han ere Galarreta'ko setentzia bera hartu nuen: Etzutela eman nik kantatzeko baimenik.


Afrontu izigarria hartu nuen eta arrunt gogoetatu nintzan. Ez nuen alabainan, ene ustez segurik, egundaino kantatu nehoi min egin zezoken pertsurik.

Eni kalte egin nahi zautan azpikari zombaiten hoben eman nuen, eta biharamunean berean egin nituen hemen dotzin pertsu hauk.

Gero ikasi nuen ordea zer zen debeku horren arrozoina: ene ustez bidezkoa zen eskaera bat izenpetua nuen nik ere, bertze askok bezala, eta horren gatik nahi izan ninduten gaztigatu. Ene baitan *mea culpa* egin nuen eta etsi bat hartu.

Ez nintzan mugaz haindirat hurbildu ere, berriz kanta-
tzeko baimena ardietsi arte.

Pertsu hauk oraiko ez dute naski baliorik; bainan or-
duko ene nahigabea eta gogoetak adiarazten dituzte eta
agert ditela beraz:



- 1/ O, Gipuzkoa, maitatu zaitut eta maitatzen oraindik,
bainan nik zutan nahigabeak noiznai hemendik ta handik;
esan ba ene bihotzari zuk itxaron dezaken txandik,
ala nai dezun behin betikotz aldegitia zu gandik.

- 2/ Bitan hor ene boleguari moztu dizkate egoak,
orain kezketan jarria nago zer ekarriko geroak;
len ere hortxe behin ixuri nituan negar beroak,
amodioak toki txarrean egin zizkidan erroak!

- 3/ Patxi Barberoin omenez atzo zarauztarrek zuten jaia,
ni ere deitu ninduten eta bete nuan beren naia;
bertan jakinik ukatu zala nik han kantatzeko baia,
pentsa naigabez nola bete zan ene bihotz minberaia!

- 4/ Alta, sekulan gaur arteraino, kantuz hasi nintzanetik,
behar ez danik ez du aditu iñork ene mingainetik.
Hargatik nago, debeku hori azaldu arren gainetik,
seguruago datorkidala norbaiten azpi lanetik.

- 5/ Bai, egia da, predikatu dut herri honen maitasuna,
aipatuz honek, bertzen aldean, duan berezitasuna;
aitortu ere zuen ta gure arteko anaitasuna,
hortan desegin ote dut bada nik iñoren batasuna?

- 6/ Lagunekilan ari nintzela kantuz hainbeste lekutan,
besteak ere sumatu ditut ene idea bersutan;
bildurrik gabe hartuko nuke burdin gorria eskutan:
beste hoinbeste esan ez dunik ez dela egongo gutan.

- 7/ Herritarrerri kantatzearren jutean plaza batera,
aitatutako gauzetaz kanpo zer gindezake atera?
Bertsolari bat ez bada haizu hoinbesteren esatera,
berriz baimena lortuta ere ez noa kantuz hastera.
- 8/ Norbaiti kalte egin beharrez jarduna banintz kitzikan,
gertatzen zautan gauzaz ez nuen nik aterako hitzikan.
Sekulan ene kantu lan hontan, hitzetan ta idatzitan,
ez det ordea iñon agertu amodioa baizikan.
- 9/ Zonbaitek aldiz birtute hori daukate gauza gutxitzat,
maite izaitea pekatu zala, ai, gogoratu balitzat!
Bihotzik gabe jaio banintza hobe nuela deritzat,
naigabe hauek ukaitekotan maitatuaren saritzat.
- 10/ Ene bihotzak ez du ordea oraino esan askirik:
mendekioa lortu beharrez ez dut galduko astirik.
Kontzientzia lasai dadukat, ez baitut egin gaizkirik,
eta ni baitan ez dut senditzen gorrotoaren izpirik.

EMAZTEA

Mila bederatzi ehun eta hirur hogoi ta hamabortzeko Martxoan, *Zeruko Argia*'k ekarri zituen Isabel delako baten arrangurak, bi pertsularik Donostia'ko *Astoria*'n, emaztearen urtea zela eta, horietaz kantatu behar izan zituzten pertsuen gatik.

Nahiz frango arruntki mintzatu ziren, ez dut uste Isabel arranguratu zela horiek erran zituztenentzat, baizik erran ez zituztenen gatik. Gizon hok ez ditugu denek eginbide berak munduan; batzu gaizki eginik bezanbat, kondentzen gaituzte bertze batzu ongia ez eginik.

Nik, Isabelen arrangurak irakurri orduko, ezarri nituen ondotik datozen pertsu hauk.

Bi pertsulari horiek ongi ezagutzen ditut; badakit biek estimu haunditan daukatela emaztea. Bainan pertsularigoa hoin lan zaila izanik, errexenerat lerratu ziren. Batek bide hori hartu zuen eta bertzea jarraiki zitzaion. Hori emaztearen kaltetan egin zuten, eta hain segur beren gogoaren aurka.

Gizon hok badugu emaztetaz trufatzeko ohidura lotsagarria; bainan pertsulari batek ez luke nehoiz egin behar holakorik. Ez da harritzeko, Isabel eta bertze asko arranguraturik ere; min hartzen dute eta.

Emaztea, gizona bezanbat segurik sakratua da eta errespeturik haundiena zor diogu. Bertzalde, ez ginuke ahantzi behar gizona baino minberaiagoa ere dela.

The image shows a musical score for a single voice line. It consists of eight staves of music, all in the same key and time signature. The key signature has two flats (Bb and Eb), and the time signature is 3/4. The melody is written in a single voice line. The notes are: Staff 1: G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 2: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 3: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 4: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 5: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 6: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 7: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. Staff 8: F4, G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4.

- 1/ Emazte baten bihotz samurra agertu zerauku goibel, bi bertsozari andrez erranik zombait ahapaldi ergel. Adimendua ez daike beti gogo bihotzetarat hel, etzakiten zer ari ziren ta barka zeiezu, Isabel.
- 2/ Ez daudelakotz andren fagore legearen aginduak, Isabel aunitz daudela dakit gauza hortaz suminduak. Ez ditut egun miatu nahi obra horren zimenduak, baizik agertu nik emazteaz ditudan sendimenduak.
- 3/ Ene lagunak, otoizten zautzet, maite zaituztedan ainbat, gizonagoak ager gaitezen emaztearen alderat. Errespetua ekarri behar giniokela deraukat, andrea ere norbait da eta ez gizonaren gauza bat.
- 4/ O, baginaki bihotza zombat minbera duen andreak, gizon hok izan behar ginuke garenak baino hobeak. Ikusten zaizko gure gostuen aurka dituen moldeak, ez ordea, guk naigabeturik, hark egin nigar gordeak.
- 5/ Indarra eta oldar geiena guk dugularik ekartzen, emaztearen feirostasunaz girea beti ohartzen? Sortzetik duen mendretasunaz duenik ere min hartzen? Hargatik zombat sakrifizio duken guretzat onartzen?
- 6/ Nik maite ditut andre gehienak, eta dauzkat ene lagun, errespetuzko maitasun batez —elgar konpreni dezagun—; ama, alaba, amon, izeba, mutxurdin eta alargun, bat gostukoa ez bazaut ere, ez daukat Eba hobendun.

- 7/ Jaunak Adam'i ezarri zion Eba laguntzat aldean:
lagun, munduko ibil aldian, lagun, zeruko bidean.
Eba bietan ahulena da, indarrak duen legean,
bainan lehena, kreatzea den kargu parerik gabea.
- 8/ Dutan bezala fede ukanik gizonen Salbatzailean,
zertan sartu naiz emaztearen gor'aipatzeko sailean?
Jesusek berak ezarri zuen goi goieneko mailean,
kontzebitua izan zenean Mariaren sabelean.
- 9/ Aurteng'urtea deitu daukute andren urte berezia,
iduri eta aurten artean etzutela merezia.
Nik eskatzen dut geldi dadila behin betikotz hautsia,
emaztekoa gizonetarik berexten duen hesia.
- 10/ Bai, emaztea, zure onetan jin bedi aurrerapena,
gizartean ez dezazun jasan orai arte hainbat pena.
Bainan zuk ere eduki zazu bertutean iraupena,
gure gogoan hits ez dakigun amaren orroitzapena.

KANBO'N MISIONETAKO ZEREMONIAN KANTATUAK

I

AGUR GISA

*Anai arrebak, plazerrez gaindi nago zuen aintzinean,
hoinbertze fede ikusten baitut eliza hunen barnean.
Aunitzek parte hartu duzue herriko misionean,
Jesusenganat garamazkien biderik zuzenenean;
ongi etorri derautzuet nik Jainkoaren izenean.*

II

FEDEDUNEN OTOITZ GISA





- 1/ Has gaiten Jainkoari otoitez eskean,
hobetzeko eskaintzen deraukun astean:
elgarri jos gaitzala maitasun betean,
orok egiten dugun Eliza batean.

- 2/ Berexkuntzatik libra ditzagun gogoak,
batasunerat deitzen baigaitu Jainkoak,
apez serorak oro eta laikoak,
izan gaiten lankide obra berekoak.

- 3/ Urrun diren euskaldun semeen bizitza
eta fedea, Jaunak bere gain har bitza,
hek er'entzun dezaten Jainkoaren hitza
eta gogoan izan herriko eliza.

- 4/ Gostu har dezaigun Jaunaren hitzari,
hura izan bekigu bideko gidari,
egunazko iguzki, gauaz argizagi,
bihotz berogarri ta arimaren argi.

- 5/ Misione hau izan bedi baliosa,
berri ditzala gutan gogo ta bihotza;
egun saindu hauetan gutarik bakotxa:
bilaka dadiela Jaunaren egoitza.

III

AZKEN AGUR GISA

*Orai Jaunari hel dezaiozun gaurk'otoitzetan azkena,
misione hau ez dadin izan bakarrik aste batena;
ez eta ere kantu ta otoitz batzuen orroitzapena,
baizik gutarat ekarri duen argiaren iraupena,
bizi guzian gurekin bedi deraukan erakaspena.*




Kanbo'ko eliza.

(Foto A. Z., 1976.VI.15)

PILOTA, EUSKAL JOKOA

(Pilota, euskal jokoa Saria irabazia, 1975.XII.14'an)

The image displays a musical score for the song 'Pilota, Euskal Jokoa'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and a 3/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The first staff contains the first six measures, the second staff the next six, the third staff the next six, the fourth staff the next six, the fifth staff the next six, and the sixth staff the final six measures, ending with a double bar line.



Xalbador, «Pilota, euskal jokoa» saria irabazitakoan, 1975.XII.14'an.

(Foto Arturo Delgado)

- 1/ Pertsuak ezartzeko ari zauzkit denak,
euskaldun kirola bat gorets lirotenak;
bihotza gauza batez hartua duenak,
errex eginen ditu haren goresmenak.

- 2/ Nola Euskal-herriko bertze mutikoak,
tirriatu izan nau pilota jokoak;
ahalak ez ordea nik hortarakoak,
bertze zerbaitetako nindaukan Jainkoak.

- 3/ Pilotako jeinuak eskastu bazauzkit,
bihotza ta begiak Jaunak eman dauzkit;
euskalduna delakotz, edo nik ez dakit,
etzaut bertze joko bat hori bezain pollit.

- 4/ Kirola hau jokutzen da maiz egun argiz,
oneski beztiturik, errespetu haundiz;
arrotzak dabilzkio berendako nahiz,
pare gabea baita ederrez ta garbiz.

- 5/ Pilota, zure bidez, orok euskaldunak
bagarelako famak dituzte entzunak;
zuk eginak gaituzu denen ezagunak,
asko zor dautzu zuri gure nortasunak.

- 6/ Zabaldu bazaituzte hemendik mundura,
muga gabea bada zure hedadura,
eskerrak ez daizkela erraiten mentura
zu etzarela gure iturriko ura.



*«Kirola hau jokatzen da maiz egun argiz
oneski bestiturik, errespetu haundiz...»*

(Foto A. Z., Hazparne'ko plazan, 1976.VII)

- 7/ Joko huntan lau molde dezazkegu ikus:
esku larruz, xixteraz, palaz edo eskuz;
iduriz bereziak jokatzeko moduz,
bainan denak arima ber beraren gorputz.
- 8/ Beha pilota bati jo ta jo bi talde,
denak beren nortasun osoaren jabe,
gorputzaren nekeaz arduratu gabe,
pilota daukatela otoitzaren pare.
- 9/ Plaza ixilik dago, iduri eliza,
beharien begiak pilotak dabilta;
Jainkoak hango deiak baiezta balitza,
talderik ahulenak luke azken hitza.
- 10/ Neska gaztea ere hor dago behari,
pilota bera bezain bihotza jauzlari,
esku zarten artetik otoizka Jaunari,
garraitza eman dezon haren maiteari.
- 11/ Nork daki zonbat gogo han ote dabiltzan
gure pilotarien so baten peskizan?
Mutil dohatu hoiek hartzen diren gisan,
nork ez luke nahiko pilotari izan?
- 12/ Bainan zer da boza hau? Zer entzuten dut nik?
Deiadar bat bezala heldu urrundarik,
gure gazteriari pilotak erranik:
Ez nezazula berex euskararen ganik!

- 13/ Kirola ta hizkuntza, horra hor bi gauza
luza dezaketenak herriaren hatsa;
baldin ez bazerauku erdalduntzen plaza,
salbaturen garela badut esperantza.
- 14/ Gauza ezaguna da bizian iraupen
kirolak herri bati diola emaiten;
pilota maiteari leial egon gaiten
hark lagunt gaitzan gero euskaldun irauten.

FEDEDUNEN OTOITZA
ALABAREN EZKON MEZA
DENBORAN

The image displays a musical score for a piece titled "FEDEDUNEN OTOITZA ALABAREN EZKON MEZA DENBORAN". The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/8 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together and others marked with accents. The music is presented in a clean, black-and-white format.

- 1/ Emil eta Heleni beha, otoi, Jauna,
eskaintzen baitautzute beren maitasuna.
Zu, botere guziak baderauzkazuna,
zure gain har ezazu hauen batasuna.

- 2/ Egizu zoriontsu bizi ditezela,
eman duten hitzean leialik daudela;
datorzkioten haurrak maita ditzatela,
Zuk zure hok maitatzen gaituzun bezela

- 3/ Lagunzkitzu etsenplu onaren emaiten,
haurren ongi altxatzen, naigaben jasaiten;
lagunt euskaldun eta fededun irauten,
gure herri maitea ohora dezaten.

- 4/ Ardura ikusten da munduan gizona,
edo berdin andrea, kaiolatik joana.
Errebel horietaz urrikal, Jaun ona,
berriz kobra dezaten galdu zoriona.

- 5/ Maiteen ganik berex presondegietan,
edo alargundurik daudenak penetan,
bisitazkitzu, Jauna, ezin bertze hortan,
kotsolamendu kausi dezaten Zu baitan.

AFAL ONDOAN

The image displays a musical score for the piece 'AFAL ONDOAN'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of three sharps (F#, C#, G#), and a 3/4 time signature. The notation includes various rhythmic values such as quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, along with rests and phrasing slurs. The music is presented in a single melodic line across the staves.



Emil eta Helen'en ezkontza.

(Foto Studios Bière)

- 1/ Egungo egun zoragarria argitu duen Jaunari
eskerrak eman behar diozkat, lotzean kantu lanari;
eskerrak ere gure ahaide eta adixkideeri,
zorion huntan gurekin parte hartu duten guzieri.

- 2/ Primaderaren seinale dira loreak eta ezkontza;
iguzkiak du lurra berotzen, amodioak bihotza.
Hau da egungo espos gaztentsat egiten dutan otoitza:
maitasun horren berotasunaz luzaz dezatela goza.

- 3/ Horra bi bihotz bateratuak, sakramendua lotgarri,
Jainkoaren ta gizonen bixtan, bizi guzikotz elgarri;
beren urratsak dituztelarik xuxen-bidean ezarri,
girstinoki hezi ditugun ait'amen kontsolagarri.

- 4/ Andere espos maitagarria, gure etxeko izarra,
goxotasunaz bertzerik nehoiz eman ez daukuzun haurra;
alaba ziren bezain espos on bazira izan beharra,
zorioneko gizona izan ditaike zure senarra.

- 5/ Etxean beti bizia zira maitasunaren argian,
zure ait'amen eta haurriden estimuaren erdian;
gurekin bezain maitagarria izanen zira agian,
amodioak gidaturikan sartu zaren familian.

- 6/ Jaun esposaren izena ere ene gogoan badabil,
atseginekin ikusten baitut gure alabari hurbil.
Zure dohainak hauekxe dira: prestu, langile ta umil;
egundik goiti seme bezala hartzen zaitugu guk, Emil.

- 7/ Zentzua eta umiltasuna zu baitan dauzkazu jori;
baldin ta uzten ez baduzu zuk hartu duzun plegu hori,
damutzearen beldurrik gabe kantatuko dut orori:
gure alaba ez da zurekin esku txarretan erori.
- 8/ Orain artean bizi izanik haur denborako gradoan,
zuen ait'amen eta haurriden etxekotasun goxoan,
orain gauza bat badaukazute hartu beharra gogoan:
egundik goiti sartzen zaiztela kreatzaileen lerroan.
- 9/ Erran beharrik baliosenak azkenerako daduzkat:
aiseriaren aldeko izan baitzaitzate orobat,
kargaren beldurrik gabe eman fruituak mundu huntarat,
zuen bizia izan ez dadin uzta gabeko uda bat.
- 10/ Landare berriz edertzen bada baratze hori sekula,
har dezatela beren ait'amek ikasi zuten eskola:
orrotuz nongo zainetarikan datorkioten odola,
ez dadiela pino ostoz jauntz haritz sortu zen arbola.

EUSKAL-HERRITIK URRUN

Mila bederatzi ehun eta hirur hogoi ta hamaseigarren urte hunen Otsailean, hartu nuen Frantzia beheretik, ezagutzen ez dutan aheztar baten eskutitza. Harentzat pertsu batzuen egitea eskatzen zautan.

Lehen ere etorri izan zaut nor edo nor pertsu eske; baina gehienek norbaitentzat zuten zerbait arrangura, eta hura nahi nik agert nezan pertsuetan. Bixtan da egundaino ez dutala holakorik onartu.

Gainerat, edozoin gai izanik ere, nik ez dezaket pertsurik egin bertzeren sendimenduetaz. Nihaurenekin ere izaiten dut lanik aski.

Bainan aheztar hunen eskutitza hain zen hunkigarria, eta ahal bezanbat haren lekuan ene burua emanik, egin niozkan eskatzen zauzkitan pertsuak.

Horra hemen, hitzez hitz, haren eskutitzaren zati bat; ondotik nik egin pertsuak:

Pithiviers, Urriaren 25'ean.

Xalbador maitea:

Badu jadanik zoinbeit ilabete gogoan dutala zuri lerro batzu igortzeko. Ez izi; ez naiz deusen emaitera abian; bakarrik zuri zerbitzu handi baten galde egitera.

Ahal bezen garbi entseiatuko naiz ene kasuaren esplikatzerara.

Sortzez aheztarra naiz (Mattinen kusin ttipia); 46 urte ditut. Bertze hainitz bezala, gazterik partitua naiz herritik: lehenik Landes'etan haur-haurra oiha-nean; Eskual-herrian, maiz gauaz muga ixkin hortan, etxean laborantzan pixka bat eta hola. 1953'an etorri nintzen Pithiviers'era betarraba sasoinaren egitera; 54'an berriz; 55'an ere ba, eta 56'an hemen ezkondu herri huntako neska batekin, eta geroztik hemen naiz, erraiteko maneran, eskualdun bakarra.

Emaztea langilea dut eta seriosa; etxe ttipi bat muntatua dugu, eta badugu 17 urteko alaba. Nagusi ona dut, irabazi ona badut, osasuna ere ba. Segur, zure baitan eginen duzu: Zer dik bada eskas? Zer du-dan eskas aise pentsatzen duzu: Eskual-herria.

Udazkenetan plazerrekin ikusten ditut zoinbeit lagun Eskual-herritik betarraba sasoinaren egitera heldu. Ahal bezen usu egiten diotet bixita ttipi bat, mus partida bat edo bertze eta kantu aire batzu elgarrekin emaiteko. Ez naiz orroitzen xuxen zoin urtez zen, zure semea ere ezagutu izan dut; Ameriketara joana dela entzuna dut.

Lehenago, sasoina finitu eta zoinbeit eskualdun bakarrak joaiten zirelarik, bakar-bakarra gelditzen nintzen bederatzi ilabetez. Bainan azkenean gure Jainkoa urrikaldu zaut eta igorri nau lagun bat paregabea. Duela hiru urte, atsegin handia izan dut: Auquste Borthayre, Senpertarra; erraiteko maneran hauzokoa, eta gaztean onqi ezagutzen nuena. Guziz hunen anaiak lagun handiak nintuen; baditugu zoinbeit gau

*elgarrekin pasatuak Dantxariene'tik eta Azkaine ar-
teko muga hortan. Segur naiz zuk ere ezagutzen di-
tutzula Audet pilotariak. Beraz, hiru urte huntan
Pithiviers'en da jendarma kapitain. Bederen astean
bi aldiz elgar ikusten dugu. Hura ere, ni bezala, kon-
tent eskualdun bat etxetik urrun aurkitzea.*

*Urtean behin besta ederra egiten dugu, hunen la-
gunak (eta eneak berdin) etortzen direlarik Senpere'
'tik eta Ahetze'tik. Jakiten ahal duzu zoinbeit kantu
aire emaiten ditugula. Duela urte pare bat, Mattin
kusiari bertsu batzu molda arazi niozkan, gure lagun
guzieri ongi etorria desiratzeko, eta denbora berean
Auguste kapitainari kantuz erraiteko zer laguna den
enetzat eta zer estimutan daukatan nik. Anaiak beza-
la gira elgarrekin. Bainan, horra! Gauza guziek ba-
dute fin bat. Ez nau oraino deus erraiten; bakarrik
halako beldur gaixto bat abiatua dut: badut uste luze
gabe joanen ote zautan, eta norat? Jainkoak bakarrik
daki.*

*Beraz, hortakotz heldu naiz zure ganat: zuk baka-
rrik duzun dohain izigarriarekin, plazer handia nuke
ahal bazintu zoinbeit pertsu moldatu, Auguste parti-
tzen delarik hari kantuz ene bihotzeko pentsamen-
duak erraiteko. Segur, ez naiz alegera izanen egun
hartan. Bainan zer nahi duzu? Mundu huntako legea
hola da. Baduzu astia; zer nahi gisaz, ez zait iduritzen
urte berriak baino lehen joanen dela. Ahal baduzu,
plazer nuke Mutil koxkor bat'en airean posible bazi-
nu. Segur naiz plazer eginen diotala, ezen bera ere
kantari pollita da; anaia guziak bezala, pilota eta kan-
tua maite ditu.*

*Beraz, egungotz uzten zaitut. Pentsatzen dut ez
zaitudala sobera narda arazi ene haurkeriekin. Ain-
tzinetik milesker, eta goraintzi handi bat Pithiviers'
'etik.*

*Olaechea Edouard
38.rue de Caquereau
45.300 Pithiviers*

- 1/ Ahetze deitzen zaitugun herri ttipia bainan garbia,
zure baserri pollit batean ikusi nuen argia;
beroa bainan hertsiegia iduriturik kabia,
zorigaitzean senditu nuen handik airatu nahia,
den egunean han banindago ez bainindaike abia.

- 2/ Ez nuen uste hoinbertze indar banuela hegaletan:
amenstu baino urruntxeago jin nintzan uste gabetan;
unatu nintzan eta aurkitu pausa leku beharretan,
hegalak bildu ditut Frantzia iparreko lur aldetan,
hemen ninduen amodioak nahasi bere saretan.

- 3/ Amodioak sartu ninduen duda mudaren erdira,
geroztik hunat ene gogoia harat hunat ibilki da,
Euskal-herritik hunarat eta hemendik Euskal-herrira;
ni baitarat bi gauza desberdin maiz etorri ohi dira:
irria bihotz amoroserat eta nigarra begira.

- 4/ Diot gogoak Euskal-herrirat maiz nauela eremaiten,
hemengo deusek ez baitaut funtsez hango berririk emaiten;
urteko egun argienetan xoilki ditut hautemaiten
xori bat kantuz tristeki edo ezkila motel bat joiten,
ustez mintzatzen zerauzkit bainan nik ez dakit zer dioten.

- 5/ Euskal lagun bat eskatzen neien zeruko saindu orori,
August, hunarat zu etortzean egiztu zen botu hori,
gure Jainkoak dohain hoberik ez dio egin nehuri;
horra desertu soileko arbol bakan batean erori
ekaitz gaixtoak errebelatu luma bereko bi xori.

- 6/ Nekez ditaike adiarazi zoin dohatsu izan garen,
lehendik ere amodioa baigineraukan elgarren;
geroztik elgar ikusi dugu astean bitan bederen,
iduritzen zaut Euskal-herri bat sortu dugula guk hemen,
Ahetze'n bizi naizela ni ta zu hor zaudela Senpere'n.
- 7/ Astean bitan ikus gintezen ote zen ederregia?
Ala hau nuen higatzen nauen gaitzaren eder-begia?
Ez nuen nahi sinetsi bainan zorigaitzez da egia
hemendik berriz ez jakin norat zoazilako berria;
iduritzen zaut bigarren aldiz uzten dutala herria.
- 8/ Ezin ahantziz, August, zurekin iragan hiru urteak,
ni ere tirriatzen ninduke zure ondotik joaiteak;
bainan amodiozko gatinaz hetsiak zauzkit ateak;
nehoiz jakinen ote du bada ene famili maiteak
zer prezioa duen berekin ni hoiena izaiteak?
- 9/ Noizbait jabaltzen bazautzu, lagun, zaramazkien haizea,
eta gogorat heldu bazautzu bizi lagun bat hartzea,
zure onetan Euskal-herrian bila zazu ohantzea;
ez baita aski emazte ta haur maiteneri behatzea,
gizonen baitan ezeztatzeko herri minen oinazea.
- 10/ Ez dakit ibil aldi berriak noradino zaramatzan,
bainan sekula Euskal-herrian krikatzen bazira pasan,
hango gazteer erraiozute ez diten xoroak izan,
beren herria ez dezaten utz hobe baten esperantzan,
urrunduaren damu samin hau heiek ez dezaten jasan.



«Ahetze deitzen zaitugun herri ttipia bainan garbia...»

(Foto A. Z., 1976.VII)

HAUR BATEK BERE AMARI

Airea: Ezkotariarena edo Anderea, gorarik zaude lehioan'ena, puxka bat goiti beheiti.

Lore xuriak eta gorri batzu eskuan. haurrek kantatzeko.

The musical score consists of six staves of music in G major (one sharp) and 3/4 time. The first staff begins with a common time signature (C) and changes to 3/4. The second staff starts with a 3/4 time signature and changes to common time. The third staff starts with a common time signature and changes to 3/4. The fourth staff starts with a common time signature and changes to 3/4. The fifth staff starts with a common time signature and changes to 3/4. The sixth staff starts with a common time signature and changes to 3/4. The music features a mix of quarter, eighth, and sixteenth notes, with some rests and repeat signs.

- 1/ Ama, zuretzat ekarri ditut liliak;
zuri pentsatuz hautatu ditut xuriak.
Bertze hok aldiz, kolorez gorri biziak,
zuretzat dutan maitasuna iduriak.

- 2/ Ama guziek hartze duten ohorea
seinalatzeko, begiztatu dut lorea.
Loretan ere haizu da nori berea
iduritzea bertzena baino hobea.

- 3/ Gau eta egun hitz hok gogoan dabilizat:
O, Jainkoa zoin ona izan den enetzat!
Aitari ere esker beroak diozkat,
enetako zu hautaturikan amatzat.

- 4/ Ama, zu zira ene aberastasuna,
ene naigaben ezeztatzen dakizuna;
botere hori zuk bakarrik daukazuna,
nehorek ezin ordainduzko ontasuna.


- 5/ Musu emanik utzia bezper'atsean,
ni atzartzean, zu ez bazira etxean,
tristura latz bat senditzen dut bihotzean;
gau eta egun nahi zaitut sahetsean.

- 6/ Ez nuke nahi nik zure begitartea
nehoiz ikusi dena nigarrez betea.
Nik ez baitakit, errazu, ama maitea,
ni nolakoa nahi duzun izaitea.

7/ Ene izarra zaren ama amultsua,
beira nitarik esker gabeen kutsua,
bizi guzian gaurkoa bezain kartsua
izan dadien gure arteko musua.

Bururatzeko:

Hotzak badago edo badago goseak,
gauaz dolamen egiten badu haizeak,
nortan goxatzen ote ditu oinazeak,
bere amarik ez duen dohakabeak?



Xalbador ta bere andrea. ezkon berritan.

HOGOI URTETAN BEZALA

The image displays a musical score for the piece 'HOGOI URTETAN BEZALA'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 2/4 time signature. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some measures containing beamed eighth notes and others featuring longer note values with stems. The piece concludes with a double bar line on the eighth staff.



«Gaztek diote: "Amodiorik ez da zahartzearekin."
Gu zahartzeak ez gaitu aldiz geiago baizik bat egin.»

(Xalbador ta bere andrea, etxeko atean. Foto A. Z.)

- 1/ Ostatu baten barnean entzun dut ahapaldi zoroa,
beren ustean oro dazkiten gazte batzuen leloa:
«Zaharrendako salda ona ta gaztentzat amodioa».
Gezurra dela jakin dezaten kantatzen hasterat noa.

- 2/ Berrogoi eta hamar bat urte badu ene emazteak,
berrogoi eta hamahiru nik iragan udan beteak;
maitasunezko sendimendutan oraino gaude gazteak,
amodioa zintzoa bada ez dira konda urteak.

- 3/ Laster laguna hartzekoa du gure haurretan gaztenak,
lehendik ere bi baditugu ezkondukan daudenak;
bakotxa bere lagunarekin etxerat biltzean denak,
ohartzten gira guhaur girela denetan loriosenak.

- 4/ Maite-mindurik emaztearen inguruan nabilala,
galdetzen diot maite nauenez otoi segurta nezala;
arrosa bezain gorri eginik, begiak apal-apala:
baietz segurki, ihardesten daut, hogoi urtetan bezala.

- 5/ Sartzerat noa berrogoi eta hamabortzgarren urtean,
eta gaztetan bezain lorios ni zure beso artean;
bititzen denak amodioa gaztentzat dela ustean,
zer erran liro gure arteko zoriona ikustean?

- 6/ Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan,
o mement baten epearentzat Jainko banindaike izan!
Mana nezoke iguzki horri nehoiz ez dadila etzan,
zorionezko bititza hunek azkenik izan ez dezan.

- 7/ Zu zira ene zorionaren iturri ta nagusia,
mundu hunetan jarraitzeko dutan arrozoin guzia;
zure dohainen gozoz ez banu ene gogoaz hazia,
lore gabeko udaberri bat laiteke ene bizia.
- 8/ Gaztek diote: «Amodiorik ez da zahartzearekin!»
Gu zahartzeak ez gaitu aldiz geiago baizik bat egin;
Jaunari diot biak batean har gaitzan noizbait Berekin,
zoragarritzko loretegi hau bi zati egin ez dadin.

SEMEA AMERIKETARIK ITZULTZEAN

A musical score for a song titled "SEMEA AMERIKETARIK ITZULTZEAN". The score is written on seven staves of music. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 3/8. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The score ends with a double bar line.



Aita semeak Ameriketan.

- 1/ Nork ez dugu otoizten behar orduz Jauna,
Haren ganik beharrez gure zoriona?
Behin Harek emanik galdegin zaiona,
aberearen pare laiteke gizona,
ukatzen baginio gure esker ona.

- 2/ Beraz, gaur Jainkoari esker emaitera
noakio, ta kantuz hasten alegera.
Urrundik itzulirik semea etxera,
gaurkoan tristuratik behar naiz atera:
nola gorde dezaket nitan den plazerra?

- 3/ Ikustean semea gutarterat jina,
airatu da behingotz ene bihotz mina.
Joaitean hartu nuen naigabe samina,
hala nola betiko berexi bagina;
araberakoa da gaurko atsegina.

- 4/ Seme, egun bihotza bestan badabilkit,
zu etortzeak egin diola badakit.
Ahantzi nituenak hainbat gauza pollit,
zu ikustean berriz gogorat datorzkit;
ene indarrak berak emendatu zauzkit.

- 5/ Izan zarela hemen ongi etorria
da gure bihotzetan gauza ageria.
Hain da distirant eta hain berogarria,
ufarik bortitzenak ezin itzalia,
zuk etxeari egin diozun argia.

- 6/ Bizi moduko kezakak zintuen ereman,
eta atzerri hartan bortz urte iragan.
Ez gaituzu ahantzi han zinen denboran,
zonbat maitasun froga ez daukuzu eman!
Seme leiala beti zu hemen eta han!
- 7/ Zu han zinen denboran ez ginauden pozik,
nehoiz ez dut iragan nik holako hotzik.
Zuk ere zure gostuz jakin duzu goizik:
ez baginuke behar bizitzeko sosik,
ez laitekela goibel askoren bihotzik.
- 8/ Orai beldur naiz, seme, ote zauden dudan
berriz Amerikarat airatzeaz udan.
Beharko badut ere ur hortarik edan,
gaurkotz ez diot nahi buruari eman,
daukadan zoriona histu ez dakidan.

UZTAPIDERI

The image displays a musical score for the piece 'UZTAPIDERI'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/8 time signature. The notation consists of eighth and sixteenth notes, often beamed together, with various rests and phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the eighth staff.



Uztapide, Donosti'ko Anoeta'n, 1967.VI.11'an, bertsolari xapelketa irabazitakoan.


(Foto Aygues)

- 1/ Ondo dakit gaur bihotz gaxo bat astindu behar dedala, ai, Uztapide, barka zaidazu zu aitatzera noala. Burutan hartu dedan lan hontan Jainkoak argi nezala, esan nahiak ager ditzadan sentitzen dedan bezala.
- 2/ Ez dakit zer dan zuri nigaitik gogora datorkizuna, nik ez baidauzkat, ondo badakit, zure azta ta zentzuna. Halarik ere bada gauza bat onartu behar dezuna: maitagarria ez banaiz ere maitale suhar nauzuna.
- 3/ Egun on batez bertsoen bidez zurekin alkartu nintzan, zu baino lagun hoberik ez det aurkitu ene bizitzan. Zure itzala berdintzen ere saiatu naiz ene gisan, nahiz nik egin indar guztiak alper alperrikan izan.
- 4/ Norbaitek behin esan zuala entzun izan det nonbaitik: «Doai on batek argi dezake berdin anima gaiztotik». Iñork etzuan iñoiz esango horrelakorik zu gaitik, doai on hutsa zarelakotz zu barrendik nola kanpotik.
- 5/ Jaunak gure gain utzi lan hontan zu izan zera gizona, trebea eta argiz betea, zure hitzetan sakona. Parra eragin behar zanean, hartako ere zu ona, gure denboran ezagutu dan bertsolaririk osona.
- 6/ Egun ordea agorrik zaude, ai, ezin-beste estutan, herri gainera hainbeste ur on ixur ondoan burrustan. Herri honentzat eten zerala, arren, ez egon damutan, ordainez bere semen bihotzak hartu dituzu eskutan.

- 7/ Dauzkazun doai oro dituzu gu danon mende ezarri:
zure gogoa eta bihotza, adimendu ta eztarri,
amodioa eragile ta giza legea uztarri;
begira egun zure eraintzak ekarri duan uztari.
- 8/ Gure lan hontan bide guztiak ez dirade erosoak,
bainan nekeak inoiz ekartzen ditu ondoren gozoak.
Zuk erakutsi gizatasuna eta zuk eman bertsoak
esker on askoz ordaintzen ditu gaur Euskal-herri osoak.
- 9/ Ez dakit inoiz bihurtu dezun Jaungoikoari eskerrik,
mundurat eman zaituelako dana birtutez beterik.
Etxe guztitan ez da izaten horren ispillu ederrik,
zure semeak ez dauka orain horri behatu besterik.
- 10/ Badakit nola etxean zauden zu ezinduraz betea,
ni berriz ezin zure ganatu, hau egoera tristea!
Gerta litaike munduan alkar guk berriz ez ikustea,
eskerrak bizi honen ondotik hor daukagula bestea.

GIPUZKO MAITEA





«Ez dizut kantatuko zoin polita zeran,
ez nizuke egingo hartze duzun eran...»

(Foto Charola)

- 1/ Zabalik ene dohain guzien atea,
zuretzat esker onez bihotza betea,
kantari natorkizu, Gipuzko maitea,
loretatu baituzu ene izaitea,

- 2/ Ez dizut kantatuko zoin polita zeran,
ez nizuke egingo hartze duzun eran;
ene lanak argi hau daduka beregan:
gu biok elgarrentzat zer izanak geran.

- 3/ O Donostia eta zure ingurua!
Zu gabe zer zitaiken enetzat mundua?
Iduri zaut artean nintzela galdua,
eta zutan aurkitu neronen burua.

- 4/ Beharrik zure garrez argitu nintzela,
saspetan fundituko bainintzan bertzela;
ni laudatzen nautenek jakin dezatela,
nitan maite dutena zuri zor dutela.

- 5/ Bertsotan hasi eta hamar urte pasan
jardun nuen mendiko ikas molde basan;
agertu ninduen lehen aldiz plazan,
Gipuzkoa'ko seme prestu bat izan zan.

- 6/ Hortik hedatu baitzen nitaz zerbait fama,
bide horrek ereman ninduen zugana.
Nola ez gorets egin derautazun lana,
daukadan nortasunak zu baitzaitu ama?



*«Behin hargatik poza zitzaidan markistu,
entzulek eskainirik bost minutu xixtu...»*

*(Uztapide ta Xalbador, Donosti'ko pertsulari xapelketan,
1967.VI.11'an.)*

(Foto Aygues)

- 7/ Neure herrian eta herri auzoetan
etzen gusto haundirik ene bertsoetan;
abots hau galduko zen mendi basoetan,
hartu ez baninduzu zure besoetan.
- 8/ Zuk entzuten sendituz ene abo otsa,
badut nik pasaturik zombait zombait lotsa;
bainan iñoiz hunkitzen badautzut bihotza,
negurri gabea da hartzen dutan poza.
- 9/ Behin hargatik poza zitzaidan markistu,
entzulek eskainirik bost minutu xixtu;
gogoz banintzan ere une hartan histu,
errespeto haundi bat ni baitan zen piztu.
- 10/ Eman zidaten jaso ahalako pena,
ahal bezain umilki hartu nuen dena,
pentsatuz zitaikela egin zidatena
amak haurrari egin oharrarazpena.
- 11/ Gaur gutxi orroitzen naiz gertakari hartaz,
ez baitut Gipuzkoa'n maitalea eskas;
probatzen ez duenak ez dezake ikas,
hor zonbat jendek arta hartzen duten nitaz.
- 12/ Lagundua naiz gizon emazte jatorrez,
askotxoren alderat betea naiz zorrez;
ez naiz hasiko denak izenda beharrez,
hartzedun haundienak huts egin beldurrez.

- 13/ Ene lankidek ere ongi hartzen naute,
ordainetan bihotz hau berena daukate;
lehenetik hasi ta azkenera arte,
bat ez nezake berex, oro ditut maite.
- 14/ Lagun on horiekin kurritzean plazak,
une batentzat uzten nau ohiko gaitzak:
garbitzen dizkit hoién herrizale gatzak,
etxetikan hain ilun dakuskitan gauzak.
- 15/ Gogo iluntasuna dut nik nerezkoa,
Jaungoikoak egina nau honelakoa;
bihotzaren altxatzen, berritzen gogoa,
askotan zuk laguntzen nauzu, Gipuzkoa.
- 16/ Gure herriaz triste nagon bakoitzean,
zertxobait alaitzen naiz zutaz orroitzean;
bizi naizen arte ta bai heriotzean,
argi egingo duzu ene bihotzean.

AMENTSETAN

A musical score for the piece 'AMENTSETAN'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 6/8 time signature. The notation consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and a few accidentals. The music is arranged in a single melodic line across the staves.



- 1/ Bizia ez da nehoiz egoiten bere dohainen betean,
aldakorra da nola eguna goizetik arrats artean,
bildu bezanbat galtzen baitzaio urteak iragaitean;
zahartzean zer pentsatzen den ta zer senditzen den gaztean
joan den gau batez ikusi dut nik aments nahasi batean,
aments nahasi batean.

- 2/ Aments ausartak igan ninduen baratze baten hegira,
han bi amoros zoin amultsuki zauden elgarri begira;
heien arteko mezu guziak zatozkidan beharrira,
hitz kartsu heien beroa eta behako haren dirdira
adin huntako begi beharriz ezin prezatuak dira,
ezin prezatuak dira.

- 3/ Nonbait gau hartan loratua zen bi horien maitasuna,
eta jadanik mihian zuten betiko leialtasuna;
ez dakit xuxen gutietsirik oraiko gaztetasuna,
edo hoinbertze berri lazgarri badutalakotz entzuna,
hioen leloa ez naukan beti bihotzaren oihartzuna,
bihotzaren oihartzuna.

- 4/ Baratze harek bazuen bada amodioaz zer sala,
nola pentsa nik bi gazteak han irriskuan zabiltzala?
Zauden lekua distaranta zen, ni nindagona itzala;
hortan ote zen estakurua heier oldartu nintzala,
adimendu ta zuhurtziaren mandatari bat bezala,
mandatari bat bezala?
- 5/ Erran nioten: «Bazagon bihotz atzo elgarren aldean!...
Eta egungo hegaldatuak bi aldetarat airean!
Nornahi errex loak hartzen du ara berrien legean.
Nolaz irauten ahal duzue gau batez bildu fedean,
ordrea eta leialtasuna konda ez diren mendean,
konda ez diren mendean?»
- 6/ Neholaz ere zuentzat onik hortik datorren banago,
alda soinuak ihardesten du gaur deusek baino barnago;
zuentzat ere jo dezake ta orduan denak akabo,
edo bertzela, fede izpi bat zuetan baldin badago,
biek higatu behar duzue gaur erran hitzen esklabo,
gaur erran hitzen esklabo.»
- 7/ Luzaz oraino ixuri nuen golkoan naukan uretik,
iduri uhar beldurgarri bat hedoi beltzenen barnetik;
bainan ene bi maitalariak, ene garrasien gatik,
beren bihotzen besta goresten ari ziren ahapetik,
urrikalkorki behatuz eni argizko arku batetik,
argizko arku batetik.

- 8/ Mixteriozko arkuan zauden, argiz elgarri josiak,
iduri zuten bi aingeruño zeruetarik jautsiak;
geienik nihaur joa ninduen bota nuen erauntsiak,
agertu baitzen nik nituela sendipen kordak hautsiak,
sehi berriak bazituela lehengo ene nausiak,
lehengo ene nausiak.
- 9/ Gero aldizka kar berarekin mintza zitzaizkidan biak,
mutilak zion: «Ene asmoak osoki dira garbiak.»
Neskatxak aldiz: «Jauna, zuk erran gauzak ez dira egiak.»
Hitz horietan atzarri nintzan, busti bustirik begiak:
amodioan deus etzuela aldatu mende berriak,
aldatu mende berriak.
- 10/ Burua gordez han hasi nintzan berriz Jaunari lo galdez,
bainan amentsa nuen bilatzen, ez nindabilan logalez;
amodioa, gaur egun ere hoin sendo bada ahalez,
bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala hegalez,
tristura eta herra lur pean sar diten haren ahalgez,
sar diten haren ahalgez.

ENTZUN, JAUN ZERUKOA

A musical score for the piece "ENTZUN, JAUN ZERUKOA". The score is written on nine staves in a single system. The key signature is three sharps (F#, C#, G#), and the time signature is common time (C). The music is written in a single melodic line. The notation includes various note values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests and ties. The piece concludes with a double bar line at the end of the ninth staff.



Mixel eta Mari Mixel'en ezkontza.

*Entzun, Jaun Zerukoa, gu denen otoitza:
bete zazu graziaz egungo ezkontza.*

- 1/ Bi gazte hok eskuak emanik elgarri,
lotu dira Zu gana daman bideari:
amodioa dute bideko janari,
zure grazia izan bezate edari.

Entzun, Jaun Zerukoa...

- 2/ Bide hori bekite atsegingarria,
arina izan dadin hauen uztarria;
laguntzat emozute xori kantaria,
elgarren konpainian diton bozkaria.

Entzun, Jaun Zerukoa...

- 3/ Hau da ere, Jainkoa, eskatzen zaizuna:
espos hauetan beira sendo maitasuna,
elgarren errespetu ta leialtasuna,
deusek ez dezan markits hauen batasuna.

Entzun, Jaun Zerukoa...

- 4/ Gida hauen urratsak fedezko argian,
deus ez dadila gerta zure gordabian;
zure ofentsatzerat badira abian,
hor eman zaite beti bien agerian.

Entzun, Jaun Zerukoa...

5/ Egizu bi esposen helburu garbia
oroz gainetik izan dadin familia;
zerbitzatzerat ere ditzazu lehia
Zuk hauentzat hautatu zinuen herria.
Entzun, Jaun Zerukoa...

6/ Hauen gainerat heldu bada zorigaitza,
gutarat errexenik erortzen den gauza,
egizu ez dezaten galdu konfiantza,
bainan atxik fedea eta esperantza.
Entzun, Jaun Zerukoa...

7/ Nahigabetan diren ezkonduak oro
bisitazkitzu, Jauna, orai eta gero;
horien bihotzetan ez denean aro,
zure maitasun suak dezaioten bero.
Entzun, Jaun Zerukoa...

EZ NUEN USTE

The image displays a musical score for the piece 'EZ NUEN USTE'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 5/8 time signature. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and bar lines. The melody is primarily composed of eighth notes, with some sixteenth notes and rests interspersed. The piece concludes with a final note on the eighth staff, which is a half note with a fermata.

- 1/ Ez dakit eman behar nukenez suerte txarraren kondura edo nihaurek tentatzen dutan delako suerte txar hura; ene denboran jauzika nabil ixtriputik ixtripura, zonbait oinaze jasaitekoa etorri nintzan mundura.

- 2/ Lehendik ere zonbat ez behar etorri den ene gana, zerbait seinale aurki ditaike ene gorputzean barna; nahiz guziek utzi dautaten orroitzapen kirets bana, bertze guzien gainekoa da aurten gertatu zautana.

- 3/ Abar tzar batek begian jorik oldar ezin sinetsian, zonbat denboraz lurrean egon ote nintzan hil etsian, bizitik eta heriotzerat dagoen arte hertsian? Nago begi hauk behin betikotz nolaz etziren hetsi han.

- 4/ Ene denboran ez dut pasatu halako memento txarrik, nolaz etzuen nehork hauteman nik han egin deiadarrik? Galbideko dei samin guziek etzuten egin indarrik, oihanak ito zituen eta han egon nintzan bakarrik.

- 5/ Bainan Jainkoa, beti bezala, ene bixtatik gordea, noiz Hari oihu eginen nion zaukitan aldetik beha; ez nuen hanbat merexi bainan urrikaldu zen ordea, orduan ere Bera izan zen gu denak baino hobea.

- 6/ Hark erran zautan: «Zertan zaude hor mundutarren hai-
[duruan?
Gaur Nitaz bertze laguntzailerik ez baitukezu munduan!»
Alta Jainkorik etzen iragan artean ene buruan,
ene fedea zoin ahula den ikasia dut orduan.

- 7/ Etxekoz nintzan geienik orroit oinaze heien erdian,
odolarekin nigarra nahas nadukalarik begian;
Jainkoaz bertze izaite asko zabilzkitan itzulian,
Hau etzen azkeneraino sartu ene gogoko argian.
- 8/ Herioari so han nindagon dolamena nariola,
gal irriskuan nadukanari asko pentsatzen niola,
lur huntarikan ene gogo ezin baztertuz nihola;
ez nuen uste hain hortaraino josia nintzaikiola.
- 9/ Etsimenduak hestutu arte Jainkoa nuen ahantzi,
bainan ordu latz hark ez ordea ene jaidurak ehortzi!
Bixta hauste ta pairamen orok lehengoa naute utzi,
ene gogo eta bihotza berriz lurrean dagotzi.
- 10/ Jainko maitea, hau baldin bazen nitan zen fede guzia,
lur huntaz laster asper nadien egin zaidazu grazia:
hersturak baizik ez badakarkit Zu ganako gutizia,
den baino ere gogorragoa bilaka bekit bizia.



Donibane-Lohitzune.

(Foto A. Z., 1976.IV.25)

DONIBANE LOHITZUNE'KO OMENALDIA

(1976 - VI - 20)

Ekainaren hogoiean, igandearekin, eskaini zautaten omenaldi bat Donibane Lohitzune'n.


Bildu zen jende gehiena, mugaz haindikoa izan zen; gipuzkoarra batez ere.

Enetzat egun haundia bazen ere, etzitzautan nik nahi baino lehen iragan: ene ez ontsaren gainerat, lanik aski eman zautan, goresmen heiek guziek eta eskaini zitzauzkitan presentek kausatu bihotz pilpiraren jasaiteak.

Zazpi pertsularik hartu zuten parte ene goresteako eskainia zen kantaldian: Mattin, Xanpun eta Ezponde, hemengoek; eta Lazkano, Mitxelena, Lopategi eta Azpillaga, mugaz haindikoek.

Bestaren bururatzean, Alkat eta Mendiburu ere igan ziren taula gainerat, ni aipatuz pertsu zombaiten kantatzerat.

Hunkigarriena, ernaniar mutiko ttipiak kantatu zuen pertsua izan zitzautan. Hau da:



*Ezkerretik: Urtapide, Bordari, Xalbador eta Lafitte,
Donibane-Lohitzune'n, Xalbadorren omenaldian, 1976.VI.20'an.*

(Foto A.Z.)

Bertsolarien olerkari zu, Urepele'ko Xalbador,
gizon umilla, kantari ona, ta beti euskaldun jator;
ernanitarrok aspaldi ontan bagenizuen ainbat zor,
maitasunezko gure biotza zuri eskeintzera nator.

Presentak eskuratu ondoan, nihaurek ere kantatu behar izan nituen pertsu batzu, ene sendimenduen agertzeko. Ez nuen errexki egin lan hori. Zutik egoiteak berak lanak eman zauzkitan.

Eskerrak diozkadet besta horren antolatzailei, eta beziki beren emaitzez eta han aurkitzeaz beraz ohoratu ninduten guziera.

Hemen agertzen ditut bakarrik, —ene liburua ez bertzek egin lanez betetzeagatik—, pertsulari bakoetak ni goretsiz kantatu pertsu bana, eta nihaurek kantatu nituen lauak, magnetofonetik hartu bezala:

Xanpun'ek:


Aitor dautzuet gai huneri ni lotzeko naizela beldur,
zeren badakit nere gai hori hunkituko dut gaur segur;
etorri zauku anai haundi hau eskerrak detzogun bihur,
nere partetik orai, Xalbador, entzun behar duzu agur.

Ezponda'k:

Pare gabea zira, Xalbador, kantuz zirelarik ari,
edertasuna ekartzen duzu ibilki duzun lanari;
nik zuretako osasun on bat galdatzen dut Jainkoari.
oraino luzaz ibili zaiten eskuararen zerbitzari.

Azpillaga'k:

Xalbadorrentzat zer pentsatua bertsozaleak daukate:
begia eta biotza eri, gauzik onenetan parte;
bertsozaleak nola gizon au duten biotzetik maite,
mugaz arunztik zure zai daude zu berriz sendatu arte.



Xalbador, bere bertsoen kantatzen, Donibane-Lohitzune'ko omenaldian, 1976.VI.20'an.

Gibelean, ezkerretik: Mitxelena, Lopategi, Lazkano, Mattin, Azpillaga eta Ezponda pertsulariak.

(Foto A.Z.)

Lopategi'k:

Joan den aspaldi kezkatu nengon, arduraz eta pentsakor,
maixu on baten iduri faltaz zenbait plazetan an ta or;
nik uste baño obeto dago, naiko zuzen eta jator,
arratsalde on, anai arrebak, besarkada bat, Xalbador!

Mitxelena'k:

Zutaz pentsatzen zenbat euskaldun an daude ezin egonak,
Xalbador zer dan ondo dakite emen da arunzko danak;
esan dirate alde artako zenbait andre ta gizonak:
zubiz arunztik diran partetik zuri eman zorionak!

Lazkano'k:

Bertsolaritzai oso gazterik eskeñi zion morrontza,
Euskalerrian erakutsi du bere buru ta abotsa;
bere erria maitatzen ere au ez degu izan otza,
bera maitatzen ari dalarik nekatu zaio biotza.

Alkat'ek:

Haurride onak, zuen arterat etorria bainaiz pozez,
Xalbador hori guk ere segur maite baitugu bihotzez;
horrenganako sendimenduak ezin ditut erran hitzez,
kanta dezala Eskual-herrian bertze horrenbertze urtez.

Mendiburu'k:

Xalbador, maite zaitut, egun dirot aitor,
zu bezalako zonbat ote zaiken etor?
Bertze guziek zuri hainitz dugu bai zor,
zure iturri ona ez dadila agor,
goresmen ta zorion bihotzez, Xalbador.



Xalbador, Donibane-Lohitzune'ko jaun meraren eskutik herriko urrezko medaila hartzen. 1976.VI.20'an.

Gibelean, ezkerretik: Mitxelena, Lopategi, Mattin, Azpillaga, Xanpun (bizkarrez), eta Itzaina.

(Foto A.Z.)

Mattin'ek:

Medikua, orroit zaite Xalbador operatzean:
zonbat gauza eder dagon gizon horren bihotzean;
gau eta egun ariko naiz ni horrendako otoitzean,
gero ere kanta dezadan lagun horren sahetsean.

Ta ene pertsuak:

Ene izena egun gora badabila,
zerengatik den ezin asmatuz nabila;
herri hunentzat nehoiz ez dut egin mila,
ene zerbitzua zen zerbitzu umila,
ez nindabilan segur sari hauen bila.

Anai arrebak, zuen txalo eta beste
maitasun seinaleek inarrosi naute;
berriz zuen alderat zorrez bainaiz bete,
agertuko dautzuet zoin zauztetan maite,
ene bihotz tristeak joiten duen arte.

Ez otoi enegatik naigabez sumindu,
ez ere nitaz pentsa: Horrenak egin du!
Gogo hunek oraino kantuz atsegin du,
ez da zuen Xalbador betiko ezindu,
zuendako sendotzen nai naiz alegindu.

Egun kantatzeari egin arren uko,
geroko esperantza dut nere eskuko;
hitz emaiten dautzuet, Jainkoa lekuko,
hemendik hilabete batzuen buruko
berriz hor nauzuela zuen zerbitzuko.



Usurbil

BAKARKA, SAIOETAN

IZARRA

Usurbil'en 1970'eko Uztailaren 4'an.

Gai-emaile, Antton Aranburu'k: Xalbador, zuk kantatuko diozun gaia au da: izarra.

Xalbadorrek:

- 1/ Jainkoak zer gauza handiak eman tuen munduari!
Gure mendean ezarri janari eta edari!
Gero lurretik baldin badugu begiratzen zeruari,
hara izarra, Jaunak emana gu gizonaren gidari!
- 2/ Jaunak, hoi en egiten, du eman denbora laburra,
horrenbeste gauza eder, iduri luke gezurra;
eta izarrek hor dute beti gidatu gizon zuhurra,
izarrek zioten erakutsi non sortua zagon Haurra.

- 3/ Izarra zeru ganean zer gauza miresgarria!
Izarraren ikusteko guk daukagun egarria!
Gizonarentzat gidari bada han goi hartan ezarria,
oi, izarra, behar lekura gidatu Euskal-herria!

LOREA

Errenteri'n, 1971'eko Uztailaren 25'an.

Gai-emaila, Mikel Ugalde'k: Zuk, Xalbador, arantza artean dagoen loretxoari, iru bertso.

Xalbadorrek:

- 1/ Zuek arantza deitzen dezute ta guk aldiz elorria;
zeruak eder egin zun bainan dena traba da jarria;
lurretik duzun indar on hortan aurki ba bizi berria,
loretxo horren antzean dago gaur ere Euskal-herria.
- 2/ Lehen askotan entzun izan dut, berriz egiten naiz jabe:
gure Jainkoa gauzak egiten beti izan dela trebe;
nunbait tontor bat ikusten bada azpian badauka labe.
eta lorerik nehoiz eztugu ikusten arantzik gabe.
- 3/ Lore gaixoak bere usaia nola dezake zabaldu,
berez hain pollit izanagatik arantzak estaltzen badu?
Jaungoikoari guk eskatzeko hauxet dezagun har kargu:
arantza hoiek gutxi ditzala eta lorea ugaldtu.

NESKATOA, HAUR BEHARRETAN

Hazparne'n, 1972-eko Martxoaren 12'an.

Gai-emaile, Mixel Itzaina'k: Xalbador, neskato bat zira eta esperantzeta gertatu zira, haur beharretan.

Xalbadorek:

- 1/ Amodioak gaitu huntarat ekarri,
zer gertatua zautan erranen dut sarri:
Barnean senditzen dut, hau zaut lotsagarri!
Sobera fidaturik izar faltsuari,
jarri behar naiz orai denen irrigarri!
- 2/ Norbaiti eman nintzan maitearen maitez,
hura ere maitale baitzen ene ustez.
Zer on erran daitaie horrelako aitez?
Aingeru bat utzi du amodio galdez,
nihaurek maita behar orai bien partez!
- 3/ Hor erori naizena ni ez naiz lehena,
jende maiteak, otoi, ez egun kondena!
Ezin da errepara egin izan dena,
sofritzen dutana ni ez bainaiz azkena.
otoitz egin enetzat, Santa Madalena!

ANDREA

Donostia'n, 1972'eko Apirillaren 30'an.

Gai-emaile, Jose Mari Iriondo'k: Galde bat iru bertsoetan zure erantzuna eman dezazun: Zergatik maite duzu, zahartu dan zure bizi-laguna, zure emaztea?

Xalbadorrek:

- 1/ Andrea ez dut nik hartu geroko menturan,
neguaz pentsa gabe maitatu dut udan;
bainan oraintxe jartzen ari naiz ni dudan
gero ta maiteago zergatik zaitudan.

- 2/ Zure egina nauzu muina ta hezurra,
hola pasako zela banuen beldurra;
oraino're zurekin ni beti gustura,
zutan kusi nuena ez baitzen gezurra.

- 3/ Iguzki egina da zu zaren itzala,
luzaro elgarrekin gaitezke, oxala!
Ikusten dut beti ta hobe zoazala,
armairu-xokoan dan ardoa bezala.

UDABERRIA

Zarautz'en, 1973-IV-1'an.

Patxi Larrañaga'k: Zuk ere iru bertso, nai dezun doña artuta, udaberriari kantatu bear dizkiozu. Iru bertso; gaia, ori da: udaberria.

Xalbadorrek:

- 1/ Gai alai hori entzun da eni alaitu zeraut barrena,
udaberriak ezeztatzen du negu beltzak duen pena;
kanpo guzia berpizturikan eder ezartzen duena,
udaberri da urte guziko sasoinetan ederrena.

- 2/ Gauza horiek egiten ditu Jainkoaren botereak, udaberrian denak baitira neguan baino hobeak: xoriak kantuz arboletarik, gauza parerik gabeak, eta pentzetan agertzen diren zoragarritzko loreak.

- 3/ Jainko Jaunak du bakarrik hiltzen gizonaren egarria; Harek du gure inguru hori gaur hoin eder ezarria; kanpo horier so egin eta orroit dut Euskal-herria: Jainko maitea, noizko daukazu horrentzat udaberria?

AMATXIREN ESKUAK

Oartzun'en, 1973-VI-10'an, Uztapideren omenaldian.

Juan Mari Lekuona'k: Urrengoa Xalbador. Oneri gaia, beti bezela, sakona jartzen diogu, ta gaur ere ala izango du noski. Gaia da: amaxiren eskuak; amonaren eskuak.

Xalbadorrek:

- 1/ Aizu, amona, aspaldi du zu etorri zinen mundura, ta zure baitan ibili duzu zonbait-zonbait arrangura; nik ikustean begi xorrotxez zuk duzun esku zimurra, laster mundutik joanen zarela etortzen zeraut beldurra.

- 2/ Beste amaxi asko ikusi izan ditut han-hemenka. Jainkoa, otoi, ez dadiela gaurkoan eni mendeka: zure eskuak ez bitza, otoi, behin betiko esteka, semeatxiak hain maite baitu esku horien pereka.

En la foto
d'A...



Xalbadorren amatxi eta alaba Mari Helen, 1955.VII.15'an.

- 3/ Ene amatxik mundu guzian ba ote zuen berdinek?
Dudatzen nago hartu dukeen nehoiz ere atseginik;
orai eskuak ximurtu zaizko zainak hor dauzka urdinik,
eta ez dago arritzekoa horrenbeste lan eginik.

NI NAIZ

Usurbil'en, 1975 urtean, «Ni naiz» gaia eman eta, kantatu pertsuak:

- 1/ Gure izakera desberdina da nola gauetik eguna,
bainan bakoitzak ereman behar Jainkoak eman diguna.
Nihori nehoiz ezin dut gorde ene aurpegi iluna,
gorputza latza badaukat ere bihotza daukat biguna.
- 2/ Asko alditan, atsegingarri zuentzat izan beharrez,
alaiarena egiten dakit, maitasunaren indarrez;
bainan barrua goibeldua maiz mundu huntako gaitz txarrez,
alai agertzen naizela ere, bihotza daukat negarrez.
- 3/ Zuen zorionak pozten nau ni, ez naiz gizon bekaiztia;
bainan barnetik senditzen ditut ongia eta gaizkia.
Ez naiz izar bat, hori badakit, ezta ere iguzkia;
bainan horrela har nezazue, hori da naizen gutzia.

EZKONTZA

Behin batez, «Zer da ezkontza?» galdatu eta Xalbadorrek eman pertsuak:

Ezkontza zer den jakin beharrez zarenez geroz hasia,
arbola baten itxurarekin erranen dautzut guzia:
arbola horren landatzailea zero lurren nagusia,
arbola hori arantzeduna, lore usaintsuz josia.

Bi sustantzia zugaitz batean, ai zer zugaitz karioa!
Horiek denek egiten dute ezkontzaren balioa.
Errex aditzen ez dutenentzat garbi erraiterat noa:
arantzak dira nahigabeak, loreak amodioa.

BATAIOA

Bertze batez, «Zer da bataioa?» galdatu eta Xalbadorrek eman pertsuak:

Zeruan justuentzat beha dauden gauzak,
debekatzen dauzkigu bataio eskasak.
Batai harrian hartu urak eta gatzak
ditugu zerurako lenengo urratsak.

Inozent izan arren —ai hori lastima!—,
bekatuzko kutsuan daukagu arima.
Bataiatzen gira ta horra desegina
sagarraren jateak jateak egin zuen mina.

Adam eta Ebaren hutsaren uztarrak
zauritan utzi gaitu gu eta gutarrak.
Hori ezeztatzen du bataio indarrak,
hor bilakatzen gare Jainkoaren haurrak.

HOGOI ETA LAU ORDU

Gipuzkoa'n, Ereñozu herrian, kantatzen ari ginela, Joxe Mari Aranalde gidari, ene lagun batzuer gai hau eman zeien:

—Zer egingo zinukete, hogoi eta lau ordu baizik etzai-
zuela bizitzeko gelditzen jakinik?

Nik ez nuen hortaz kantatzerik izan, bainan etxerakoan
hiru pertsu hauk moldatu nituen delako gai hortaz, eni kan-
tatzea tokatu balitzaut bezala.

Hemen ezartzen ditut, segur bainaiz, hiltzeratekoan go-
goeta hauek izanen ditutala, zertan naizen ohartzen banaiz
segurik.

Airea: «Haurtxo ttikia negarrez dago...»

- 1/ Bizian hogoi eta lau orduz gauza guti egiten da,
bainan Jainkoak eman epea nik ez dezaket emenda;
ene ondoko nai ditudanak ditzadan beraz izenda:
gazte maiteak, nik hasi lana zuen esku gelditzen da.
- 2/ Hogoi eta lau orduan hemen deus guti egin ditaiké,
bainan gelditzen zautan denbora ez dut saldu nahi merke;
ditutan etsai guzien ganat inguratu nahi nuke,
ene barkamena eskaintzerat eta heienaren eske.

3/ Eskual-herri maitea, izan dut zutan sortzeko grazia,
ordainez ene amodioa derautzut erakutsia;
egun artean eman derautzut ahal nezaken guzia,
orai bertzerik ezin dut eta eskaintzen dautzut bizia.

AZKEN AGURRA

*Liburu hunen funtsa zuretu duzia?
Beraz ikusi duzu bere nagusia;
zortaka ixurtzerat hor baitut utzia
herri huni diotan maitasun guzia.*

Xalbador

LIBURU AU ZARAUTZ'KO ITXAROPENA ETXEAN
EGIÑA DA. • MOLDIZTEGI-LANAK
1976-10-25'AN BUKATU ZIRAN



1009235

BO-2185

